



COUNCIL OF EUROPE    CONSEIL DE L'EUROPE

European Language Portfolio

Portfolio européen des langues



# Hizkuntzen Portfolio Europarra, Bigarren Hezkuntzarako (12-18 urte)

## Gida didaktikoa





**Hizkuntzen Portfolio Europarra,  
Bigarren Hezkuntzarako  
(12-18 urte)**

**Gida didaktikoa**





**MINISTERIO DE EDUCACIÓN Y CIENCIA**  
**SECRETARÍA GENERAL DE EDUCACIÓN**  
Subdirección General de Programas Europeos

Edita:  
© SECRETARÍA GENERAL TÉCNICA  
Subdirección General de Información y Publicaciones

Traducción:  
Gobierno de Navarra. Departamento de Educación  
Itzulpena:  
Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua

N.I.P.O.: 176-04-130-1  
Dep. Legal: M-15.713-2004

Imprime: OMAGRAF, S.L.  
Madrid



# Aurkibidea

---

Aurkezpena .....	5
1. Zer da HPE eta zertarako balio du .....	7
1.1. EMEB eta Portfolioa .....	7
1.2. HPEren espainiar bertsioa .....	8
1.3. Bigarren Hezkuntzako espainiar HPE .....	9
2. HPE. Atalak eta materialak .....	11
2.1. Hizkuntzen pasaporteak .....	11
2.2. Hizkuntz biografia .....	17
2.3. Dosierra .....	35
3. Nola erabili? .....	38
3.1. Ohar orokorrak .....	38
3.1.1. HPEren izaeraren gainean .....	38
3.1.2. Antolamenduaren gainean .....	40
3.1.3. Metodologiaren gainean .....	42
3.2. Xedeak eta ikuspegiak .....	44
3.2.1. Programazioa antolatzea .....	44
3.2.2. Ikaslearen hizkuntza profila egitea .....	45
3.2.3. Ikaslea trebatzea .....	45
3.2.4. Aniztasunarekiko sentsibilitatea garatzea .....	46
3.3. Nola erabil daitezke taulak? .....	47
4. Material osagarriak .....	51
1. jarduera: <i>Hizkuntza autobiografia</i> .....	51
2. jarduera: <i>Zertarako balio dute hizkuntzek?</i> .....	52
3. jarduera: <i>Zer egin dezaket?</i> .....	53
4. jarduera: <i>Nola sentitzen naiz hizkuntzak ikasten?</i> .....	55
5. jarduera: <i>Nola ahoskatzen da eta zer esan nahi du?</i> .....	56
6. jarduera: <i>Hizkuntza bitxikeriak</i> .....	56
7. jarduera: <i>Bila ezazu norbait</i> .....	57
8. jarduera: <i>Ikasi izan duzu lehenago hizkuntzaren bat?</i> .....	58
9. jarduera: <i>Testu ulergarrigaitza</i> .....	59
10. jarduera: <i>Jolas dezagun detektibetan</i> .....	60
11. jarduera: <i>Ikasteko nire planak</i> .....	61
12. jarduera: <i>Nire lanik onenak</i> .....	62
13. jarduera: <i>Ziurtagiria lortu aurretik eta ondotik</i> .....	63
14. jarduera: <i>Hizkuntza abanikoa</i> .....	64
15. jarduera: <i>Nire pasadizorik onena</i> .....	65
16. jarduera: <i>Hizkuntza jarrerak</i> .....	66
17. jarduera: <i>Ikasketaren egunkaria</i> .....	68
Taula: HPEren eta jarduera osagarrien arteko korrelazioa .....	69
Taula: Hezkuntza mailaren eta jardueren arteko korrelazioa .....	71
Bibliografia eta erreferentziak .....	72



# Aurkezpena

---


Gida honen xedea da *Hizkuntzen Portfolio Europarra* (HPE hemendik aurrera) erabili nahi duen Bigarren Hezkuntzako irakasleari Portfolioaren gaineko informazioa eta prestakuntza ematea. HPE Europar Kontseiluak diseinatu eta sustaturiko egitasmoa da, eta Espainiako estatuan, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren baitakoa den Europar Programetarako Zuzendariorde Nagusiak koordinatu du, autonomia erkidegoekin batean. Ezaugarri nagusiei dagokienez, HPE ikasleak hizkuntzen ikaskuntzaren eta bizi duen errealitate eleanitzekoaren eta kultura anitzekoaren gainean sentsibilizatzeko koadroak, galderak, orientazioak eta ariketak dituen koaderno bat da. Ezaugarria du baita ere, ikaslea hizkuntzen ikasle autonomo gisa prestatzea bere bizitzan zehar.

Gida honetan Bigarren Hezkuntzarako espainiar HPEren xedek, egitura eta ezaugarriak azaltzen dira, ikasgelan erabiltzeko orientazio orokorrak ematen dira eta horretarako jarraitu beharreko metodologiaren gaineko gomendioak ematen dira. Horretaz gainera, laguntzarako material eta baliabide didaktiko multzo bat ere ematen dira. Informazio hau baliagarria da Espainiako Bigarren Hezkuntza osatzen duten eskola testuingurueterako (DBH, Batxilergoa, heziketa zikloak, hainbat curriculum eta maila), hizkuntza testuingurueterako (erkidegoko bertako hizkuntza, inguruko hizkuntza, atzerriko hizkuntza) eta kultura testuingurueterako (autonomia erkidegoa, migrazioa, eta abar).

Dokumentu honetan bildu diren orientazio eta iradokizun guztiek segitzen dituzte HPE egitasmorako eta Europako kontinente osorako Europar Kontseiluak ezarri dituen ildo nagusiak. Modu zehatzagoan, orientazio eta iradokizun hauek kontuan hartu dituzte baita Espainian Haur, Lehen, Bigarren eta Helduen Hezkuntzarako portfolioetarako adostu diren egokitzapen eta zehaztapenak ere. Bigarren Hezkuntzako Portfolioak, eta gida honek bereziki, kontuan hartu dituzte 2002-03 ikasturtean Espainiako 13 ikastetxetan 16 irakaslek eta 500 ikaslek baino gehiagok egin zuten probako esperientziaren emaitzak. Gida honetako orientazio didaktiko, adibide eta laguntza materialetako asko ikasturte bateko iraupena izan zuen esperientzia horretan oinarritu dira.

Bigarren Hezkuntzako ikaslearendako *Hizkuntzen Portfolio Europarra*, material didaktiko multzoa da, eta *Gida didaktikoa*, irakasle talde zenbaiten elkarlanaren ondorioa. Daniel Cassany, koordinatzaile gisa, Olga Esteve, Ernesto Martín Peris eta Carmen Pérez-Vidal (Pompeu Fabra unibertsitatekoak) izan dira proiektu orokorra egin eta gidatu dutenak: Europar Kontseiluko ildoan aplikazioa Espainiako estatuan, ikaslearen portfolioaren eta irakasleendako gida didaktikoaren diseinua eta ikasgelako proiektuaren esperientziak. Margarita Caballero, Anna Coll, Cristina Escobar, Estel Grifol, Cristina Holm, Adelaida Mínguez, Glória Olivella, Eulália Purtí eta Piedad Reglero (Catalunyakoa Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako irakasleak) izan dira proiektua atzerriko hizkuntzako eta ama hizkuntzako ikasgeletan esperimendu dutenak, ikasleen iritziak jaso dituztenak eta material hauei behin betiko forma emateko orduan iradokizun garrantzitsuak egin dituztenak. Kontuan izan dira, Elisa Vázquez-ek koordinaturik, Galizian egin den esperientzioko emaitzak eta ekarpenak. Pertsona hauen guztien laguntzak –eta klaseetan HPE erabili izan duten ikasleen ilusioa eta aldeko jarrerak– posible egin dute hemen aurkezten dugun lan hau.

Gida honen egitura erraza da. *Zer da HPE eta zertarako balio du?* izeneko lehenbiziko kapituluak *Hizkuntzen Portfolio Europarra* egitasmoak Europa mailan eta Espainiako estatuan dituen ildo nagusiak aurkezten dira. *HPE*.



*Atalak eta materialak* izeneko bigarren kapituluaren banan-banan aurkezten dira ikaslearen portfolioaren hiru atalak (*Hizkuntzen Pasaportea, Hizkuntz Biografia eta Dosierra*) eta azpiatalak deskribatzen dira eta helburuak eta prozedura didaktikoak azaltzen dira. *Nola erabili?* izeneko hirugarren kapituluaren informazioa ematen da irakasleak proposamen hau ikasgelan erabili baino lehen kontuan hartu behar dituen erabaki metodologikoen gainean. Eta, bukatzeko, *Material osagarriak* atalean, Portfolioaren atalak luzatzeko ikasgelako jarduerak daude eta jarduerak hezkuntza mailarekin lotzen dituzten informazio taulak ere ematen dira.

Azken finean, gure nahia da *Hizkuntzen Portfolio Europarra* ikaslearendako eta Espainiako estatua osatzen duten erkidego guztiendako tresna baliagarria izan dadila: etorkizuneko herritarrek hizkuntzekiko interes handiagoa izan dezatela eta hizkuntza eta kultura aniztasuna errespetatu eta onartu dezatela, eta beren hizkuntzak modu autonomoagoan, eraginkorragoan eta zoriontsuagoan erabil eta ikas ditzatela.





# Zer da HPE eta zertarako balio du?

Atal honetan, modu laburrean azaltzen dira *Hizkuntzen Portfolio Europarrena* (HPE) helburuak eta ezaugarri nagusiak.


## 1.1. Marko Europar Bateratua eta Portfolioa

HPE eta *Erreferentzia marko europar bateratua: hizkuntzen ikaskuntzarako, irakaskuntzarako eta ebaluaziorako* (EMEB hemendik aurrera) estuki daude lotuak. Azken hau Europar Kontseiluko hizkuntza politikako proiektu orokorreko atal funtsezkoa da, ikaskuntzaren eta irakaskuntzaren gainean Europako estatu guztietarako ildoak garatu baititu eta ildo hauek orientaziorako baliagarriak baitira irakasle zein ikasleendako. EMEBek tresna hagitx osatuak eskaintzen ditu hausnartu ahal izateko hizkuntzak zer diren, zer esan nahi duen hizkuntzak ikasteak, zein gaitasun garatu behar diren hizkuntzak ikasteko, norbere ikasketa planak nola ezarri behar diren eta plan horien segimendua nola egin behar den.

Ikusten dugun moduan, EMEBek HPErekin berariazko lana egiteko tresna erabilgarrien multzoa eskaintzen du. Esan daiteke HPE EMEBen printzipio kontzeptualen aplikazio praktikoa dela. Izan ere, HPEk zuzenean Markotik datozen tresnak ere baliatzen ditu, kasu, lor daitekeen gaitasun mailaren gaineko adierazleak.

Modu errazean esanda, HPE dokumentu pertsonala da, eta bertan pertsonen hizkuntzak eta kulturak ikasteko orduan izan dituzten esperientziak erregistratu ditzakete, eta esperientzia horien gainean hausnar dezakete. Hiru atal ditu (*Hizkuntzen pasaportea*, nazioarteko formatukoa, *Hizkuntz Biografia* eta *Dosierra*), eta ataletako bakoitzak, azpialak. Funtzio nagusiak bi motatakoak dira: pedagogikoak (hizkuntzak ikasteko prozesuak sustatzea eta hobetzea) eta informatiboak (informazio tresna osatzea). Ondoko taulan zehazten da nola xehatzen diren funtzio hauek (Conderengandik jaso, prentsan argitaratua):

Funtzio pedagogikoak	Funtzio informatiboak
<ul style="list-style-type: none"><li>• Hizkuntzen ikaskuntza eta irakaskuntza hausnartzaileagoa sustatzea.</li><li>• Ikaskuntzaren helburuak modu komunikatiboan argitzea eta zehaztea.</li><li>• Autoebaluazioa bultzatzea identifikatzeko eskuraturiko gaitasunak, hizkuntza beharritan edo ikaskuntzaren helburuak.</li><li>• Hezkuntza aldaketa sustatzea, helburua ikaskuntza prozesuan ikasleari erantzukizun handiagoa emango dion irakaskuntza eredia izanik.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Europako herrialdeetan hizkuntzak ikasteko diren irakaskuntza eta ikaskuntza tradizioen gardentasuna eta koherentzia areagotzea.</li><li>• Europako irakasleei hizkera komuna proposatzea.</li><li>• EMEBeko hizkuntza gaitasunen deskripzioa erabiltzea, gaitasun hauek aise identifikatu eta antzeman ditzakete beste gainerako erabiltzaileek ere.</li></ul>



Europar Kontseiluko webean proiektu honekin loturiko informazioa aurki daiteke. Baita HPEren eredia beren herrialdeetara egokitu duten Europar erakundeetako orriekiko estekak ere.

## 1.2. HPEren espainiar bertsioa

---

HPE Espainiako estatuan argitaratzea eta jendarteratzea berebiziko aukera da hizkuntzen irakaskuntza garatzeko, hobetzeko eta gaurkotzeko, perspektiba guztietatik. Horregatik, espainiar proiektuaren jatorrizko diseinuan, Portfolioaren garapenean zeresana duten erakunde eta eragileendako ondoko helburu didaktikoak ezarri dira:

**Ikaslearendako**, bera izanik lehen hartzailea eta hartzaile garrantzitsuena, HPEk ahalbidetuko du:

1. Bizitzan zehar hainbat hizkuntza ikasteko orduan jarrera eta balio positiboak eskuratu eta garatzea.
2. Eleaniztasuna modu integratuan ikustea, barne hartuz ez soilik nazioarteko hizkuntza frankoak, baita autonomia erkidegoetakoak, etorkinen erkidegoetakoak eta herrialde europarretakoak ere.
3. Kultura aniztasunari, kulturen arteko kontaktuari eta hizkuntzaren eta kulturaren arteko harremanari loturiko jarrera eta balio positiboak eskuratu eta garatzea.
4. Hizkuntzak ikasteko orduan erantzukizuna garatzea. Norbere hizkuntza eta pedagogia kontzientzia garatzea, baita norbere autonomia ere ikaskuntza egoeretan.


**Irakaslearendako**. Proiektuak aintzat hartzen du, batez ere Bigarren Hezkuntzan, hizkuntza irakasleak direla proiektuaren zeharkako hartzaile garrantzitsuak, horiek direlako ikaslea HPEren erabileran trebatzeko ardura dutenak. Horrela, proiektu honek ahalbidetuko du:

1. Hizkuntzen irakaskuntza eta eleaniztasuna modu integratuan ikusten laguntzea, barne hartuz ez soilik irakaskuntzaren xede partikularra den hizkuntza, baita ikastetxean erabiltzen diren hizkuntza guztiak ere.
2. Irakaslearen ezagutzak eta irakaskuntza trebetasunak areagotzea, Portfolioaren proiektua barne hartzen duen ikuspegi pedagogikoaren (komunikatiboaren, konstruktibistaren, kognitiboaren, eta abarren) markoaren baitan.
3. Ikastetxeetako hizkuntza (espainiera, erkidegoko hizkuntza, atzerriko hizkuntza, atzerriko 2. hizkuntza, eta abar) irakasleen arteko koordinazioa areagotzea.
4. Portfolioa aplikatzeko esperientziak sustatzea ingurune zehatzetan eta esperientzia horiek aldizkarietan, jardunaldietako azalpenetan, eta abarretan jendarteratzea.

Helburuen aniztasun hau bi ildo nagusitan gauzatzen da, eta hauek bat datoz aurreko atalean adierazitako funtzio pedagogiko eta informatiboekin:

- Portfolioak harremanetarako tresna izan behar du, Europako hizkuntza, erkidego, eta kulturen arteko erreferente komuna. Helburu honek enfasia EMEBen maila eta orientazioetan jartzen du. Baita norbanako bakoitzaren ikaskuntzaren sozializazioan ere.
- Portfolioak ikasleak bere bizitzan zehar hizkuntza hazkunde osoa izan dezan ere sustatu behar du. Helburu honek enfasia jartzen du prestakuntza ebaluazioan, eta tresna bat eskuratzeko eta eleaniztasunaren kontzientzia





hartzeko lan indibidualean. Ikaslearen beharrian eta ezaugarrietara arrunt egokituak dauden tresnak sortzea ere eskatzen du.

HPEk Espainiako estatuan duen aplikazioak lau Portfolio ditu adin taldeen arabera. Lehenbiziko Portfolioa Haur Hezkuntzako da, 3 eta 5 urte arteko haurrendako. Hizkuntzen gaineko kontzientzia hartzen hasteko, marrazkidun ipuinaren egitura eta formatua du. Bigarren Portfolioa Lehen Hezkuntzako da, 6 eta 12 urte artekoa, eta hizkuntzen gaineko gizarte hausnarketaren jarraipenean eta sakontzean datza. Hirugarren Portfolioak –Bigarren Hezkuntzakoak–, 12 eta 18 urte artekoak, itxi egiten du derrigorrezko hezkuntzaren aldia eta ikaslea prestatu egiten du laugarren eta azken Portfolioa –helduena– erabiltzeko. Portfolio hau 16 urtetik aurrera erabil daiteke eta europar formaturik estandarizatuenarekin aurkezten da.

Hauk dira Portfolio hauen ezaugarriak nabarmenenak:

- Ikaslearen hizkuntza guztiak hartzen dituzte barne: erkidego bakoitzeko ofizialak, ikaskuntzaren xede direnak, ikasle etorkinak ekartzen dituenak, kalean entzuten dituenak, eta abar. Modu honetan, espero dena da Portfolioak Europako hizkuntzen ikaskuntza sustatzeaz gain, Espainiako estatua osatzen duten hizkuntza eta kulturen arteko bizikidetzaren hobetzea: Espainian bertako hizkuntzen aniztasunaren onarpena eta horiekiko tolerantzia areagotzea, hizkuntza beraren aldagai dialektalekiko jarrerak hobetzea eta aurreiritziak murriztea, edo Espainiako estatura atzerritik heldu diren pertsonen gizarteratzea erraztea.
- Enfasi handiagoa jartzen dute Portfolioaren funtzio pedagogikoan informatiboan baino, batez ere Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako HPEn. Portfolioa ikaslea prestatzeko tresna berebizikoa dela ulertzen da, eta proiektua bera ere irakaslearen prestakuntza didaktikoa areagotzeko aukera gisa ulertzen da.
- Portfolioa honezkero badiren hezkuntza proiektuekin harremanetan jartzen dute –batez ere erkidego elebidunetan–, kasu, *Ikastetxeko hezkuntza proiektua* (IHEP), *Ikastetxeko hizkuntza proiektua* (IHIP) edo *Hizkuntzen planteamendu integratua*. IHEP eta IHIP ikastetxeetako dokumentu programatikoak dira biak. Horietan, planteatu diren xedeak zehazten dira, eta horien artean sar genezake esplizituki Portfolioa. *Hizkuntzen planteamendu integratua* ikasleak ikasten dituen hizkuntzetako elementu komunak modu integratuan lantzea proposatzen du (kasu, Izen Sintagma/Aditz Sintagma egitura, gutun baten edo ipuin baten egitura, *erregistro* eta *dialekto* kontzeptuak), errepikapenak saihesteko eta hizkuntzen arteko erkaketa sustatzeko. Azken finean, Portfolioa beste proiektu batzuekin lotzen denean, proposatzen dena da, ekimen berri hau uztartzea Espainiako hezkuntzan nolabaiteko tradizioa duten jarduerekin, hizkuntza eta curriculum arlo desberdinetako irakasleak inplikatzeko saiatzeari gainera.

### 1.3. Bigarren Hezkuntzako HPE

---

Oro har, Bigarren Hezkuntzako HPEk Europar Kontseiluak emaniko ildoak eta espainiar portfolioen multzorako ezarritako helburuak segitzen ditu.

Ikaslearen Portfolioaren egitura 10. orrialdean ematen dena da.

Ikasgelako esperimendazioak proiektuaren azken emaitzan izan duen garrantzia (aurreko eskeman azaldu dugun gisan) kontuan harturik, merezi du aipatzea datu zenbait horren harira.

Proiektuaren garapen orokorra 2001eko maiatzean hasi zen eta hiru fase izan zituen. Lehenbizikoan, Espainiako hizkuntzen eta hezkuntzaren egoera



Pasaporte	Biografia	Dosierra
<p><b>Hizkuntz gaitasunen profila</b>  <b>Hizkuntza eta kulturekin izandako esperientziak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Institutuan</li> <li>• Ikasgelatik kanpo</li> </ul> <p><b>Ziurtagiriak eta diplomak</b></p>	<p><b>Nire hizkuntzak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zein hizkuntzatan jarduten dut besteekin?</li> <li>• Zer dakit egiten nire hizkuntzetan?</li> <li>• Nola hitz egiten dituzte nire hizkuntzak beste batzuek?</li> </ul> <p><b>Beste hizkuntza batzuk:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zein beste hizkuntza hitz egiten da nire inguruan?</li> </ul> <p><b>Nire ikasteko modua:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Nola ikasten dut?</li> <li>• Zer ikasi dut eta zerk lagundu izan dit ikasten?</li> <li>• Zer egiten dut ikasgelatik kanpo ikasteko?</li> </ul> <p><b>Nire ikasketa planak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zer ikasi nahi dut egiten hizkuntza bakoitzean?</li> </ul>	<p><b>Lehen gutunazala:</b> lan idatziak eta ikus-entzunezko grabazioak.</p> <p><b>Bigarren gutunazala:</b> dokumentuak eta oroigarriak.</p>

aztertu zen, ikastetxeko curriculum proiektuaren zeharkako ardatz gisa eleaniztasuna eta hizkuntzen ikaskuntza sustatuko duen tresna bat sortzeko asmoz (2001eko uztail-iraila). Bigarren fase batean, proposamen hau Bigarren Hezkuntzako irakasle taldearekin landu zen (katalana, gaztelania, frantsesa eta ingelesa ematen duten irakasleekin), eta ondoren proiektua ikasgelara eraman zuten (2002ko urtarril-ekaina). Horren ondotik Katalunia eta Galiziako Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak sartu ziren proiektuan, esperimendazioa egiteko (2002-03 ikasturte guztian zehar). Azkenik, lortu ziren emaitzak interpretatu eta aztertu ziren (2003ko uztaila-iraila), Portfolioaren eta gidaren behin betiko proposamena egiteko.

Oro har, materialak egiteko eta esperimendatzeko, diseinu mahaitik ikasgelako ikasmahaira joan-etorrian ibili izan gara. Katalunian, Portfolioarekin esperimendatu duten ikastetxeak 8 dira, Bartzelonako metropoli arean eta Tarragonan. 9 irakasle izan dira, eta irakasgaiak katalanez (bi talde), gaztelaniaz (talde bat), frantsesez (bi talde) eta ingelesez (bost talde) eman dira, DBHko 2. kurtsoetik Batxilergoko 2. kurtsoa, gaueko bi taldeekin, bata frantsesekoa (atzerriko bigarren hizkuntza). Bestean bi irakaslek hartu zuten parte (gaztelaniakoak eta ingelesekoak), eta orotara, 349 ikaslerekin aritu ziren. Galizian, testuinguru desberdinean kokatzen diren bost ikastetxetako zazpi irakaslek hartu zuten parte eta DBHko 186 ikaslek esperimendatu zuten HPEren eredu bera bederatzi astetan. Kasu guztietan, irakasleen esku utzi zen ikaslearen Portfolio sorta, gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez eta katalanez edo galegoz, eta irakasleek beraiek hautatu zuten zein hizkuntzatan egin nahi zuten esperientzia, irakasten zuten hizkuntzaren arabera edo ikasleen ezaugarrien arabera. Esperimendazioaren memorian (Cassany et al. 2003) begira daitezke esperientzia honetako datu zehatzak.





HPE

# Atalak eta materialak

## 2

Kapitulu honetan zehaztasunez deskribatzen ditugu Bigarren Hezkuntzarako espainiar HPEren hiru atalak: atal bakoitzean diren atal-zati eta materialak azaltzen dira, helburu didaktikoak formulatzen dira eta baita ikasgelan erabil daitezkeen prozedura metodologikoak ere. Koadro eta galdetegi gehienak eredu adierazten dira, ikasleen erantzunekin. Atal bakoitzaren aurkezpen orokorraren ondotik, koadro edo jarduera bakoitza xehetasunez aipatzen da, ondoko azpiatalekin:


- **Zertarako?** Jardueraren xede zehatzak azaltzen dira bertan, egokitasunaren edo beharraren gaineko zertzeladak emanez, testuinguru soziolinguistikoen edo hezkuntzako testuinguruaren arabera.
- **Nola?** Jarduera ikasgelan erabiltzean gerta daitezkeen konturik nabarmenenak azaltzen dira bertan; ikaslearen materialaren kopia fidelak ere baditu, erantzunen adibideekin.
- **Bestelako kontuak.** hainbat motatako iruzkin osagarriak azaltzen dira bertan, kasu, esperimendazioan jarduerak izan zituen erantzunak edo erreakzioak, zein zailtasun dituen, zein abantaila edo onura dituen, koadroak erabiltzeko modu desberdinak, eta abar.

Tauletako erantzunekin ematen diren adibideekin hainbat iruzkin egin daitezke. Duten garrantziagatik, erantzun dezente ematen ditugu hemen, hizkuntzaren, egoera soziolinguistikoaren, ikasleen profilaren eta lurralde eremuen adierazgarri izan daitezen bilatuz. Adibideetako batzuk ikasleen egiazko erantzunak dira, hitzez hitz transkribatuak (jatorrizko hizkuntza eta ortografian) eta kortxete artean ikasturtearen eta ikasten ari diren hizkuntzaren gaineko argibideak ematen ditugu –nahiz eta erantzunak erreferentzia ere egiten dien ikasleak erabiltzen eta ikasten dituen gainontzeko hizkuntzei–. Gainontzeko adibideek ere ikasleen egiazko erantzunetan dute oinarria. Hainbat lagunek eginiko adibide desberdinak aurkezteak eragiten du taula bereko erantzunak beraien artean koherenteak ez izatea.

*Nola erabili?* izeneko 3. kapitulu landu ditugu kontu orokorrak, kasu, HPE nola bidera daitekeen ikasgelan, edo zehatzagoak, kasu, nola erabil daitezkeen koadroak edo nola sekuentzia daitezkeen materialak ikasturtean zehar.

### 2.1. Hizkuntzen pasaporte

Hizkuntzen pasaportearen xede nagusia dokumentuaren jabearen hizkuntza erreperitorio osoa erregistratzea da, modu zehatzean eta EMEBen estandarizaturiko mailen arabera. Helburua da informazio hau erabili ahal izatea egoera desberdinetan, beharrezko ikusten denean: ikaslea atzerriko herrialde bateko ikastetxe batera aldatzen denean, eskola trukeak, ikasketa bidaiak, eta abar. Helburu hau arrunt ongi irudikatzen da atal hau izendatzeko “pasaporte” hitz metaforikoa erabiliz.



Hiru motatakoa da pasaporteak jabearen hizkuntza errepertorioa zehazteko duen dokumentazioa, eta bat dator pasaportearen hiru atalekin:

1. **Hizkuntz gaitasunen profila.** 5 trebetasunetako bakoitzarekin eta hizkuntza bakoitzarekin lortu den gaitasun maila zehaztea ahalbidetzen digu, EMEBeko erreferentzia maila komunera arabera.
2. **Hizkuntza eta kulturekin izandako esperientziak.** kulturak eta hizkuntzak ikasteko jardura nagusiak biltzen ditu, izaera formalekoak (Institutuan) zein informalekoak (Institututik kanpo).
3. **Ziurtagiriak eta diplomak.** Pasaportearen jabeak hizkuntzekin lortu duen ezagutza egiaztatzeko dokumentu nagusiak deskribatzen ditu.

Osagai hauetaz gain, HPEk Pasaportearen funtzioen eta Europar Kontseiluaren gaineko informazio laburra ere ematen du. Orrialdeetako batean, ikasleak bere izena eta helbidea idatzi eta argazkia jar dezake, dokumentuaren jabetza egiaztatzeko.

Hizkuntzen pasaportea txartel gisako bat da, HPEren gainontzeko dokumentuetatik bereizi aurkeztu dena, orri baten tamainakoa, jabeak berarekin eraman ahal izan dezan erraz, bai bidaietan, bai aurkeztu beharra duenetan. Europar Kontseiluak diseinu estandarra egin du helduendako diren hizkuntzen pasaporte guztietarako, atal, informazio, koadro eta diseinu orokortuarekin. Bigarren Hezkuntzarako Espainiako ereduak parametro berdinak erabili ditu, egokiak baitira 12 eta 18 urte bitarteko ikasleendako. Hala ere, sinplifikatu egin dira kulturak eta hizkuntzak ikastearen izandako esperientzien gaineko informazio taulak eta ziurtagiri eta diplomak deskribatzen dituzten taulak, nerabe batendako zehatzegiak izanik, ez baitira beharrezkoak.

Ikuspegi pedagogikoari dagokionez, hizkuntzen pasaporteak enfasia HPEren funtzio sumatiboetan edo egiaztatzaileetan jartzen du. Gizabanako baten hizkuntza profila zehaztea ahalbidetzen digu, maila estandarretatik abiatuta, eta hizkuntza gaitasun arruntaren deskribazioa ere ahalbidetzen du, Europako hizkuntza eta kultura bakoitzaren kultur tradizioetik haratago (azterketak, ziurtagiriak, erreferentzia mailak). Pasaporteak hizkuntzen ezagutzari dagokionez, kontinenteko erkidegoen artean (hizkuntza, kultura, gizarte erkidegoak) elkar ulertzea errazten du.

## ***Hizkuntz gaitasunen profila***

### **Zertarako?**

Atal honen helburua da ikasleak hizkuntzetako bakoitzean eskuratu duen gaitasun maila ezartzea, oinarrizko bost trebetasunetako bakoitzean (entzumena, irakurmena, elkarrizketa, ahozko adierazpena eta idazmena), Erreferentzia marko europar bateratuak erreferentziarako ezarritako sei maila komunekin (A1-C2) batean. Horregatik kopiatu dugu osorik dokumentu honetako autoebaluazio koadroa (2 koadroa, espainiar bertsioko 30. orrialdea), maila eta trebetasun bakoitzeko hizkuntza gaitasunak modu estandarizatu, homologatu eta laburrean deskribatzen dituenak.

### **Nola?**

Ikasleak balioetsi behar ditu hizkuntza bakoitzean eta trebetasun bakoitzean dituen gaitasunak, aipaturiko autoebaluazio koadrotik abiatuz, eta berak markatu beharko ditu dagozkion laukitxoak goitik behera eta ezkerretik eskuinera, hizkuntza, trebetasun eta maila bakoitzerako, ondoko adibideak erakusten duen moduan.

Koadro bakoitza betetzeko lana kontzientzia hartzeko hausnarketa prozesu baten azken emaitza da. Ikasleak idatzi beharko du hizkuntza eta trebetasun bakoitzean egin dezakeena eta ezin dezakeena egin. Beste ezagutza batzuen



CONSEIL  
OF EUROPE  
CONSEIL  
DE EUROPE  
European Language Portfolio  
Portfolio européen des langues



MINISTERIO  
DE EDUCACIÓN,  
Y FOMENTO

### Hizkuntza-gaitasunen profila

Ebalua itzazu zure gaitasunak / Assess your language skills.

Nire ama-hizkuntza: euskara

---

Nire beste hizkuntzak: gaztelania eta ingeleza

---

		A1	A2	B1	B2	C1	C2
Euskara	👂	■	■	■	■		
	📖	■	■	■	■		
	🗣️	■	■	■	■		
	✍️	■	■	■	■		

		A1	A2	B1	B2	C1	C2
Gaztelania	👂	■	■				
	📖	■	■				
	🗣️	■	■				
	✍️	■	■				

		A1	A2	B1	B2	C1	C2
Ingeleza	👂						
	📖						
	🗣️						
	✍️						

Ebalua itzazu zure gaitasunak.  
Assess your language skills.

- 👂 Entzumena / Listening
- 📖 Irakurmena / Reading
- 🗣️ Elkarriketa / Spoken interaction
- 🗣️ Ahozko adierazpena / Spoken production
- ✍️ Idazmena / Writing

artean, autoebaluazio honek eskatzen du ikasleak argi uler ditzala ondokoak: hizkuntzen erabilera osatzen duten oinarrizko bost trebetasunak, EMEBek ezarritako sei maila estandarrak (A1-C2) edo autoebaluazio koadroko adierazleetako bakoitzaren esanahi zehatza. Ikasleak autoezagutza eta erantzukizun maila badu edo aurretiaz beste autoebaluazio jarduera batzuk egin izan baditu, horrek ere erraztu egiten du jarduera.

Ikasleek ezagutza eta gaitasun hauek badituzte, autoebaluatzera jo dezakete eta pasaportean dagoen informaziotik abiatuz koadroak osa ditzakete. Aitzitik, ez badago argi alde aurreko esperientzia hori duten, gomendagarriagoa da atal-zati honen autoebaluazioa HPEren beste atal batzuk (*Hizkuntz biografia; Zer dakit egiten nire hizkuntzetan?*) edo jarduera osagarriak landu ondotik egitea, horrek ahalbidetuko baitu eskaturiko ezagutza eta gaitasunak sartzea pixkanaka, eta ikasleak pasaporteko lan honetarako trebatzea eta prestatzea. Dosierrean gordetako dokumentuen behaketak eta azterketak ere autoebaluazio hau egiten lagun dezakete.

## Hizkuntza eta kulturekin izandako esperientziak

### Zertarako?

Atal-zati honen xedea da ikasleak, bere bizitzan zehar, hizkuntzak eta kulturak ikasteko orduan izan dituen esperientziak erregistratzea. Hizkuntzen eta kulturen curriculum vitae gisako bat da atal-zati hau.

Hizkuntza esperientziak izan daitezke inguru formaletan (Institutuan, akademitan, klaseetan; hizkuntza bera irakasgaia izanik edo bestelako irakasgai bat atzerriko hizkuntzan ikasiz, eta abar), ez formaletan (Institututik eta ikasgelatik kanpo, beste hizkuntza batzuetako hitzuneekin harremanean, ikasle

trukeak, eta abar). Azken finean, ikasleak beste hizkuntza eta kulturekin harremana izan duen egoera mota oro.

Interes berezikoak dira kultura arteko ikaskuntza esperientziak (bidaiak, egonaldiak atzerrian, jarduera profesionalak edo akademikoak atzerrian, etengabeko kontaktuak atzerriko hiztun edo erakundeekin, eta abar), hizkuntzen ikaskuntzan ohikoak diren dokumentazio eta egiaztatze sistemarik ez dutelako (bertaratze ziurtagiriak, akreditazioak, diplomak, eta abar).

### Nola?

Ikasleak egin dituen ikasketen gainean ahal duen informazio guztia berreskuratu behar du: izan ditzakeen dokumentuak bildu (ohar koadernoak, irakasgaien programak, bidaien frogagiriak, eta abar), egin dituen jarduerak zerrendatu, eta abar. Ondoren, atal hau osatzen duten bi koadroak bete ditzake, adibideen harira. Deskribatu diren esperientziekin loturiko dokumentazioa Dossierrean gorde daiteke:

Institutuan (irakasgaiak, kurtsoak, proiektuak eta bestelako jarduerak):

Hizkuntza Language	Jarduera Activity	Data Date	Iraupena Timing	Tokia Location
Ingeles	Ingeles klasea, Lehen Hezkuntza eta DBH	98-01	3 kurtso, 3 ordu asteko	Iturrana BHI, Iruña
Euskara	Zientziatako klaseak. Lehen Hezkuntza eta DBH	99-00 00-01	2 ikasturte	Toki Ona BHI, Bera
Italiera	Udako ikastaroa	2001	60 ordu, hilabete 1	Erroma, bizkuntza eskola
Ingeles	Biologia klaseak ingelesez, herbeheretako institutuak materialak erabiliz.	2002-2003	Ikasturte 1	Analakko Mikel Donea BHI, Altran

Institututik kanpo (ikasle trukeak, bisitak eta bidaiak, beste hizkuntzetako hizkunekin harreman ohikoak):

Hizkuntza Language	Jarduera Activity	Data Date	Iraupena Timing	Tokia Location
Katalana	Oporrak udako eskolan, beren artean katalanez aritzen diren lagun katalaneekin elkarriketa	1999-2001	Udako bilabete bat, bihurtetan zehar	Cambrils, Tarragona
Ingelesa	Elkartrukea txat edo e-mail bidez, musikaren gainean, AEBtako lagunekin	2000-02	Duela bi urtetik hona	Internet
Frantsesa	Elkartrukea ikasle batekin	1999	Hilabete bat	Lyon
Alemana	Elkarriketa tandem austriar ikasle batekin	2003	Bi hiru hilabete	Madrid Lingua Akademia
Frantsesa	Magrebtar etorkinei arreta emateko borondatezko bizkuntza langile	2001-02	Udako bilabeteak	Ayuda solidaria GKE

Horren harira, nabarmentzekoak dira honako kontuak:

- Ikasle asko ez dira konturatzen hizkuntza eta kultura ikaskuntzak askotan esperimintatzen dituztela, eskolako zein eskolaz kanpoko jarduerak aniztasun handikoak direla, eta beraz, adibideek funtsezko eginkizuna dute hemen. Irakasleak ere aurkezten ahal ditu jardueraren hasieran, aurreko taula edo beste ikasle batzuen erantzunak baliatuz. Pertsonaia baten hizkuntza biografia moduan ere aurkez daitezke.
- Ikasle batzuek joera dute atal-zati honetan noizbehinkako jarduerak edo garrantzi gutxiak sartzeko (turista batekin izandako elkarriketa, hitzaldi batera joatea, eta abar). Esan behar zaie ikasketa esanguratsua izateko besteko iraupena eta intentsitatea izan behar dutela jarduerak hauek.
- *Hizkuntzen pasaportean* esperientzia hauen gaineko informazioa idatzi eta norbere datuak gainontzekoekin bateratzeaz gain, mesedegarria da ikasgelan jardueraren bat egitea esperientzia hauen hausnarketarako eta azterketarako. Kasu, halako galderek: *Zer izan da niretako?* edo *Zein da garrantzitsuen zuretako?* norbanakoari jarduerarekin dituen gogorapenetan eta hautemateetan arakatzea ahalbidetzen diote, taldeko kideen arteko ezagutza sustatzeaz gain.

*Material osagarrietako* proposamenetako batzuk (kasu, 10. jarduera) atal-zati honekin lot daitezke.

#### Bestelako kontuak:

Egindako esperimintazioak erakutsi zuen, hasieran, ikasle asko harritu egiten zirela atal-zati honetan kultura ikaskuntzako esperientziak eta inguru informazioetakoak sartu zirelako, ulertzen baitzuten horiek ez dutela parte hartzen hizkuntza bat ikasteko prozesuan. Aurrerago, beste ikasle batzuek idatzi zutena ikusi eta horren gainean hausnartu ondok, konturatzen ziren ikasturtean

zehir edo aurreko ikasturteetan eskolaz kanpo egindako jardueretako batzuk atal-zati honi erantzuten ziotela (ikasle elkartrukeak, filmak bertsiio originalean ikusteko zikloak, eta abar).

## Ziurtagiriak eta diplomak

### Zertarako?

Atal-zati honen xedea da ikasleak hizkuntzen ezagutza kreditatzeko dituen ziurtagiri eta diplomak erregistratu eta deskribatzea. Adin honetan dokumentu hauek erabiltzeko aukerak eskola eremuan baino ez direnez (ikastegi aldaketa, elkartrukeak), azterketa koadroetan eskatzen diren datuak oinarritzkoenak dira (hizkuntza, erakundea, kalifikazioa, tokia eta eguna, adina, titulua) eta ez dira sartu programen deskripzioa eta diplomekin loturiko probak.

### Nola?

Aurreko atal-zatian bezala, ikasleak koadroa bete dezake dagozkion dokumentuak bildu ondotik. Hemen ere garrantzitsuak dira irakasleak eman ditzakeen adibideak, ikasleak lehenagotik dituen ideiak eta *Idatz ezazu modu laburrean zer esan nahi duen zuretako diploma hau lortu izanak* moduko hausnarketa lanak areagotzeko. *Material osagarrietako* 13. jarduera ikasleak berak proba eta azterketetan izan duen errendimenduaren gainean egin dezakeen balioespen pertsonalean zentratzen da, eta atal-zati honetako osagarri ona izan daiteke.

### Adibideak:

<b>Hizkuntza:</b> <i>Language:</i> <i>Frantsesa</i>	<b>Nork emana:</b> <i>Issued by:</i> <i>Institut Français Madrid</i>	<b>Kalifikazioa:</b> <i>Qualification:</i> <i>Gai</i>	<b>Urtea eta adina:</b> <i>Year and age:</i> <i>02-3-12,</i> <i>16 urte</i>
---	--	---	--

<b>Titulua:</b> <i>Title:</i> <i>Diplôme d'Études de la Langue Française (1er degré)</i>
--

<b>Hizkuntza:</b> <i>Language:</i> <i>Euskara</i>	<b>Nork emana:</b> <i>Issued by:</i> <i>Hermaniko BHI ikastetxea</i>	<b>Kalifikazioa:</b> <i>Qualification:</i> <i>2. saria</i>	<b>Urtea eta adina:</b> <i>Year and age:</i> <i>01-5-12,</i> <i>14 urte</i>
---	--	--	--

<b>Titulua:</b> <i>Title:</i> <i>narrazio modalitateko bigarren saria,</i> <i>Udako literatura sariak</i>
--

<b>Hizkuntza:</b> <i>Language:</i> <i>Ingelesa</i>	<b>Nork emana:</b> <i>Issued by:</i> <i>Gaztela eta Leongo Junta</i>	<b>Kalifikazioa:</b> <i>Qualification:</i> <i>Parte hartzea</i>	<b>Urtea eta adina:</b> <i>Year and age:</i> <i>2001.eko abuztua</i> <i>16 urte</i>
--	--	---	--

<b>Titulua:</b> <i>Title:</i> <i>Gazteendako nazioarteko lan konpamentu batean parte hartzea</i>
--





Esperimentazioak erakutsi zuen ikasle gutxik bete dezaketela atal-zati hau irakaskuntza arautuko hizkuntza irakasgaietako kalifikazioak ez diren bestelako datu edo dokumentuekin. Irakasle esperimentatzaile zenbaiten arabera, pasaporteko orri batean deus idatzi ezin izanak "etsipena" edo "frustrazioa" dakarrela esan zuten. Gauzak horrela, garrantzitsua ere bada hizkuntza eta kultura jarduera aipagarrien fede ematen duten dokumentuak balioestea -aurreko adibideek erakusten duten gisan-, nahiz eta zehazki gaitasun mailaren kreditazioak ez izan (kasu, literatur sari bat irabaztea edo gazteendako nazioarteko lan kanpamentu batean parte hartzea).

Azterketa baten ondorioz hizkuntza ezagutzak kreditatzeko ziurtagiri edo diplomak dituzten ikasleekin atal hau osa daiteke delako diplomaren eta dagokion azterketaren deskripzio idatzi zehatzagoa emanaz. Deskripzio hau HPEri eranskin gisa gehi dakiok, eta modu honetakoa izan daiteke: azterketa eredu bat edo azterketaren erreferentzia bibliografikoa, probako osagarriak (entzumena eta idazmena, irakurmena eta ahozko adierazpena, gramatika, hiztegia), zein baldintzatan egin zen (hiztegiaren erabilera, denbora), eta abar.

## **2.2. Hizkuntz biografia**

---

Biografia honen xede nagusia da ikaslearen sentsibilizazioa sustatzea Europako eta bere inguruko hizkuntza eta kultura aniztasuneko alderdi zenbaiten gainean.

Maila indibidualean, ikaslearen prestakuntzarekin loturiko helburuak azpimarra ditzakegu:

- Ikasleak hizkuntzak ikasteko izan dezakeen interesa sustatzea;
- Beharrianak antzemateko, ikaskuntza helburuak adierazteko, eta dituen ezagutza eta trebetasunak autoebaluatzeke ikasleak dituen gaitasunak hobetzea;
- Irakasleari eta klaseari dagokionez, ikaslearen autonomia maila, ikaskuntza prozesuaren gaineko kontrol maila eta ikasleak hizkuntzak ikasteko duen gaitasun orokorra areagotzea.

Maila sozialean, ikaslea bizi den erkidegoko eleaniztasunaren eta kultur aniztasunaren onarpenarekin eta balioespen positiboarekin loturiko helburuak nabarmendu ditzakegu:

- Ikaskideen eta erkidegoko kideen (bizilagunak, ezagunak, herritarrak, eta abar) hizkuntza eta kulturak identifikatu, ezagutu eta errespetatzea;
- Aniztasun honen alderdi positiboak balioestea;
- Giza komunikazioaren aniztasunaren, hizkuntzaren eta kulturaren arteko harremanaren eta abarren gaineko alderdi orokorrak ikastea.

Aurreko kapituluan esan genuen gisan, helburuen azken talde honek Espainiako estatuan esanahi hirukoitza hartzen du. Hasteko, Europako beste herrialde batzuetan bezala, HPEk Espainiako herritarrak eleaniztasunaren eta kultur aniztasunaren Europan bertakotzea erraztu dezake. Bigarrenik, HPEk eta Hizkuntz Biografiak historia, hizkuntza eta kultura desberdinekin Espainiako lurraldean bizi diren erkidegoen arteko ezagutza, errespetua eta elkarrekiko balioespena ere hobe ditzakete. Azkenik, HPE berriki Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetatik etorri diren familien bertakotzea errazteko tresna pedagogiko garrantzitsua ere izan daiteke.





Honako lau atal-zati hauek ditu Hizkuntz Biografia dokumentazioak:

1. **Nire hizkuntzak.** Ikasleak hausnarketa egiten du ezagutzen dituen hizkuntzen gainean eta ikasten ari den hizkuntzen gainean.
2. **Beste hizkuntza batzuk.** Hausnarketa egiten du ikaslearen erkidegoan, inguruan diren hizkuntzen gainean, nahiz eta ikasleak hizkuntza hauek ez ezagutu eta ez ikasi.
3. **Nire ikasteko modua.** Hausnarketa egiten du ikasleak hizkuntzak ikasteko dituen estiloen gainean eta ikasgelatik kanpo hizkuntzak ikasteko eraginkorren diren praktiken gainean.
4. **Nire ikasketa planak.** Ikasketa helburuak adieraztea eta ikasketa helburuak lortzea errazten du, aurreko hiru atal-zatiei amaiera emateko.

Hizkuntz Biografia orri solte eta birziklagarrien multzo bat da, HPEko karpetan gordeak. Uztai-koaderno batean gehitu edo kendu daitezkeen dokumentu independenteen antolamendu honek askatasun handia ematen dio ikasleari, irakaslearen aholkuarekin, Biografiari orri berriak (fotokopiatuak) eransteko, materialak nahi bezala ordenatzeko, orri zaharren ordeztu berriak jartzeko, eta abar.

Ikuspegi pedagogikoari dagokionez, *Hizkuntz Biografia* HPEko osagarririk hezigarriena da, enfasia ikaslearen ikasketan eta hausnarketan jartzen duelako, eta ez gaitasunak egiaztatzean. Horregatik nagusitzen dira azterketa koadroetan eta proposamen didaktikoetan alderdi pertsonal eta kualitatiboak.

### ***Nire hizkuntzak***

Atal-zati honen helburua da ikasleak bere inguruan erabiltzen dituen hizkuntzak identifikatzea eta hizkuntza hauen erabileraren gaineko kontzientzia areagotzea. Gisa honetan, bere hizkuntza identitatearen kontzientzia (elebakarra, elebiduna, eleaniztuna) eta ikaskideen edo inguruko pertsona ezagunen hizkuntza identitatearen kontzientzia har dezakete ikasleek.

Atal-zati honen azpian dagoen printzipioa da pertsona batendako izugarriko balioa duela bere hizkuntza profilararen jakitun izatea. Kasik giza jarduera oro mintzamenaren islatzen denez, norbere mintzamenaren ahalmenak eta mugak ezagutzea norbere izaeraren ezagutzan sakontzeko modua da: *Ulertzen eta hitz egiten dituzun hizkuntzak nola, izana hala* esan daiteke, euskarazko atsotitza gogoan.

Hausnarketa hau hiru taula multzorekin egiten da:

1. *Zein hizkuntzatan jarduten dut besteekin?*
2. *Zer dakit egiten nire hizkuntzetan, edo atzerriko nire hizkuntzetan, edo inguruko nire hizkuntzetan?*
3. *Nola hitz egiten dituzte nire hizkuntzak beste batzuek?*

Taula multzo honek ahalbidetzen digu bereiztea zein hizkuntza hitz egiten diren, zein gizarte ingurutan erabiltzen diren (solaskideak, gaiak, tokiak, funtzioak), zeintzuk diren pertsona batek inguru horietako bakoitzerako dituen gaitasunak edo jarrera eta balio erlazionatuak. Aurreko kapituluan esan bezala, hemen hizkuntza mota ororen gainean arituko gara, beti ere ikasleak erabiltzen dituenak badira:

- Institutuko edo beste ikastegi akademiko bateko eskola curriculumekoak direnak: Erkidego bakoitzean eta estatuan ofizialak diren hizkuntzak;
- Bigarren hizkuntzak edo atzerrikoak, komunikaziorako *lingua franca* gisa erabiltzen direnak;

- Ikasleak familiaren jatorriaren arabekoak: ama hizkuntza, gurasoen edo aitona-amonen hizkuntza, eta
- Arrazoi desberdinengatik ikasi eta erabiltzen dituenak (migrazioak, hizkuntza esperientziak, eta abar).

Atal-zati honekin lotu daitezkeen jarduera osagarri batzuk: *Hizkuntza autobiografia* (1. jarduera) edo *Hizkuntza abanikoa* (14. jarduera).

### 1. Zein hizkuntzatan jarduten dut besteekin?


#### Zertarako?

Ikaslearen hizkuntzak identifikatzea eta lehen azterketa egitea ahalbidetzen digu erabilera inguruaren (tokia, solaskideak, eremua), lan edo jardueren (hizkuntza trebetasunak) eta ikasteko arrazoiaren (familia, eskola, migrazioak) gainean. Gaitasunen azterketa zehatzagoa eta ondoko tauletako autoebaluazioa egin aurreko pausua da.

#### Nola?

Irakasleak hizkuntza errepertorio desberdina duten pertsonen ereduen bidez aurkez dezake jarduera. Ikasleek erantzunak talde txikian eman ditzakete, banakako erantzunak bateratu aurretik. Azkenean, ikasle bakoitzak bere taula bete dezake banaka. Hona hemen adibide batzuk:


Zein hizkuntza?	Non erabiltzen dut? Etxean, ikastetxean, lagunekin, eta abar.	Zer egiten dut? Hitz egin, irakurri, musika entzun, bidaiatu, eta abar.	Non ikasi dut? Etxean, ikastetxean, bidaietan, lagunekin, eta abar.
<i>Tamazight</i>	<i>Etxean, amarekin eta batzuetan arrebarekin.</i>	<i>Ulertu eta hitz egiten dut familian.</i>	<i>Marokon, nire famihiarekin.</i>
<i>Gaztelania</i>	<i>Etxean (baina euskara baino guteriago). Ikastetxean, lagunekin, eta famihiako gainontzeoekin eta beste lagunekin.</i>	<i>Irakurri, hitz egin eta idatzi. Baita kantua entzunez ere.</i>	<i>Etxean, eta ikastetxean.</i>
<i>Ingelesa</i> [DBHko 1.a, ingelera]	<i>Ingeles klaseetan, ikas- tetxean, eta akademian; eta ikasle trukeetako lagun ingeles batekin.</i>	<i>Hitz egin, irakurri eta idatzi.</i>	<i>Ikastetxean eta akademian.</i>
<i>Frantsesa</i> [DBHko 1.a, frantsesa]	<i>Frantsesko klaseetan hitz egiten hasi naiz.</i>	<i>Hitz egin eta idatzi (saiatzen naiz).</i>	<i>Ikastetxean ikasten hasi naiz.</i>




Jarduera honek klaseko saio oso baterako ematen du, eta kasu batzuetan, hau izan daiteke ikasleek HPErekin duten lehenbiziko kontaktu formala. Jarduera hau zaila da talde berean errepikatzen, denbora asko behar baita ikasleen datuetan aldaketa esanguratsuak izateko.

### Bestelako kontuak:

Taula honen esperimentazioak datu interesgarriak eman ditu:

1. Jarduera honek ikasgelan azaleratzen ditu curriculumekoak ez diren hizkuntzetan ikasleek dituzten ezagutza eta trebetasunak. Taldeak ezagutuko du horrela, Iliak (Tafallako DBHko ikaslea) galegoz dakiela bere ama galegoa delako, Idoiak (Aguraingo Batxilergoko ikaslea) italiaraz egiten duela bere amonarekin edo Manelek katalana erabili ohi duela etxean, eta abar. Datu hauek azaleratzeak eragin aipagarria du ikaslearengan eta taldearengan: batetik, ikasgelako kideen arteko elkar ezagutzari mesede egiten dio eta taldea kohesionatzen da; bestetik, ikasleek aniztasunaren gainean dituzten balioak eta irudikapenak aldatzen dira (gauza hurbilagokotzat jotzen da, herrialde elebidunetatik haratagokotzat, hainbat hizkuntza ezagutzea edo familiako hizkuntza ondarea zaintzea modu positiboan balioesten da).
  2. Jarduera, ikasleak hizkuntzen gainean dituen kontzepzioak (iritziak, aurreiritziak, eta abar) ere azaleratzen ditu beren araztasun osoan, funts handiagorekin edo txikiagorekin. Horrela, ikasleren batek pentsa dezake Argentinako *hizkuntza* gaztelaniatik bestelakoa dela (“izen desberdina duelako”), edo Katalunian hitz egiten den espainiera eta Andaluzian hitz egiten dena desberdinak direla “belarrira desberdin jotzen dutelako eta nik desberdin hitz egiten dudalako hemen nagoenean (Cornellá) edo han nagoenean (Málaga)”. Kasu hauetan, irakasleak ikasleen baieztapenak entzun behar ditu eta hausnarketak eta datuak eman beharko ditu, horrela ahalbidetzeko ikasleek puntu hauen gainean nozio zientifikoagoak gara ditzatela: hizkuntza batzuek izendapen bat baino gehiago dute (espainiera eta gaztelania, galiziera eta galegoa), baina horrek ez du esan nahi hizkuntza desberdinak direnik; hizkuntzak desberdinak dira elkar ulertzerik ez dutenean bateko eta besteko hiztunek, eta dialektoak dira hizkuntza erabiltzeko orduan diren desberdintasunek ez dutenean zailtzen elkar ulertzea.
  3. Ikasleren bat lotsatu egin daiteke taulan bere inguruan ohikoa ez den hizkuntza, edo balioespen negatibodun egoera soziolinguistiko diglosikoa nozitzen duen hizkuntza idazteko orduan. Kasu hauetan, irakasleak gogoraraz diezaike HPE ikaslearen dokumentu pertsonala dela, eta inork ez duela erabiliko deusetarako ikaslearen oniritzia izan gabe. Edo bestela, taula, norberaren gaitasun eleanitzaren deskripzio neutroa, balioespenik gabekoa dela ere esan dakieke. Baita taulan hizkuntzaren bat ez idaztea galera handia dela ere.
  4. Ikaslearen hizkuntzen gaineko azalpena ez da beti argia izaten. Ikasle batzuek ez dute bereizten *komunikatzeko erabiltzen dituzten* hizkuntzen eta *ezagutzen dituzten* hizkuntzen (hitz batzuk, izena, eta abar) artean. Koadroko laukitxoak osatzeko ahaleginean, ikasle zenbaitek beren hizkuntza gisa japoniera edo greziera sartzeko joera dute, kasu, “sayonara” edo “calimera” hitzak ezagutzen dituztelako. Lana komunikazio hizkuntzetara bideratzeko prozedura bat izan daiteke ikasleari bi zerrenda egiteko eskatzea: batean idatz ditzala 50 hitz edo gehiago zein hizkuntzatan dakizkien, eta bestean zeinetan dakizkien hitzen batzuk edo hizkuntzaren izena.
- 



## 2. Zer dakit egiten nire hizkuntzetan? Zer dakit egiten nire atzerriko hizkuntzetan edo nire inguruko hizkuntzetan?

### Zertarako?

Atal-zati honek hainbat helburu bete ditzake, lanerako dugun xedearen arabera eta ikasgelan HPE garatzeko sekuentzia osoaren arabera. Ikaslea hizkuntza gaitasunaren adierazleekin egiten den autoebaluazioan prestatzeko urrats gisa erabil daiteke, ondoren, Hizkuntzen pasaporteko *Hizkuntz gaitasunen profila* atal-zatia osatzeko. Ikasleek aldeztu aurretik duten ezagutza maila diagnostikatzeko, beharrianak formulatzeko eta ondoren ikaskuntza helburuak berrebaluatzeko ere erabil daiteke, kurtsoko programazioaren motor lana egiten duen HPEren inguruan, ikasleekin beraien ikaskuntza helburuak negoziatzeko noizbehinkako tresna gisa.

Beste perspektiba batetik, atal-zati hau erabil daiteke hizkuntza guztietan eta trebetasun guztietan dituzten gaitasunak ebaluatzeko, edo modu partzialean, ikasleek trebetasun jakin batean edo hizkuntza jakin batean dituzten gaitasunak aztertzeko. Hizkuntzen erabileraren gainean, berebiziko ikasketa da ikaslearendako adierazleak irakurri eta ulertzea, adierazle hauek funtsezko kontzeptu eta bereizketak baitituzte. Kasu, testu motak eta erabilera inguruak, hizkuntza erabileraren autonomia maila, diskurtsoa prozesatzeko hainbat estrategia (planifikazioa, saihespena, konpentsazioa, eta abar), ulermen mailak (ideia nagusia, xehetasunak, inplizituak), eta abar.

HPEk hiru adierazle multzo ditu, hainbat eremutara zuzenduak:

- *Zer dakit egiten nire hizkuntzetan?* Adierazle orokorrak dira, hizkuntzen pasaporteko autoebaluazio koadroan oinarrituak, Bigarren Hezkuntzara eta Espainiako estatura egokituak. Norbanakoaren hizkuntza errepertorioaren deskripzio orokorra egitea ahalbidetzen digute, hizkuntza guztiak aintzat hartuz.
- *Zer dakit egiten nire atzerriko hizkuntzetan?* Adierazle zehatzagoak dira, A1 mailatik C1 mailara bitartekoak, EMEBen eskaletan oinarrituz egindakoak eta Espainian atzerriko hizkuntzak ikasten dituzten gazte eta nerabeen ingurura egokituak. Hauekin modu zehatzagoan deskriba daitezke zein hizkuntza gaitasun dituzten ikasleek ikasten dituzten hizkuntzetan eta ikasleen bizigiroan hitz egiten ez diren hizkuntzetan.
- *Zer dakit egiten nire inguruko hizkuntzetan?* Adierazle zehatzagoak dira, B1 mailatik C2 mailara bitartekoak, EMEBen eskaletan oinarrituz egindakoak eta Espainian beren inguruko hizkuntzak ikasten eta hitz egiten dituzten gazte eta nerabeen ingurura egokituak. Modu zehatzagoan deskriba daitezke hauekin zein hizkuntza gaitasun dituzten ikasleek beraien inguruan hitz egiten diren hizkuntzetan (etxean, ikastetxean, erkidegoan, eta abar.; ikus 1.2. eta 3.1.1. Zein hizkuntza sartu? atal-zatiak, HPEn sartzen diren hizkuntzen eta *inguruko/atzerriko* nozioen gaineko iruzkin zehatzagoak irakurtzeko).

Oro har, hiru adierazle multzoek egokitzen dituzte EMEBen eskalak eta autoebaluazio koadroa Espainiako Bigarren Hezkuntzako ikasleen hezkuntza ingurura. Maila formalean, adierazpen tekniko batzuen ordez adierazpen arruntagoak jarri dira, azalpenaren argitasuna bilatzeko asmoz; maila kontzeptualean, kultura elementu batzuk erantsi edo ordezkatu dira (informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera, erreferentzia gehiago lagunekiko harremanari, testu motari eta gaiari, eta abar), Espainiako ikasleei hurbilagoko egiteko asmoz.

Une bakoitzean erabiltzen diren adierazleak, bilatzen diren helburuen arabera hautatu dira (ikus 3.2 *Xedeak eta ikuspegiak* atal-zatia). Oro har, atal-zati hau HPEren osagairik garrantzitsuenetako bat da, bai prestakuntzarako duen

baliogatik, bai pasaportearen *Hizkuntz gaitasunen profila* atal-zatiarekin dituen antzekotasunengatik.





**Nola?**

Orokorrean, autoebaluazio koadroei erantzuteko lanak ikaslearen aldez aurreko prestakuntza handia eskatzen du, geroago azalduko dugun gisan. Langintza hau errazteko, honako jarduerak egin daitezke:

- Adierazle multzo bakoitza ulertzeko moduan eta zehaztasunez irakurtzea irakasleak eta ikasleek, adierazleen interpretazioa eta esanahia negoziatzeko. Talde txikitan, ikasleek adierazle bakoitza irakurri, ahoskatu, eta parafraseatu ahal izango dute, egiten duten interpretazioa taldearekin eta irakaslearekin bateratu baino lehen.
- Ikasgelan adierazleetakoen baliokide diren komunikazio egoerekin praktika simulatua egitea, ondoren, baliotsi ahal izateko ikaslea horiek garatzeko gai den edo ez. Material osagarrietako 3. jarduerak (*Zer egin dezaket?*) zehatz deskribatzen ditu koadro horiek betetzea erraz lezaketen ikasgelako prozedura zenbait.
- Ikaslearen Dosierrean gorderik dagoen ekoizpena (idazkiak eta ahozko grabazioak) aztertzea. Talde txikitan, ikasleek ekoizpen mota jakin bat beha dezakete (kasu, idazlanak) eta egiazta dezakete horietan betetzen ote diren adierazleetan dauden jokabideak.

Bestetik, koadro horietan idazteko prozedura praktikoak asko dira eta bakoitzak bere abantaila eta eragozpenak ditu (ikus *Nola erabil daitezke taulak?*, 3.3 atal-zatia): hainbat hizkuntza idatz daitezke taula berean, lehenbiziko adibidean bezala, edo bakarra, bigarrenean bezala (hor zehazten da taula ingeleserako betetzen dela. Autoebaluazioa egin deneko datak gehitzen zaizkio); besterik gabe, laukitxoa zirriborra daiteke, edo adierazle-erendako hiru lorpen maila ezarri daitezke (hasierakoa, partziala eta osoa), bigarren adibidean bezala. Azkenik, tauletako hiru zutabeak hainbat modutan erabil daitezke: Autoebaluazioa (*Ni*), heteroebaluazioa (*Besteak*, nire ikaskideak) eta *Helburuak* bereizteko, lehen adibidean bezala, edo hainbat datutako autoebaluazioak idazteko, bigarrenean bezala.

Entzumena:		Ni		Besteak		Helburuak	
		Eusk	Gazt				
A1	Ohiko hitzak eta oinarrizko esapideak (norberari eta familiari buruzkoak) ulertzen ditut, argi eta lasai hitz egiten badute.	Eusk	Gazt				
		In	Fr				
A2	Ulertzen ditut lexiko eta esapide erabilienak, zuzenean niri dagozkidan arloetan (norberari eta lagunarteari buruzko informazioa, baita bizitokiari, ikastetxeari, salerosketei eta aisiari buruzkoa).	Eusk	Gazt				
		In	Fr				
B1	Gai naiz mezueta idea nagusiak ulertzeko, hizketaldia argia eta gaiak ezagunak direnean. Ulertzen dut funtsezkoa irrati edo telebista saio askotan, gaurkotasuneko eta interes pertsonaleko gaiak direnean.	Eusk	Gazt				
		In					Fr
B2	Ez dut inongo arazorik gai ezagunen inguruko hizketaldi eta hitzaldiak oro har ulertzeko, baita telebistako albistegiak eta filmak, azentua oso muturrekoa ez bada.	Eusk	Gazt				
							In

Entzumena: <i>Ingelesa</i>		Ni 12/10		Ni 23/5		Ikaskidea	
A1	Ohiko hitzak eta oinarrizko esapideak (norberari eta familiari buruzkoak) ulertzen ditut, argi eta lasai hitz egiten badute.						
A2	Ulertzen ditut lexiko eta esapide erabilienak, zuzenean niri dagozkidan arloetan (norberari eta lagunarteari buruzko informazioa, baita bizitokiari, ikastetxeari, salerosketei eta aisiari buruzkoa).					EZ	
B1	Gai naiz mezuetao ideia nagusiak ulertzeko, hizketaldia argia eta gaiak ezagunak direnean. Ulertzen dut funtsezkoa irrati edo telebista saio askotan, gaurkotasuneko eta interes pertsonaleko gaiak direnean.						
B2	Ez dut inongo arazorik gai ezagunen inguruko hizketaldi eta hitzaldiak oro har ulertzeko, baita telebistako albistegiak eta filmak, azentua oso muturrekoa ez bada.						


Aurreko adibideetako bi xehetasun garrantzitsu aipatuko ditugu. Batetik, lehen adibideko *Helburuak* zutabeak erakusten digu nola erabil daitezkeen gaitasunen adierazleen koadroak helburuak eta ikasketa planak formulatzeko (koadro hauek *Biografian* dagoen *Nire ikasketa planak* atalarekin erlazioz). B1 adierazlean *Fr* idazteak eta B2 adierazlean *In* idazteak erakusten dute ikasleak entzumen jokabide hori frantsesez eta ingelesez izateko asmoa duela. Bestetik, bigarren koadroa adibide ona da ikusteko zutabeak erabil daitezkeela modu didaktikoan, autoebaluazioa balioesteko. Ikus dezakegunez, portfolio honen titularrak A2 adierazlea (*Ni* zutabea, 23/5) betetzeko gai zela idatzi zuen autoebaluazioan, baina bere erabakia balioetsi behar zuen ikaslea ez zegoela ados (*Ikaskidea* zutabea). Kasu honetan, ikasleak eta bere heteroebaluatzaileak beraien ebaluazioez hitz egin beharko lukete, adostasunera iritsi arte; ezinezkoa balitz, ebaluatzaile kualifikatuago batek, irakasleak kasu, eman beharko luke hirugarren iritzia.

### Bestelako kontuak:

Esperimentazioak atal-zati honen gaineko datu esanguratsuak ere ematen ditu:

1. Lanak zailtasun handiak ere baditu. Adierazleak zehatzak eta ulertzeko modukoak badira ere, eta ikasleek bertan erabiltzen diren hitz guztiak ezagututa ere, ikasleak ez du esanahia interpretatzen beti irakasleak –edo adierazleak egin dituzten teknikariek– ematen dizkion ñabardura eta zehaztasunekin. Hori 24. orrialdeko adibidean ikus dezakegu.

Adierazle hau behar den bezala erabiltzeko eta autoebaluazioa nolabaiteko fidagarritasunez egin ahal izateko, ikasleak azpimarraturiko terminoetatik koloredun kaxetako interpretazioak hartzeko aukera izan behar du; era honetan soilik egongo da adierazlea adituen ildo berean ulertzeko moduan. Ondorioz, adierazleak dituen autoebaluazio jarduera pixkanaka landu behar da, ikaslearekin adierazleen esanahia negoziatzeko astia hartuz eta adierazle horien aplikazioa autoebaluazio eta heteroebaluazio lanetan egiaztatuz.



2. Autoebaluazio lan hauetan, ikasleek atzerriko hizkuntzetan beren burua gutxiestera jotzen dute (nagusi den ideia da deus edo arrunt gutxi dakitela egiten) eta inguruko hizkuntzetan beren burua neurritz kanpo balioestera (nagusi den ideia da dena egin dezaketela). Kasu guztietan, irakasleak enfasia ikasleek atzerriko hizkuntza batean egin ditzaketen funtzio sinpletan jar dezake, nahiz eta denbora gutxi eraman hizkuntza hori ikasten (agurtu, kartelak ulertu, kantu zatiak, eta abar) eta baita ama hizkuntzan egin litezkeen lanik konplexuenetan ere, ikasleek ez dakizkitez horiek eta. Kasu, esperimentazioan aritu zen irakasle batek filosofia irakaslearengana jo zuen, hitzaldi espezializatu labur bat eman ziezaien ama hizkuntzan diskurtso maila guztiak (C2 maila) ulertzeko gai zirela esaten zuten ikasleei.

3. Adierazle hauek beharizanak antzemateko eta ikaskuntza helburuak formulatzeko tresna gisa erabiltzeak erakutsi du adierazle hauek erabilgarriak direla gisa honetako jarduerak (ikaslearen gaitasun maila diagnostikatzea, adierazleak erabiltzen dituzten kontzeptu sotiletan trebatzea) hasteko. Hala ere, helburuak formulatzeko adierazle zehatzagoak behar dira, ikasle eta talde bakoitzaren mailara, eta hauen ikasketa interesetara (testu mota, gaia, inguru soziala, eta abar) zorrotasunez eta zolitasunez egokituko direnak. Arrazoi horrengatik, oso zaila da maila edo ziklo bererako adierazle erabilgarriak formulatzea, eta azkenean, probetxuzkoagoa edo eraginkorragoa gertatzen da irakasle talde bakoitzak adierazleak egitea edo bere hezkuntza ingurura egokitzea. EMEBen dauden DIALANG autoebaluazio xehetasunek eta *Bergen-Cando Project* proiektuak ikasgelara egokitzeke autoebaluazio ereduak ematen dituzte.

**3. Nola hitz egiten dituzte nire hizkuntzak beste batzuek?**

**Zertarako?**

Atal-zati honen helburua da hizkuntza barneko aniztasunarekiko positiboak eta errespetuzkoak izango diren jarrerak sustatzea; errespetua, aldagai geografikoei, belaunaldietakoei, sozialei (dialektoak), pertsonalei (idiolektoak), eta beste ama hizkuntza bat dutenei (azentua edo arau estandarretik bestela-



ko hizkuntza erabilera izan dezakete hauek). Hizkuntza bera hitz egiteko moduen gainean kontzientzia hartzeak bi xede ditu:


1. Hizkuntza baten aldaera guztiakin errespetu jarrerak sustatzea; dialekto *onak* eta *txarrak* edo *politak* eta *itsusiak* daudela esaten duten aurreiritziak aniztasunarekin errespetuzkoak eta onarpenezkoak izanen diren jarrerengatik aldatzea; hizkuntza bateko dialekto jakin bat hitzun guztiak erabiltzen dutela sustatzea ideia gisa, eta horrekin batera, aldaera bakoitzarekiko balioespenak zeharo soziokulturalak direla.
2. Ikasleari irakastea desberdintasun hau «interpretatzen», gure hizkuntza hitz egiteko atzeritar batek egiten duen esfortzua estimatzen eta hobetzen laguntzen, edo hizkuntza erabiltzen duen pertsonaren gaineko informazioa jasotzen (sexua, adina, jatorri geografikoa, maila soziokulturala, ama hizkuntza, eta abar), erabiltzen duen aldaera dialektalaren arabera.

### Nola?

Ikasleen hizkuntzen aldaera dialektaletan hitz egiten duten pertsonen adibideak aurkez ditzake irakasleak. Pertsona hauek inguru hurbilekoak edo telebistan ezagunak diren pertsonak izan daitezke (famatuak, kantariak, futbol entrena-tzaileak, eta abar). Diskurtso zatien audio edo bideo grabazioak jar daitezke, horietan entzun ahal izateko fonetika, lexiko eta intonazio mailako berezitasun-ik agerikoenak, nahiz eta garrantzitsua den lana ez egitea astun aldaera eta ezaugarrien gaineko informazio dialektologikoarekin. Ikaslearen lana da halako galderari erantzutea: *Zer dakit entzuten ari naizen pertsona honen gainean?, gizona edo emakumea da, gaztea edo zaharra? nongoa da? zuk eta nik bezala hitz egiten du? zer irizten diot bere hitz egiteko moduari?*

Ondoren, ikasleek talde txikitik beraien hizkuntza modu berezian hitz egiten duten pertsonen zerrenda egin dezakete, gainontzekoekin bateratu eta bana-ka koadroa bete aurretik. Diferentziak onartzera eta hauen balioespen positibo-boa egitera bidera genezake eztabaida. Adibidea:

Pertsona	Hizkera	Ezaugarriak
Nire ama [DBHko 1.a, frantsesa]	Mendebaldekoa	Gurekin, seme-alaba eta Gasteizko gainontzeko ezagunekin ongi hitz egiten du (batuaz), baina aitona-amonekin ez.
Arantzazu	Erdialdekoa	"det" esaten du "düt" beharrean, eta aitzurrei "zuraije" esaten die.
Fermintxo	Nafarrera	"Aitzin" esaten du "aurre" beharrean, eta "esan" esateko "erán", eta "beste" esateko "bertze".
Li	Txinatarrek hitz egiten duten euskara	Erreaki eta cleaki nahasten ditu.
Xan [DBHko 2.a, ingelera]	Nafar-lapurtera	"Fite" esaten du "azkar" esan beharrean, eta frantseseko hitzak erabiltzen ditu: mais, bulanjera, xantierra, ezantza.
Jakes [DBHko 2.a, ingelera]	Zuberera	"ü" asko erabiltzen du: düit, düzü
Idaboko lebegusina	Euskara AEBko azentuarekin	Euskaraz, zerra ondotik Ameriketara joan zen amarekin baino ez da aitzin. Estatu Batuetan moduan ahoskatzen du.



Lehenbiziko laukitxoan (nire ama) adibide ona dugu ikusi ahal izateko nola ikasleak «ongi hitz egitea» lotzen duen euskararen aldaera estandarrekin, eta «gaizki hitz egitea» Euskal Herriko mendebaldean hitz egiten den aldaera ez-estandarrekin («aitona-amonekin» hitz egitean). Irakasleak egin dezakeena da azaldu gauza arrunta dela familiarekin modu dialektalean hitz egitea, eta ez dagoela dialekto «onik edo txarrik».

### **Bestelako kontuak:**

Atal-zati honetan, batez ere, Espainian hitz egiten diren hizkuntzen gainean arituko gara, baina hemen esaten dena Europako gainontzeko hizkuntzei ere aplikatu dakieke: kasu, gaztelania (Argentinakoa, Andaluziakoa,...), ingelesa (Britainia Handikoa, AEBkoa, edo Australiakoa) edo frantsesa (Frantziakoa edo Quebecekoa). Gainontzeko hizkuntzen moduan, euskarak, gaztelaniak, katalanak, eta galegoak aldaera dialektal nabarmenak dituzte, eta horrek maiz sobera errespetuzkoak ez diren balioespenak eta jarrerak sortarazten ditu hiztunen artean. Atzerritarrek hizkuntza hauek hitz egiteko duten moduaren gainean ere jarrera kritikoak, ez-ulerkorak aurki ditzakegu, zuzentasunik eza edo erraztasunik eza kritikatu, eta kasu horietan interesatuak egiten duen ahalegina ahaztuz. Atal-zati honek aniztasun horrekiko ulermen eta tolerantzia maila handiagoa bultzatzeko balio dezake.

### ***Beste hizkuntza batzuk***

Atal-zati honetan dagoen koadro bakarra *Zein beste hizkuntza hitz egiten da nire inguruan?* da. Koadro honetan aipatzen dira ikaslearen erkidegoan edo inguruan diren hizkuntzak (ikastetxean, auzoan, herri edo hirian, estatuan), nahiz eta ez izan komunikazio hizkuntza beretako: etorkinen edo horien seme-alaben hizkuntzak, turistenak, ikasle trukeetako ikasleenak, bisitarienak, edo komunikabideetan (telebista, irratia, zinema) azaltzen direnak.

### **Zertarako?**

Atal-zati honen funtsezko helburua da ikasleak ikasten edo erabiltzen ez dituen hizkuntzak (baina bere inguruan direnak) identifikatzea, hizkuntza eta kultura aniztasuna ezagutu eta onartu ahal izan dezan. Gainera, identifikaturiko hizkuntzen arabera eta inguruaren arabera, bestelako helburu soziolinguistikoak ere susta daitezke. Horrela, etorkinak dituzten inguruetan, atal-zati honek gertakari horretan –berriki azaldu dena Espainiako zenbait herritan– arreta jartzen eta ulertzen lagun dezake. Oro har, beste hizkuntza batzuk onartzeak hizkuntza horiek ezagutzeko eta ikasteko interesa sustatzea ere badakar.

### **Nola?**

Ikasleek ideia-zurrumbiloa egin dezakete talde txikian, beraien inguruan “behin baino gehiagotan” entzun dituzten hizkuntzekin zerrenda egiteko. Bateratu ondotik, ikasle bakoitzak dagokion koadroa osa dezake.

Atal-zati honek klase baterako ematen du eta lan osagarriekin osa daiteke. Material osagarrietako (*Nola ahoskatzen da eta zer esan nahi du?*) 5. jarduerak, (*hizkuntza bitxikeriak*) 6. jarduerak eta (*bila ezazu norbait*) 7. jarduerak –azken honetako galderak gai honetarako egokituz– atal-zati honetan sakontzea ahalbidetzen dute. Hauek dira beste hizkuntza batzuen gaineko jakin-mina pizteko egin daitezkeen beste lan txiki batzuk: *Hizkuntza honetan nola kontatzen da 1etik 10era?, nola egiten da agur? nola esaten da egun on?*



Hizkuntza: ..... <i>mediera</i> .....
Nork hitz egiten du? ..... <i>S. solairuko familiak, senar-emazteek alaba ilehoriarekin.</i>
Non entzuten dut? ..... <i>Eskelelarran eta igogailuan, alabarekin aritzen direnecan.</i>
Zer dakit hizkuntza horretaz? ..... <i>Belarrira arraro jotzen du. Nabiko muke zerbaít jakin eta neskatoa agurtu ahal izatea.</i>

Hizkuntza: ..... <i>katalana</i> .....
Nork hitz egiten du? ..... <i>Jordik, nire lagunik onenak. Hemen, Gastei- zen eragutu nuen. Euskaraz hitz egiten eta irakurtzen du.</i>
Non entzuten dut? ..... <i>Bere etxera noanean eta amarekin eta anai-arrebekin aritzen direnecan. Arka gus- tutzen zait nola hitz egiten duten entzutea.</i>
Zer dakit hizkuntza horretaz? ..... <i>Maiz Jordik "in" idazteko "ny" idazten du, katalanez ñ horrela idazten dutelako.</i>

### **Nire ikasteko modua**

Atal-zati honetan hizkuntza ikaslearen prestakuntzaz arituko gara. Helburu didaktikoen artean, nabarmentzekoak dira ikasteko prozesuen gaineko kontzientzia hartzea, horien gaineko kontrol metakognitiboa areagotzea, trebetasunetako bakoitza ikasteko estrategiak areagotzea edo ikastetxetik kanpo ikaskuntzarekin loturiko egoera ez formalen gainean hausnartzea. Hausnarketa hau bukatuko da ondoko atal-zatian, *Nire ikasketa planak* izenekoa, etorkizunera begirako hausnarketa eginen baita bertan.

Hauxe da Atal-zati honen azpian dagoen orientazio metodologikoa: ikaslerik eraginkorra eta zoriontsuena da, gehiago eta modu zuzenagoan ikasten duena, arduratsuen eta bere ikasteko moduz kontzientzia handiena duena. Eta ikasle hori gai da bere beharrezan identifikatzeko eta ikasketa helburuak markatzeko, baita helburu horiek lortzeko jardura didaktikorik egokienak hautatzeko eta planifikatzeko ere. Atal-zati honetan azpimarratzeko modukoa den beste printzipio bat da ikaslea bere bizitza guztian zehar hizkuntzak ikasteko prestatu eta hezteko beharra, inguru formaletan zein ez-formaletan, etengabe ari baikara hizkuntza desberdinetan ditugun hizkuntza gaitasunak hobetzen. Ez, ordea, beti ikasgela batean eta irakaslearen laguntzarekin.

Atal-zati honetan hiru taula ditugu:

1. *Nola ikasten dut?* Eredu batzuekin eta gainontzeko ikasleekin erkatu ondoren, ikasleak ikasteko bere estrategiak aztertuko ditu.
2. *Zer ikasi dut eta zerk lagundu izan dit ikasten?* Ikasleak ikasteko duen estiloaz eta estrategiaz hausnartuko du, abiapuntu gisa hartuta batetik, oroitzapenak eta bestetik, lehenago bizi izan duen eta ikaskuntzarekin loturik dagoen egoera baten azterketa.
3. *Zer egiten dut ikasgelatik kanpo ikasteko?* Enfasia, hizkuntzak ikasteko egoera ez-formaletan jartzen du, norbere estrategietaz kontzientzia hartzeko.



Oro har, Portfolioaren funtsezko beste osagai bat da, autoebaluaziorako hizkuntza gaitasunen adierazleekin batean.

Baina egia ere bada, inguru errealetan egindako esperimentazioaren arabera, mugatua dela Bigarren Hezkuntzako ikasleek gai honen gainean autoazterketarako eta hausnarketarako duten gaitasuna. Ikasle askok beren portaeraren bat aipa dezakete, baina azkar nekatzen dira jarduera honekin eta ez dute beti estimatzen prestakuntzarako izan dezakeen interesa. Horregatik, gomen-dagarria ematen du HPEren osagai hau garatzea urratsez urrats, kurtsioan zehar, noizean behingo azterketa eta hausnarketa lan laburrekin, hizkuntza erabiltzeko beste jarduera batzuen azken aldean txertatua, hausnarketarako inguru zehatzagoak eskaintzeko.

### 1. Nola ikasten dut?

#### Zertarako?

Jarduera honen xedea da ikasleek ahozko eta idatzizko diskurtsoak ulertzeko eta produzitzeko erabiltzen dituzten estrategia psikolinguistikoen gaineko kontzientzia hartzea. Ikasleak hitzez adierazten ditu eta ikaskideekin erkatzen ditu diskurtsoak entzuteko eta ulertzeko duen modua, nola lortzen duen modu aktiboan hartzea parte elkarriketetan, nola prestatzen eta egiten dituen hizketaldi laburrak jendaurrean edo zein estrategia erabiltzen duen idatzizko testuak ulertzeko eta produzitzeko. Ikaskideek egoera berdinetan nola jokaten duten entzuteak estrategia sorta handitzea ahalbidetzen dio ikasleari, norbere estrategiez kontzientzia hartzeaz gain.

#### Nola?

Lehenbizi, ikasleak talde txikian irakurri eta interpretatuko ditu Portfolioko marrazkiak. Marrazki hauetan ikasleak irudikatzen dira, bost trebetasunak garatzen. Talde txikian, pertsonaiaren estrategiak norberarekin erka daitezke, eta ideia-zurrumbiloa ere egin daiteke ulertzeko, elkarriketak izateko, eta abarretarako "baliabideen" edo "trikimailuen" gainean. Ondotik, zerrendak klaseko taldeekin bateratu eta azkenik, ikasle bakoitzak bere Portfolioko koadroa osatuko du, erantzun pertsonalekin.

Jarduera hau trebetasun guztiak une berean landuta egin daiteke, edo bestela, trebetasun bakoitza bere aldetik fokaliza daiteke. Bigarren aukera honekin batera trebetasun jakin hori praktikatzeko alde zuzeneko jarduerak egin daitezke. Horrela, ikasleen portaera sakonago lantzeko aukera izanen dugu.

Hona hemen adibide batzuk:



ENTZUN:

Ni(k) *adi entzuten dut, eta abal bezala itzultzen jauten...*  
*naiz eta irakasleak egiten dituen keinuei erreparatzen*  
*diot... [DBHko 1.a. irautsua]*

Ni(k) *I catch the main idea but not all details. If the speaker*  
*speaks loudly, slowly and uses not specific*  
*vocabulary, I catch more details... [Bateileroko 2.a]*

Ni(k) *ahalegina egiten dut dena ulertzeko eta ulertzen dudan*  
*ean, orduan bai zehaztu naizela gustura. Ez badut*  
*zehaztu ulertzen, hitzak lotzen jauten naiz eta azkene-*  
*an, besterik gabe ateratzen zait... [DBHko 1.a. irautsua]*





 IRAKURMENA:



Ni(k) eskerei eta marrazkiei erreparatzen diet.

Ni(k) testuko zatirik garrantzitsuenak bilatzen ditut: izenburua, paragrafoen hasierak, letra handienak edo nabarmenduta daudenak.

Ni(k) .....

 ELKARRIZKETA:



Ni(k) eskunak erabiltzen ditut azalpenak laguntzeko; zerbaít ez badut ulertzen, harridura aurpegiá jartzen dut eta "Pardon?" esaten dut.

Ni(k) ..je préfère parler qu' écrire en français.  
L' orthographe est très difficile.

Ni(k) .....

 AHOZKO ADIERAZPENA:



Ni(k) urte dut euskaraz eta gaztelaniaz errazagoa dela hitz egitea idaztea baino, eta atzerriko hizkuntzatan zailagoa zait pentsatu beharra izaten dudalako.  
[DBHko 1.a. (antzeria)]

Ni(k) I need to improve my pronunciation. I don't like to speak to other people, so I feel nervous and I don't worry especially about making grammar mistakes.  
[Batzilergoak 2.a. ingeles]

Ni(k) .....





### 6 IDAZMENA:



Ni(k) *zurrabarroak eta eskemak egiten ditut eta hiztegia maiz jotzen dut, eta ikaskideei galdetzen diet ez dudana.*

Ni(k) *denbora asko behar izaten dut eta aldian-aldian deskantua hartu behar izaten dut. Hiztegia asko erabiltzen dut.*

Ni(k) .....

Ikaslea bere prozesu kognitiboen kontzientzia hartzeko gai den neurrian, atal-zati honetan sakondu dezakegu, trebetasun bakoitzeko lan zehatzagoetan izandako jokaera aztertuz. Kasu, idazmenarenarekin: *Zer egiten dut nire testua irakurriko duenaren kontzientzia hartzeko?, nola lortzen ditut idazteko ideiak?, zer egiten dut zuri gelditzen naizenean?, nola antolatzen ditut nire ideiak? nola berraztertzen dut ortografia?; elkarrizketarekin: zer egiten dut nire solaskideak azkarregi hitz egiten badu?, zer egiten dut zerbait ulertzen ez dudanean?, zer egiten dut zerbait esateko behar dudan hitz bat gogoratzen ez dudanean?, eta abar.* Hemen baliagarria izan daiteke trebetasun bakoitzean ikasteko estrategien zerrenda osoak izatea. Ohiko gidaliburuetan kontsulta daitezke.

Dosierrean gordetako dokumentuetako batzuen azterketa izan daiteke ikaslearen estrategiak aztertzeko beste prozedura bat. Bere burua entzutean audio grabazio batean edo bideo batean ikustean, ikaslea kontura daiteke ahozko elkarrizketetan nolako portaerak dituen. Gisa berean, idazki bat egiteko prozesuan diren tarteko ekoizpenen azterketak (zirriborroak, zuzenketak, eta abar) ahalbidetzen digu ikasleak egin dituen prozesu kognitiboak aztertzea.

*Material osagarri* gisa proposaturiko jardueretako batzuek atal-zati honen antzeko helburuak dituzte. 8. jarduerak (*Ikasi izan duzu lehenago hizkuntzaren bat?*) ikasteko estrategien gaineko hausnarketari sarrera ematen ahal dio eta 17.ak, (*Ikasketaren egunkaria*) hausnarketa ikasturtean zehar integratzeko praktika etengabekoa eskaintzen du. 9. jarduerak (*Testu ulergarrigaitza*), kasu, irakurmena lantzen du. Azterketa motako ariketak ditu, ahalbidetzeko, hizkuntza erabiltzean garatzen ditugun ulermen eta ikaskuntza prozesuen ezagutza.

### 2. Zer ikasi dut eta zerk lagundu izan dit ikasten?

#### Zertarako?

Jarduera honen xedea aurreko atal-zatikoaren bera da (ulertzeko, ekoizteko eta ikasteko estrategiez kontzientzia hartzea), baina interesgunea beste perspektiba batzuetan jarrita: gizakien arteko portaerak edo norberak ikasteko dituen estiloak erkatu beharrean, ikasleak iraganean bizi izan dituen ikasteko esperientziak aztertzen ditu, eta bost trebetasun komunikatiboetan



edo trebetasunetako bakoitzeko lan kognitiboetan jarri beharrean oinarria, hizkuntzaren elementu zehatzetan jartzen du (hitzak, egiturak, eta abar). Oinarrian dagoen ideia da norbere ikasketaren historiatik ikastea: batek jada ikasi duenaren gainean eta ikasketa egiteko moduaren gainean (baldintzak, inguruabarrak, eta abar).

### Nola?

Irakasleak lana hainbat ikasleren hizkuntza ikaskuntzen adibide gisa aurkez dezake, inguruaren eta gaiaren arabera ikasleengandik hurbilen egon daitezkeen egoerak hautatuz. Talde txikitik, ikasleek elkarrekin bete dezakete taularen lehen zirriborro bat, taldekide guztien ekarpenekin. Ondotik, datuak taldeka sailkatzen saia gaitezke: hizkuntzen arabera, inguruaren arabera (klasean eta klasetik kanpo) edo hizkuntza elementuen arabera (hitzak, egitura sintaktikoak, eta abar). Klasean bateratu ondoren, ikasle bakoitzak bere Portfolioko koadroa erantzun pertsonalekin bete dezake.

Zer ikasi dut?	Zerk lagundu zidan ikasten? nola ikasi nuen?
<i>Cool</i> [DBHko 4.a, ingelese]	<i>In a chat. All the people said this word. Is important because is a colloquial word.</i>
<i>What a pity</i> [DBHko 4.a, ingelese]	<i>At school. If somebody say a bad notice, you should say: "What a pity".</i>
<i>Oh my God</i> [DBHko 4.a, ingelese]	<i>In a TV serie. Because somebody can tell you bad news (or good).</i>
<i>Cut it out! Will you?</i> [2. BATX. ingelese]	<i>English teacher says that ALWAYS !!!! To know when you have to be quiet.</i>
<i>Commodities</i> [2. BATX., ingelese]	<i>In a shop. It's a false friend that means "produktuak" and not "erosotasuna".</i>
<i>Withdrawal symptoms</i> [2. BATX., ingelese]	<i>When I was doing Proiektua [Hizkuntza irakasgaitan egindako lana]. I saw it in a magazine. It's related with drugs, with real life.</i>
<i>Cochonnerie</i> [DBHko 1.a, frantsese]	<i>Frantseseko klasean ikasi nuen, hala deitzen delako koadernoak.</i>
...	

Adibideetan ikus dezakegunez, hitzak ikasleak erraz gogoratzen dituen unitateak dira, baina lanak egitura sintaktikoak edo esakuneak eta hizketako egin-tza osoak ere izan ditzake. Bestetik, interesgarria da ikasleari galdetzea ikaske-ta zein egoeratan eta zergatik gertatu den, norberak ikasteko duen estiloaren gainean ondorioak ateratzeko, adibide hauetan bezala:



Zer ikasi dut?	Zergatik?
<i>Desioak edo hipotesiak adierazteko If I were a... egitura ikasi nuen, If I were a richman... hasten den kantuararekin. Uste dut "Biolinjo-lea teilatuan" obrakoa dela.</i>	<i>Kantuak gustatzen zaizkidalako. Musikearekin erraz zozoratzen dut letra, eta erraz ikasten ditut egiturak.</i>
<i>Turkieraz Dört gay (lau te) esaten ikasi nuen Turkiara bidaiari, ingelesez ulertu ez zidatenean. Hitzak bilatu nituen hiztegian eta zero aise zozoratzen nituen, egunero erabiltzen nituenen.</i>	<i>Beharra nuelako. Oso da garrantzitsua gauza erabilgarriak, egunero erabiltzen direnak, ikastea. Hitzak egunero erabiltzen badituzu konturatu ere egin gabe ikasten duzu...</i>

Hausnarketa hauek Portfolioan orri osagarrietan erants daitezke.

### 3. Zer egiten dut ikasgelatik kanpo ikasteko?

#### Zertarako?

Atal-zati honen xedea da hizkuntzak ikasteko egoera ez-formalak eta naturalak sustatzea, eskolako girotik kanpo. Ikasleak bete behar duen taulak hizkuntza ikastetxetik kanpo erabiltzeko hainbat modu iradokitzen ditu, eta ikaslea bultzatzen du egiten duenaren eta egin nahi lukeenaren gainean hausnartzera.

Hainbat ikaslek hizkuntzak eskuratzea ikasteko inguru eta praktika formalagoekin lotzen dute (klaseak, testu liburuak, ariketa prestatuak), dela beren inguru hurbilean benetako aukerarik ez dutelako ikasi nahi duten hizkuntza ikasi ahal izateko, dela ez dutelako ikusten egoera horiek ikaskuntza potentzialik dutenik. Kasu batzuetan, «hizkuntzak ikastearen» gainean duten ikusmoldea azterketa formalera muga daiteke, hizkuntza unitateak memorizatzerara edo ariketak ebazterara. Horrela, atal-zati honetan irudikapen horiek aberastu nahi dira, erakutsiz hizkuntzaren erabilerak inguru ez-formaletan ikasteko ere balio duela eta irakaskuntza formalenarekin bat egiten duela.

#### Nola?

Aurreko atal-zatietan bezala, ikasleak bere ikaskideekin irakurri eta iruzkindu ditzake taulako adibideak talde txikian, edo interesgarrienak iruditzen zaizkion proposamenak eztabaidatu, adibiderik pertsonalenak erantsi, taldearekin bateratu, eta azkenik, norbere Portfolioan dagokion taula bakarka bete. Adibidea, 33. orrialdean.

Adibideak bi zutabeak erabiltzen ditu egiten duenaren eta *egin nahiko nukeenaren* arteko banaketa egiteko. Gisa horretan, ikaslea bultzatzen du ikasi nahi duen hizkuntzarekin dituen kontaktuak areagotzera. Laburdurak ere erabiltzen ditu (*In* ingeleserako, *Fr* frantseserako, *Eusk* euskararako eta *Es* espainiararako) hizkuntzak markatzeko (ikus *nola erabiltzen dira taulak?*, koadroak idazteko aukeren gainean baitihardu). 10. jarduera osagarriak (*Jolas dezagun detektibetan*) ikasi nahi den hizkuntzaren herrialdera bidaiata batek sortzen dituen egoera komunikatiboak aztertzeko aukera ematen digu.







Jarduerak:	egiten dut		egin nahi nuke	
Beste hizkuntza batzuetako hiztunekin elkarri idazteko ohitura dut.			ln	
			F <sub>2</sub>	
Musika entzuten dut eta kantuen letrak irakurtzen ditut				
Eleberri egokituak irakurtzen ditut.	ln		ln	
			F <sub>2</sub>	
Filmak eta telebista programak ikusten ditut jatorrizko bertsoian.	ln		ln	
	F <sub>2</sub>		F <sub>2</sub>	
Hizkuntza irakasgaiko etxeko lanak egiten ditut.	ln			
	F <sub>2</sub>			
Hizkuntza hitz egiten den herrialdean eginiko ikasle trukeetan edo egonaldietan parte hartzen dut.			ln	
Udan hizkuntza kanpaldietara joaten naiz.				
Internet bidez (e-posta, webak, txatak) beste hizkuntzekin harremana izaten dut.				
...I speak with foreign people in the street. I can give directions. [DBHko 4.a, ingeles]	ln		F <sub>2</sub>	
...I read the newspaper. [2. BATX, ingeles]	Eusk	Es	ln	F <sub>2</sub>
...I write a personal diary. [2. BATX, ingeles]	Eusk	Es	ln	F <sub>2</sub>
...J'écris des articles pour le "Journal Français" de mon école, sur mes programmes favoris à la TV.	F <sub>2</sub>			


### Nire ikasketa planak

Atal-zati honetan Zer ikasi nahi dut egiten hizkuntza bakoitzean? koadroa dago, eta koadro honekin, ikaslearen prestakuntzan zentratutako atal hau ixten da. Helburu nagusia da ikaslea inplikaraztea ondoko curriculum erabaketan: zer ikasi nahi dut eta nola ikasi nahi dut. Modu horretan, pixkanaka bere ikasketaren gaineko erantzukizun handiagoa hartuko du eta. Kontuan hartu behar da Bigarren Hezkuntzako ikasleek, adinagatik edo eskola dinamikagatik, ez dutela kontu hauen ardura hartzeko ohiturarik eta erabakiak hartzeko lana irakaslearen esku uzten dutela.

#### Zertarako?

Koadro honen xedea da ikasleari laguntzea zehazten ikaskuntza helburuak (zer ikasi nahi dut egiten hizkuntza bakoitzean?), horretarako behar dituen





baliabideak (*nola ikas dezaket?*) eta horri eskain diezaiokeen ahalegina (*zenbat denbora eskainiko diot?*) zehazten. Beste era batera esanda, taula hau «ikaskuntza kontratuaren», bertsio sinplifikatua da, eta ikasleak bertan zehatz ditzake tarteka epe labur eta ertainean dituen ikasketa planak. Koadroa noizean behin gainbegira daiteke ikaslearen interesak aldatu ahala.

Atal-zati honek aukera ematen digu enfasia ikaslearen beharrezanetan eta benetako interesetan jartzeko, eskola curriculumeko edukietatik haratago, eta ikasteko norberak duen moduaren gainean hausnartzea ahalbidetzen digu. Ikasleak ikasteko erabili nahi dituen bitartekoak hautatu behar direnez, horretarako, ikasteko estiloen gainean eta hizkuntza eskola ingurutik haratago erabiltzearen gainean alde zuzenetik egindako hausnarketak baliatu daitezke.

### Nola?

Koadro hau ikasgelan lantzeko prozedurak baditu berezitasun garrantzitsuak, baina aurreko taulekin erkatuz, ez da aldatzen ikasgelan izango duen garapen orokorra: ahozko eztabaida eta negoziazioa talde txikian, ikasgelako taldearekin bateratu eta Portfolioan norberak bere erantzunak idatzi.

Edozein modutan, koadro arrunt hau aurreko atal-zatietan egindako hausnarketaren sintesia da. Horrela, *Zein hizkuntzatan?* eta *Zer helburu?* zutabeek, ikasleak *Zer dakit egiten nire hizkuntzetan?* koadroetan egindako autoebaluaiziora bideratzen gaituzte. Koadro hauetako adierazleekin, ikasleek zehatz dezakete zer egin dezaketenez hizkuntza bakoitzean eta zer egiten ikasteko asmoa duten. Beraz, *Zer helburu?* laukitxoan idatzitako datuak, zehaztutako (edo koadro horietan idatzitako) helburuen sintesia izan daitezke.

Gisa berean, *Nola ikas dezaket?* zutabearen *Nire ikasteko modua* atalean aztertutako datuen laburpena egiten da. Ikasleak hemen idatz ditzake hizkuntzak ikasteko orduan gustukoak dituen jarduerak, zein jarduera egiteko aukera duen, eta abar. Azkenik, *Zenbat denbora eskainiko diot?* zutabearen, dedikazioari dagokionez norbere konpromisoa zein den idatziko da. Taularen gainontzekoarekin bezala, konpromiso hau ere geroago berrazter daiteke.

Bestelako kontua da taula edo "ikaskuntza kontratu" hau norbanakoek edo ikasle taldeek erabiltzeari gagozkiolarik. Norbanakoek mailan erabiltzen bada, ikasle bakoitzak idatz ditzake bere helburuak, eta bitartekoak, eta bere kaxa gara ditzake. Baina taulako datuek ikasgelan ere egin nahi denari eragiten badiote eta taldeak batera antolatzen badu jarduera, eta modu horretan denek gauza bera egiten badute, nahitaezkoa da ikasleek beren artean -irakaslearekin- negoziatu behar izatea ikaskuntza plan bateratua.

Talde bateko kideen artean planak negoziatzeko hau koadro horretatik abiatuz ere egin daiteke, beste dinamika bat erabiliz. Lehenbizi, ikasle bakoitzak taula bere helburuekin eta bitarteko didaktiko pertsonalekin osa dezake, alde aurreko taulei eman dizkion erantzunetatik abiatuz. Ondoren, ikasleek bata besteari taula erka ditzakete, denak asetzeko moduko erantzun bateratua negoziatzeko. Erantzun hori poster batean idatzi eta ikasgelako horman zintzilika daiteke. Ikus adibidea 35. orrialdeko taulan.

11. jarduerak (*Ikasteko nire planak*) eta 17.ak (*Ikasketaren egunkaria*, jarduerako adibidearen modura erabilita) Biografiaren azken atal-zati hau zabaltzeko eta aberats ditzakete.

Zein hizkuntzatan?	Zer helburu?	Nola ikas dezaket?	Zenbat denbora eskainiko diot?
English [BATX 2.a, ingelesa]	I would like to learn english idioms.	I can achieve it sending and receiving letters to penpals, and from watching TV.	One or two hours a week...
English [BATX 2.a, ingelesa]	I would like to learn about English culture.	I can achieve it reading books and, of course, travelling to the UK.	I'm there all the time.
Français	Améliorer la compréhension orale.	Écouter la musique de Manu Chao en français.	Chez moi, lorsque je travaille.
Français	Lire.	Bandes dessinées d'Asterix et Titin.	Chaque semaine avant de me coucher.
...			
...			


### 2.3. Dosierra

Dosierren xede nagusia da *Hizkuntzen Pasaportean* eta *Hizkuntz Biografian*, hizkuntzen eta kulturaren ikaskuntzari dagokionez, aipatzen diren ikaslanak, ziurtagiriak eta bestelako dokumentuak dokumentatzea modu enpirikoan. Bestera esanda, Dosierrak lan munduko portfolioen, karpeten edo dossierren jatorrizko funtzioa du, profesionalen (arkitektoak, dekoratzaileak, eta abar) trebetasunak dokumentatzen baititu interesatuendako, egin izan dituzten lanik onenen argazki eta marrazkiekin.

Honakoak dira Dosierren helburu didaktikoak:

- Ikaslearen hizkuntza ekoizpenak eta ikaskuntza esperientziekin loturiko dokumentuak gordetzeko eta estimatzeko interesa sustatzea;
- Ekoizpen horiek gordetzeko espazio antolatu bat eskaintzea eta dokumentazio hori ordenatu ahal izateko aurkibideak eskaintzea;
- Lanak balioesteko eta aztertzeke jarraibideak ematea;
- Enfasi berezia jartzea alderdi soziokulturalen ikaskuntza esperientziekin loturiko dokumentazioan;

Itxurari dagokionez, Dosierrak plastikozko bi poltsa ditu, eta horietan, ikasleak bildu duen informazio guztia gorde dezake. Bi taula ere baditu, dokumentazioaren aurkibide moduan erabiltzekoak (*Lan eta dokumentuen aurkibidea*). Tauletako bakoitzean zehazten dira bildutako dokumentazioko funtsezko datuak: titulua, hizkuntza, data eta zergatik hautatu den dokumentu hori



Dosiererako. Bi gutunazal erabiltzeak arrazoi praktikoei erantzuten die (espazio aski izatea paperak, disketeak eta audio eta bideo zintak gordetzeko), baita hezkuntza arrazoei ere (ezaugarri desberdinak dituzten bi dokumentu multzo bereiztea): ikaslearen ekoizpenak eta esperientzien egiaztagiriak.

### Zertarako?

Atal-zati honen lehenbiziko xedea da ikasleak interesaraztea bere hizkuntza ekoizpenak eta ikaskuntza esperientzien gaineko dokumentazioa kontserbatzen, ordenatzen, eta balioesten. Idazlanak, ahozko grabazioak edo irakurketak gordetzen baditugu, hizkuntza bakoitza erabiltzeko norbere gaitasunez kontzientzia areagotu ahal izango dugu.

Bigarren helburu bat da Pasaporteko eta Biografiako taula eta galdetegiei errazago eta ezagutza handiagoz erantzun ahal izateko materiala eskaintzea. Dosierrean artxibatutako materialak, ugaria eta ikaslearen hizkuntza jardueraren adierazgarria den heinean, hizkuntza bakoitzean eta bere ikaskuntzan ikasleak dituen trebetasunak eta erabilera estiloak erakuts ditzake.

Kasu, ikasgelako ahozko elkarrizketa baten grabazioa aztertuta, ikus dezakegu ikaslea gai den ala ez bat-bateko elkarrizketa batean galderak erraztasunez egiteko; egunkari bateko iritzi zutabeak irakurri eta ulertzeko ariketa bati emandako erantzunak, datuak emango dizkigu ikusteko ikaslea gai den ala ez, idazki bateko inplizituak ulertzeko. Eta idazmena lantzeko ariketak behatzeak esango digu, ikasleak idazlanaren azken bertsioa egin aurretik eskemak eta zirriborroak egin dituen, edo testuak xehetasunez zuzentzen dituen.

### Nola?

Lehenbiziko lana da Dosiererako interesgarriak eta erabilgarriak izan daitezkeen dokumentuak bilatu eta biltzea. Mota askotako dokumentuak izan daitezke. Hauxe gutxi gorabeherako zerrenda bat:

**Lehen gutunazala** ikaslearen hizkuntza ekoizpenerako da:

- *Idazkiak*: idazlan, saiakera, poema, ipuin, iruzkin, egunkari eta abarren azken bertsioak eta tarteko ekoizpen guztiak (eskemak, zirriborroak, zuzenketak, eta abar), paperean edo formatu elektronikoan (disketea, CDa).
- *Audio eta bideo grabazioak*: ikasgelan eta ikasgelatik kanpo izandako ahozko elkarrizketak, ekitaldi publikoetan (festak, ospakizunak, sari banaketak, eta abar) edo toki-komunikabideetan (ikastetxeko irratia, tokiko telebista, eta abar) izandako hizketaldiak, hainbat formatutan.
- *Fotokopiak eta grabazioak*, ikasleak irakurri edo entzun dituen idatzizko eta ahozko diskurtsoekin, diskurtso hauek trebetasun hartzaileetako ulermen gaitasunen adierazgarri izanik.
- *Hainbat motatako ariketak*, ikasgelan edo ikasgelatik kanpo eginak, ikaslearen ahalmenen adierazgarri direnak hizkuntza gaitasunetako alderdi zehatzetan: irakurriaren ulermena, hizkuntzaren gaineko azterketa eta hausnarketa egiteko ahalmena, eta abar.

**Bigarren gutunazala**, ikas esperientziak, edo hizkuntzak eta kulturak ikasteko balio izan duten bidaia, bisita eta jarduerak egiazta ditzaketen dokumentu eta oroigarriak gordetzeko baliatuko dugu.

Dokumentu hauek lortu diren ikasketen adierazle modura baino, balio handiagoa izan lezakete maila pertsonalean, emozioen mailan. Besteren artean, bertan sar daitezke:



- *Egiaztagiriak, diplomak eta ziurtagiriak*, erakusten dutenak hizkuntza ikastaro edo ikas jarduera, azterketa, ekitaldi eta abarretan parte hartu izana. (Hizkuntza gaitasunak egiaztatzeko balioa duten dokumentuak hizkuntzen pasaportearen ere aipatzen eta deskribatzen dira.)
- *Agenda pertsonala*, hizkuntza bakoitzean mintzakide izan ditzakegun lagunen oinarrizko datuak (izena, helbidea, e-posta, telefonoa, eta abar), bisitatu ditugun lekuetakoak (beste hizkuntza batzuk hitz egiten direnekoak) beste herrialdeetan hizkuntzak eta kulturak ikasteko esperientziak zein erakundetan izan ditugun, eta abar.
- *Oroigarriak*, hizkuntzak eta kulturak ikasteko esperientzietakoak: bidaiak (bidaia txartelak, museoetako sarrerak, bidaia egunkariak, eta abar), ikasurteak eta ikasle trukeak atzerrian (programak, matrikula agiriak), eta abar.

Jakina, ez da nahitaezkoa Dosierrean dokumentu hauek guztiak gordetzea, ezta aipatu ditugun mota guztietako adibideak edo laginak ere. Ikasleari dagokio erabakitzea zein dokumentu gorde nahi dituen, eta irakasleari dagokio orientatzea eta hautaketa hori egiten laguntzea. Dena dela, komeni da aldez aurreko jardueraren bat egitea ikaslearen lanak bilatzeko, antolatzeko eta balioesteko, kasu, *Material osagarrietako* 12. jarduera (*Nire lanik onenak*) eta 13.a (*Ziurtagiria lortu aurretik eta ondotik*).

Dosierrerako materiala hautatzea urtean zehar hainbat unetan egin daiteke. *Dokumentu eta oroigarriak* ikasurte hasieran edo oporren ondotik bil daitezke, eta lanak eta grabazioak ikasurtean zehar. Interesgarria da Dosierra pixkanaka osatzea, ikasleak gordetako materiala berrikusteko, dokumentu berriak eransteko eta aurrera zenbat egin duen ikusteko aukera izan dezan. Dosierrerako materialak hautatu ahala, ikasleak Dosierreko aurkibideak osa ditzake (*Lan eta dokumentuen aurkibidea*).

Azkenik, atal-zati bakoitzean azaldu dugun modura, Pasaportearen eta Biografian idatzitako datuak fidagarritasun handiagoz dokumentatzeko edo idazteko, Dosierreko materiala aztertzeo fasea gara dezakegu Portfolioko bi atal horietako koadroak eta taulak bete ahala.





# Nola

# erabili?

# 3

Kapitulu honetan HPE ikasgelan erabiltzearen gaineko kontuak aipatuko ditugu. Lehenbizi izaeraren (nahitaezkoa edo hautazkoa, landutako hizkuntzak, terminologia), antolamenduaren (hizkuntza irakasle eta tutoreen eta HPEko hizkuntzen arteko koordinazioa) eta metodologiaren (programazioa, erabilera maiztasuna, banakako lana edo talde lana) gaineko aipamen orokorra egiten da. Ondoren, *Xedeak eta ikuspegiak* atal-zatian, HPEk dakarren lana antolatzeko hainbat eskema azaltzen dira, enfasia helburu didaktiko batzuetan edo besteetan jartzen den. Azkenik, *Nola erabil daitezke taulak?* atal-zatian HPEko koadroei etekin handiena ateratzeko eta koadro horiek erabiltzeko moduaren gaineko xehetasunak zehazten dira.

## 3.1. Ohar orokorrak

---

Ondoko oharrak, galde-erantzun modura formulatuak, HPEk ikasgelan duen ikuspegi pedagogikoaren eta ematen dituen aukeren gainekoak dira.

### 3.1.1. HPEren izaeraren gainean:


- **Nahitaezkoa da?**

Europar Kontseiluko proposamen eta xedapen guztiek, estatu kideendako izaera gomendioa dute. Modu horretan, *Hizkuntzen Portfolio Europarra* hizkuntzak ikasten dituzten europarrei, irakasten dituztenei edo programa eta material didaktikoak egiten dituztenei egindako proposamena da: ez du nahitaezotasunik edo izaera arau-emailerik. Proiektu honen interesa eta indarra daude proiektuaren nazioarteko izaeran eta europar estatuei eta estatu horietako herritarrei eman diezazkien onura nabarmenenetan.

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak proposamen honen izaera hautazkoa ontzat hartu eta ulertu du, sarreran esaten den moduan, Espainian egiten den hizkuntzen irakaskuntzaren hobekuntzan aurrera egiteko aukera bezala. Aurrerakuntza izan daiteke, irakasleen eta ikasleen prestakuntzarako, eta baita ikerkuntza zientifikoarekin loturiko material eta proposamen didaktiko modernoagoak garatzeko ere.

- **Zein hizkuntza hartzen ditu barne?**

Lehenbiziko kapituluan esaten den bezala, HPEren izaera eleanitza eta kulturانيتza denez, ikaslearen hizkuntza guztiak hartzen dira aintzat. Hau horrela izateko hainbat argumentu mota daude. Ikuspegi psikolinguistikotik, norbanako bakoitzak bere hizkuntza gaitasunen erreperitorioa modu osoan garatzen du, bere bizitzan zehar esperimintatzen dituen komunikazio eta ikaskuntza esperientzia guztiak barne hartuz, hizkuntza edo inguru bereizketarik egin gabe:



«[...] Gizabanakoak hizkuntza baten kultur ingurunean duen hizkuntz esperientzia zabaldu ahala, hasi familia-hizkuntzatik eta gizarte-hizkuntzaraino, oro har, eta beste herri batzuetako hizkuntzetaraino gero (izan eskolan edo unibertsitatean ikasiak, edo zuzeneko esperientziaren bidez ikasiak), hizkuntza horiek eta kultura horiek ez ditu adimeneko gune berezietan gordetzen; aldiz, komunikazio-gaitasun bat garatzen du, hizkuntz arloko ezagutza eta esperientzia guztien bidez eta hizkuntzen arteko harremanaren eta elkarreraginaren bidez. » EMEB (euskarazko bertsoaren 15. or.)

Schneider eta Lenz-ek (2002) esaten dute HPE garatu dela, besteren artean, bigarren hizkuntzen ikaskuntza sustatzeko. Autore hauen arabera, gaitasunen adierazleak inguru honetan baliotu dira. Hori horrela bada ere, kontuan hizkuntza hauek baino hartuko ez lituzkeen HPE batek Bigarren Hezkuntzako ikasle askoren hizkuntza esperientzia nabarmen murriztea ekarriko luke. Aipatu beharra dago espainiarren % 35ak ez duela espainiera ama hizkuntza edo espainieraz gain beste hizkuntza ofizial bat duela; erkidego elebidun horietako ikasleek eskolak bi hizkuntza horietan jasotzen dituzte (erkidegoko hizkuntza eta gaztelania), dagokion atzerriko hizkuntzaz gain. Ez dugu ahaztu behar etorkin askok beren etxeetan orain arte aipatu ez ditugun hizkuntza ez-europarrak erabiltzen dituztela. Inguru honetan, kontuan atzerriko hizkuntza europarrak baino hartuko ez dituen HPE bat modu nabarmenean izango litzateke partziala.

Ikuspegi soziolinguistikotik, Espainiako estatuko erkidego historikoak, Gaztelakoaz bestelako hizkuntzak eta kulturak dituztenak, berezkoak dituzten hizkuntzak normalizatzeko prozesuan murgilduak daude. Inguru honetan, kontuan hizkuntza jakin batzuk (atzerrikoak edo ikaslearen inguruan erabiltzen ez direnak) baino hartuko ez lituzkeen HPE batek –horien ikaskuntza sustatzeko borondate handienarekin bada ere- inguruko hizkuntzen balioespen sozialerako zehar-eragina izanen luke: ikasleak eta erkidegoak oro har ulertuko lukete HPEn ez dauden hizkuntzek «garrantzia txikiagoa dutela».

Honegatik guztiagatik, Bigarren Hezkuntzako HPEren diseinuak ikaslearen hizkuntza guztiak hartzen ditu aintzat: adierazleak ematen dira atzerriko hizkuntzarako eta ingurukoendako, adibideak Espainiako estatuan hitz egiten diren hizkuntzen gainekoak ere bada, eta abar. Hizkuntza aniztasun handi hau helburu pedagogikoekin antolatzeke, ikaslearen inguruan ohikoak diren hizkuntzei *ingurukoak* deitu diegu, dela erkidego horretan ofizialak direlako eta curriculumean irakasten direlako, dela etxean hitz egiten direlako; hizkuntza horietako bat ikaslearen ama hizkuntza, lehenbizikoa, izan daiteke eta gainontzekoak, txikitatik ikasi dituen hizkuntzak edo ikastetxetik kanpo ikasten dituenak. Eta atzerrikoak esaten diegu, ikaslearen inguruan erabili ohi ez direnei. Hauek Bigarren Hezkuntzako espainiar curriculumekoak izan ohi dira.

Behin puntu hau argitu dugula, irakasleari planteatzen zaion galdera da nola hartu kontuan ikaslearen hizkuntza guztiak, irakaskuntzan, hizkuntzak irakasgaika banatu dituenean hezkuntza sistemak, gaztelania, ingeleza edo latina ematen duten irakasleak bereiztuz: nola lan daitezke HPE eleanitza eta ikaslearen hizkuntzak, irakasgaiak eta klaseak hizkuntza bakarrean zentratzen badira? Kontu honi buruz ari gara 3.1.2. *Antolamenduaren gainean* puntuan.



- **Zergatik erabiltzen ditugu Portfolioa eta horrelako terminoak?**

HPEn egin diren aukeratze terminologikoetako batzuek azalpen bat eskatzen dute. *Portfolio* hautatu da gaztelaniaz jatorragoa den *portafolio* edo ohikoagoa den *carpeta* baino, lehenbiziko hura delako Europar Kontseiluak proposaturiko izendapena. Hizkuntza trebetasunak izendatzeko esamolde errazak eta ohikoak erabili ditugu (*entzumena, irakurmena, ahozko adierazpena* eta *idazmena*) zehatzagoen ordez (*entzunaren ulermena, irakurriaren ulermena, ahozko adierazpen monologatua, kudeaketa anitzeko elkarreagin ahozkoa* eta *idazmena edo idatzizko konposizioa*), horrela, HPE errazago uler dadin. Hala ere, hautaketa honek ez digu ahantzarazi behar trebetasunaren funts komunikatiboa: adibidez, irakurmena, funtsean, irakurria ulertzea da, eta ez testu batek dioena ahoskatzea edo idatziz errepikatzea; ahozko adierazpena, batez ere, mintzakideekin naturaltasunez elkar eragitea da, eta ez elkarrizketak idaztea.

- **Norena da HPE?**

Proiektuaren muinean, HPE ikasleari dagokio: ikasleak eskuratzen du, pertsonalki betetzen du, gorde egiten du eta erabilgarria zaion inguruetan erabiltzen du: hizkuntzak ikasteko zuzeneko klaseetan, autoikaskuntza egoeretan, ikasle truke eta bidaietan, eta abarretan. Modu berean, berarekin darama ikastetxe aldaketak egiten direnean, atzerrian egonaldiak egiten dituenen, eta abarretan. Horregatik, HPEko titulu asko «*Nire...*» esamoldearekin hasten dira, eta taula askotako galderak 1. pertsonan egiten dira.

Azken xedea da ikasleak HPE modu zeharo autonomoan erabili eta bete ahal izatea, dituen ikaskuntza esperientzia zehatzetatik eta ikastetxeetatik haratago. Baina Bigarren Hezkuntzako ikasleak, 12 eta 18 urte bitartekoak, oraindik ez dira helduarora iritsi eta HPE erabiltzen ikasteko prozesuan komenigarria da beste norbaitek gidari lanak egitea. Ikuspegi horretatik, hizkuntza irakasleek HPEren dinamizatzaile lana egiten dute ikasgelan, eta ikasleak trebatzen dituzte HPEren erabilieran.

Ikasleekin esperimintatzeak erakusten du ikasle gazteenek ez dutela beti HPE behar den bezala zaintzen edo ez dutela ikastetxera eramaten hala eskatzen zaienean. Horregatik, ikasleen HPEi «lagapen» edo «gordailu»aldiak ezar dakizkieke, ikasgelan eraginkortasun handiagoz landu ahal izateko.

### **3.1.2. Antolamenduaren gainean:**

*Zein hizkuntza hartzen ditu barne?* 3.1.1. atal-zatian aipatu den moduan, HPEk ikaslearen hizkuntza guztiak hartzen ditu, baita hainbat hizkuntzatako irakasgai bereiztuetan (eta hainbat irakaslerekin) ikasleak izandako ikaskuntza esperientziak ere. Horrek galdera garrantzitsuak eragiten ditu:

- **Bakarrik lan egin edo beste hizkuntzetako irakasleekin?**

Egin dugun esperimintazioaren arabera, HPE ikasgelan modu eleanitzean inplementatzeko aukerarik onena hainbat hizkuntzatako irakasleak beren artean elkarlanean aritzea da. Horren adibiderik arruntena litzateke ikastetxe berean atzerriko eta inguruko hizkuntza ematen duten irakasleek HPE elkarrekin lantzea, dagozkien irakasgaietan eta ahalik eta tarte bateraturik (tutoretzak, ikasketa saioak, eta abar) gehienetan. Aukera honek HPEren izaera eleanitza eta zeharkakoa azpimarratzen du eta Bigarren Hezkuntzako irakasgai askok bizi dituzten mugak gainditzen ditu. Izan ere, irakasgai horietako asko estu hartuak baitituzte ordutegiak eta alde zurretik ezarritako curriculumeko programak.

Horrela, ikasleek ezagutuko dituzte HPEren zeharkakotasuna, hainbat irakasgaitan egindako hizkuntza ikaskuntzak, hizkuntzen ikaskuntza egoeren





arteko korrelazioa, eta abar. Ikuspegi praktikotik, horrek irakasleen arteko koordinazio handia eskatzen du, baina irakasle bakoitzari ahalbidetzen dio kontzentratu ahal izatea HPE erabiltzen soilik irakasten duen hizkuntzan. Bidenabar, HPE beste irakasgaietan ere erabili izanak ikasleei eman dien esperientzia baliatzeko aukera ematen dio.

Aukera hau irekia dago hizkuntza irakasleen eta hizkuntzarekin harremanik ez duten irakasgaietako (matematika, biologia, filosofia, eta abar) irakasleen arteko elkarlanerako, ikasketa tresna gisa erabiltzen dutelako hizkuntza. Ildo berean ulertu behar da ikastetxeko *hizkuntza tutoretza* sortzeko proposamena, HPErekin lan egin nahi duten irakasleen ahalegina koordinatzeko (ikus hurrengo galdera).

Zalantzarik gabe, ikastetxeko lankideekin elkarlanik egin ezin badaiteke, irakasleak beti aplikatu ahal izango du HPE irakasgai bakarrean, atzerriko hizkuntza irakatsi zein ingurukoa irakatsi. Kasu honetan, erraza eta probetxugarria gertatzen da HPE ikasgelan helburu den hizkuntzaren ikaskuntzarekin lotzea (kasu, *Zer dakit egiten nire hizkuntzetan?, Nire ikasketa planak*), baina zailagoa da HPEren perspektiba eleanitza sustatzea: ikaslearen gainontzeko hizkuntzak sartzea hausnarketetan, pasaporteak hizkuntza guztietako datuekin betetzea eta ez soilik irakasgaikoekin, eta abar. Esperimentazioak erakutsi zuen, halako egoeretan, ikasle batzuk harritu egiten direla beren hizkuntzen gainean hausnartu behar izateagatik hizkuntza klasean: esperimentazioak erakutsi zuen irakasgai horri "ez dagokion" zerbaitetan denbora ematen ari zirela uste zutela.

Galdera honi bukaera emateko, kontuan hartzekoa da HPEren hiru atalek ez dituztela eskakizun berak eleaniztasunari eta kulturaztasunari dagokionean. Hizkuntzen pasaporteak eta Biografiako atal-zatietako batzuk (kasu, *Nire hizkuntzak*) zentzua perspektiba eleanitz eta kulturaztasunetik baino ez dute: ikasleak horietan komunikatzeko baliatzen dituen hizkuntzekin loturiko datuak idatzi behar ditu. Ordea, Biografiaren beste atal-zati batzuk (kasu, *Zer dakit egiten nire hizkuntzetan?* edo *Nire ikasteko modua*) hizkuntza bakarrarekin erantzun eta balia daitezke ikasgelan.

#### • Zer da Hizkuntza tutoretza?

*Hizkuntza tutoretza* ekimen bat da, eta bere helburua da gainditu ahal izatea HPE eleanitz eta zeharkako bat irakasgaitan banatutako hezkuntza inguru batean aplikatzeak dituen mugak. Proposamena honetan datza: Bigarren Hezkuntzako ikastetxe bakoitzak irakasle bati edo irakasle talde bati emango dio HPE ikastetxean modu zeharkakoan koordinatzearen ardura. Horri *Hizkuntza tutoretza* deituko diogu. Izan ditzakeen funtzio eta jarduerak askotarikoak dira: HPE esplizituki txertatzea irakasle klastroak egindako ikastetxeko Hezkuntza Proiektuko helburuetan; Hezkuntza maila bakoitzean HPE nola txertatu antolatzea, modu koordinatuan, hizkuntza irakasleen artean eta hainbat hezkuntza eremutan (hizkuntza irakasgaia, tutoretzak, ikasketak, sintesi kredituak, eta abar); Irakasleak HPEren erabileran trebatzea; Material berariazkoa sortzea HPE ikasleen ezaugarrietara egokitzeko; Zuzenean aholku ematea bere kaxa HPE erabili nahi duten ikasleei, eta abar.

#### • HPEren zein bertsioekin egin behar dut lan?

Bigarren Hezkuntzako espainiar HPE Estatuan diren autonomia estatutuek ofizial izendaturiko hizkuntza nagusienetan argitaratu da, baita ingelesez eta frantsesez ere, horiek baitira Europar Kontseiluko hizkuntza ofizialak eta Espainiako hezkuntza sisteman tradizioz gehien irakatsi direnak. Aurrerago HPEren itzulpen eta bertsioak egin daitezke beste hizkuntza batzuetan, kasu, inguru jakinetan ikas daitezkeenetan, modu horretan, inongo ikasle edo inguru ez dadin baztertuta gelditu. Marko honetan geure buruari nahitaez



egiten diogun galdera da gomendagarriagoa ote den ikaskuntzarako HPE hizkuntza batean edo bestean erabiltzea.

Lehenbiziko erantzuna izan daiteke ez dagoela erantzun bakar edo sistematikorik. HPErekin lan egiteko hizkuntza (ahozkoa eta idatzizkoa), inguruaren arabera (hizkuntzaren edo irakasgaiaren arabera) alda daiteke, HPEtik lantzen ari garen atalaren arabera eta ikasleek hizkuntza bakoitzean duten ezagutza mailaren arabera. Oro har, gomendagarria da ikasleak HPErekin lan egiteko hizkuntza gisa inguru bakoitzean ikaskuntzaren helburu dena hartzea, beti ere hizkuntza hori erabiltzeko maila nahikoa eskuratu bada. Hala ez bada, ama hizkuntzako edo inguruko hizkuntzako bertsioa erabil dezake, zalantzak argitzeko.

Horrela, ikasleek HPEko koadroak irakur ditzakete ikaskuntzaren helburu den hizkuntzan eta zalantzak edo esamolde ezezagunak azalduz gero, ama hizkuntzako bertsiora jo dezakete. Modu berean, ikaskuntza ereduaren gaineko hausnarketa bateratua egiten den jarduera batean, ikasleak ikaskuntzaren helburu den hizkuntzan hitz egiten saia daitezke. Zaila suertatzen bada ideia edo sentsazioak hizkuntza horretan dituzten hizkuntza baliabideekin adieraztea, zilegi da inguru horretan ama hizkuntzan egin ahal izatea (helburu didaktikoa ikaskuntza prozesuak baitira, eta ez hizkuntza bera). Kasu honetan, ongi dago ikasleak bere ideiak eman ditzakeen hizkuntza horretan adieraztea lehenbizi, eta ondotik, ikaskideen eta irakaslearen laguntzarekin, ikaskuntzaren helburu den hizkuntzan adierazten ikasi ahal izatea.


Irizpide hauek berak aplikatu daitezke HPE ikasgelan lantzen duenean irakasleak erabil dezakeen hizkuntzarekin.

### 3.1.3. Metodologiaren gainean:

#### • Nondik hasi?, nola segitu?

Ez dago HPErekin garatzeko programazio bakarra, aitzitik, aukera bat baino gehiago dago, eta enfasia helburu eta osagai desberdinetan jartzen dute. Esperimentazioak erakutsi zuen irakasle bakoitzak bide jakinak segi ditzakeela HPE talde jakinetan garatzeko, HPEren ataletako bakoitza modu desberdinean erabiliz.

HPEren hiru atalen sekuentziarioari dagokionez, Little eta Perclová-k (2002), irakasleendako duten gidan, oinarritzko bi ikuspegi bereizten dituzte, marrazkian erakusten dugun moduan:





Lehenbiziko proposamenean, HPEren lana Dosierreko informazioa bilduz has daiteke. Jasotako dokumentuen azterketak Biografian dauden gaien gaineko hizkuntza hausnarketari hasiera eman diezaioke. Azkenik, hausnarketa biografiko hau osatu ondotik, Pasaportearen betetzera jo dezakegu.

Bigarren proposamenean, lanaren oinarria da ikaslearen gaitasunen eta hizkuntza beharrezkoen identifikazioa pasaportearekin, ondotik, Biografiako koadroak garatzera jotzeko, Dosierrearen azterketarekin bat. Azkenik, Biografiarekin eta Dosierrearekin eskuratutako informazioa berriz ere igor daiteke Pasaportera, hasierako datuak zuzenduta.

Bigarren Hezkuntzako espainiar HPEren atal-zatietako programazioari eta sekuentziazioari dagokionez, ikus 3.2 (*Xedeak eta ikuspegiak*) atal-zatia.

#### • Zenbat denbora?, zein maiztasunez?, dena bete behar dut?

Esperimentazioak erakutsi zuen atal bakoitzak, atal-zati bakoitzak eta HPE osoak eskatzen duen denbora tartea desberdina dela norbanakoen, klaseen eta irakaslearen helburuen arabera. Biografiako koadroetako bat osatzeko lana, kasu, minutu gutxikoa izan daiteke, ezagunak diren datuak idaztea baldin bada kontua, baina ordu betetik gora eman dezakegu horretan baldin eta ikasleek lehenbizi jarraibidea ulertu behar badute, gero eskatzen den informazioa bildu behar badute, ikaskideekin jardun behar badute horretaz eta modu hausnartuan garatu behar badute koadroan idatzi baino lehenago.

Hainbat irakasleren artean bateratutako planteamendu errealista batek zehazten du, 25 eta 35 ordu artean behar direla, 20ren bat ikasleko talde batekin Bigarren Hezkuntzako HPE garatzeko, jarduera osagarriren bat ere eginez. Kopuru honek gora egin dezake esperientzia gutxiko ikasleekin egiten bada lan edo HPEko atal-zatietako bakoitza hizkuntza lanketekin lotu nahi bada (*kasurako, zer dakit egiten nire hizkuntzetan?*). Baina ikastaldeak esperientziaren bat badu edo beste irakasleekin elkarlanean egiten bada lan, ordu kopuruak behera egin dezake.

Gogoan izan behar dugu Bigarren Hezkuntzako HPEk denboraldi luzea hartzen duela, 12 urtetik 18ra, DBHko 1. mailatik Batxilergoko 2.era, eta modu horretan, ez dela beharrezkoa ordu kopuru hori kontzentratzea ikasturte bakar batean, are gutxiago hiruhilabete bakar batean. 25-35 ordu horiek ikasturte horietan guztietan zehar gara daitezke.

Ildorik ere ez dago esaten duenik zein maiztasunez landu behar den HPE. Esperimentazioak erakutsi zuen talde bakoitzak bere erritmo eta maiztasunak izan zituela, maiz hezkuntzakoak ez diren baldintzengatik, edo HPE irakasgai bakoitzeko edukiaren programazioarekin lotu nahi izan ez zelako. Irakasle zenbaitek 15ean behin egin ohi zuen HPEren jardueraren bat, oreka bilatu nahian ikasleek HPE ez ahazteko moduko dedikazio jarraituaren eta irakasgaiko denbora gehiegi hartuko ez duen dedikazio zabalaren artean (zentzu honetan, HPEren dedikazioa areagotzeko, aukera ona izan daiteke tutoretza orduak erabiltzea, hizkuntza irakasgaiaren "edukia" murriztu gabe).

Orain arte esan dugun guztiagatik, ez da beharrezkoa HPEren atal-zati guztiak denbora tarte jakin batean osatzea. Ikasturte batean enfasia alderdi batzuetan jar daiteke, eta hurrengoan, gainontzekoetan.

#### • Bakarka egiteko lana da?

Inola ere ez. Portfolioa norbanakoen jabetza eta erabilerakoa den dokumentua bada ere –ikasle bakoitzak bakarka idazten ditu datuak bere portfolioan–, ikasgelan elkarlanean landu behar da, zalantzarik gabe. Ikasle batek bere datuak HPEn idatzi baino lehenago edo geroago, garrantzitsua da



bere ikaskideekin aritu (erkatu, alderatu, egiaztatu) ahal izatea galdera bakoitzari dagozkion erantzunen gainean. Xede horrekin, Biografiako orri guztiek dute goiburuan tokia ikasleak bere izena idatz dezan, badaezpada bere orria gainontzeko ikaskideekin trukatzan badu ere.

### 3.2. Xedeak eta ikuspegiak

Azpisail honekin HPEren atal eta atal-zatietan egin daitezkeen programazioak aurkezten dira, irakasleak materialen lan ordena eta sekuentzia ezarri ahal izan ditzan. Ondoko eskemek HPEren koadroak eta galdetegiak biltzen dituzte gaika eta hainbat "ibilbide" uzten dituzte aukeran, HPE programazioaren ardatz gisa erabiltzeko (3.2.1.), ikaslearen hizkuntza profila egiteko (3.2.2.), ikaslea trebatzeko (3.2.3.) edo eleaniztasunaren gaineko sentsibilizazio lana egiteko (3.2.4.).

#### 3.2.1. Programazioa antolatzea:

HPE kurtsoa eta ikasgelako noizbehinkako lanean eta kurtsoa programazioko ardatzean koka dezakegu, tresna gisa, beharrianak detektatzeko, helburuak zehazteko, planak ezartzeko eta horien betetze maila ebaluatzeko:

	HPEren atal-zatia	Helburua	Jarduerak eta iruzkinak
1	<b>Dosierra.</b> Nire idatzizko lanak eta audio eta bideo grabazioak.	Ikaslea kontzientzia-tzea hizkuntza horretan egiteko gai denaren gainean.	Ikasleak hautatuko ditu idatzi duen lanik konplexuena, irakurri duen lanik konplexuena, ahoz izandako parte-hartzerik garrantzitsuena, etab. <b>12. jarduera.</b>
2	<b>Biografia.</b> Zer dakit egiten nire hizkuntzetan?	Ikasleari ikusaraztea zein maila duen hizkuntzarekin, trebetasunez trebetasun eta estandarren arabera.	Ikasleak atzerriko hizkuntzendako edo ingurukoendako adierazle koadroak beteko ditu, bere iritziak irakaslearenekin eta ikaskideenekin alderatuz.
3	<b>Biografia.</b> Zer dakit egiten nire hizkuntzetan?	Ikasgelako ikaskuntza helburuak irakaslearekin negoziatzea eta zehaztea.	Ikasleak tauletako zutabeetako bat erabiliko du bere ikaskuntza <i>Helburuak</i> idazteko. Adierazleak oso orokorrak diren kasuetan, ikaskideekin bat, berridatzi egingo ditu, zehaztasun handiagoa emateko, eta orri hori portfolioan gordeko du ikasleak, atal-zati berean.
4	<b>Biografia.</b> Nire ikasketak planak.	Ikaslearen, ikastaldeen eta irakaslearen artean «ikaskuntza kontratua» sinatzea.	Ikasleak «zer ikasi nahi dut egiten hizkuntza bakoitzean?» taula beteko du eta lan batzuk (irakurgaiak, ikasketak, etab.) denbora jakin batean egiteko konpromisoa hartuko du.
5	<b>Biografia.</b> Zer dakit egiten nire hizkuntzetan?	Ikaskuntza helburuak lortu diren edo ez ebaluatzea.	«Kontratututako» aldia bukatzean, taldeak berriz ebaluatuko du <i>Helburuen</i> zerrenda, ikusi ahal izateko helburu horiek sar ditzakeen «zer egin dezaket?» jardueran. Dosierrako lanak berrikusiko dira.
5	<b>Biografia.</b>	Prozesua berriz hastea.	

Proposamen honetan HPE erabiltzen da irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren motor gisa. Atzerriko eta inguruko hizkuntzetarako adierazleak balio dute ikasleen beharrian komunikatiboak detektatzeko, ikaskuntza helburuak

zehazteko edo ikastaldearekin irakaskuntza kontratuak negoziatzeko, eta azkenik, baita esperientziaren arrakasta orokorra ebaluatzeko ere. Lehenbiziko bi urratsen (1-2 sekuentzia) helburua da *Dosierra eta Hizkuntz Biografia* erabiltzea ikasle bakoitzaren eta ikastaldearen trebetasunen eta ezagutzen hasierako diagnostikoa egiteko; ikasturte hasieran erabil daitezke. Ondorengo urratsek (3-5) sekuentzia bat osatzen dute, ikasturteak dituen bezainbat unitate didaktiko, ikaskuntza ziklo edo alditan ziklikoki garatzekoak.

### 3.2.2. Ikaslearen hizkuntza profila egitea:

HPEk gara dezakeen beste funtzio bat da ikaslearen hizkuntza erreperitorioa deskribatzea, EMEBek ezarritako maila eta eskalen arabera:

	HPEren atal-zatia	Helburua	Jarduerak eta iruzkinak
1	<b>Biografia.</b> Nire hizkuntzak	Norbere hizkuntzak, inguruko pertsonekin komunikatzeko erabiltzen direnak, identifikatzea.	Ikasleak bere hizkuntzak, non erabiltzen dituen, zer egiten duen hizkuntza horiekin eta non eta nola ikasi zituen berehala identifikatzea ahalbidetzen duen taula beteko du. Baita ere: <b>1 eta 14 jarduerak.</b>
2	<b>Dosierra.</b> Nire idatzizko lanak eta bideo eta audio grabazioak.	Ikaslea kontzientzia-tzea bere hizkuntze-kin egin dezakeena-ren gainean.	Ikasleak hautatuko ditu idatzi duen lanik konplexuena, irakurri duen lanik konplexuena, ahoz izandako parte-hartzerik garrantzitsuena, etab. <b>12. jarduera.</b>
3	<b>Biografia.</b> Zer dakit egiten nire hizkuntzetan?	Trebetasun bakoitzera-ko hizkuntza bakoitzean diren gaitasunak identifikatzea.	Ikasleak trebetasun bakoitzerako zutabeak beteko ditu, hizkuntza guztietan. <b>3. jarduera.</b>
4	<b>Pasaporte.</b> Hizkuntz gaitasunen profila.	Hizkuntza guztietan duen menderatze maila zehaztea, EMEBen mailen arabera.	Ikasleak <i>Hizkuntz biografiako</i> tauletako informazioa pasatuko du <i>Hizkuntzen pasaporte</i> ko taula orokorretara.
5	<b>Dosierra.</b>	Ikaslea kontzientzia-tzea jaso dituen ziurtagiriek eta egiaztagiriek duten garrantziaz.	Ikasleak hizkuntza bakoitzean dituen ziurtagiri eta diplomak bilatuko ditu gero klasean balioesteko. <b>13. jarduera.</b>
6	<b>Pasaporte.</b> Hizkuntza eta kulturekin izandako esperientziak. Ziurtagiri eta diplomak.	Esperientzia eta ziurtagiririk garrantzitsuenak zehaztea, hizkuntza guztietarako. <i>Hizkuntzen pasaporte</i> osatzea	Ikasleak esperientzia kultural, ziurtagiri eta azterketarik onenak hautatuko ditu. Dosierrean sartuko ditu eta Pasaportean deskribatuko ditu, dagokion taula betez.

Sekuentzia honek enfasia HPEren funtzio sumatibo edo egiaztatzaileetan jartzen du. Horrek ahalbidetzen du ikaslearen hizkuntza erreperitorioa modu estandarizatu edo homologatuan ematea. Ikasturtean zehar behin baino ez da garatzen, zaila baita *Pasaportean* idazteko beste aurrerapen esanguratsu egitea horren ikaskuntza aldi laburrean.

### 3.2.3. Ikaslea trebatzea

HPEk garatzen duen beste funtzio bat da ikaslea trebatzea hizkuntzen ikaskuntzarekin loturiko kontuetan: ikaskuntza estilo eta teknikak, zer

suposatzen duen hizkuntza bat ikasteak eta erabiltzeak, ikaslearen autonomia (erantzukizuna, ikaskuntza prozesuaren gaineko kontzientzia eta kontrol maila areagotzea, eta abar).

	HPEren atal-zatia	Helburua	Jarduerak eta iruzkinak
1	<b>Biografia.</b> Nire ikasteko modua. Nola ikasten dut? Zer ikasi dut? Zer egingen dut...?	Ikasteko estilo pertsonalak eta estrategiak identifikatzea, hizkuntzak ikasten ikasteko estrategia berriak eskuratzea.	Ikasleak HPEn adibide zenbait entzun eta komentatuko ditu (adibide gehiago eman daitezke), dagozkion taulak beteko ditu eta erantzunak ikaskideekin alderatuko ditu. Entzuteko, irakurtzeko, hitz egiteko eta idazteko duen moduaren gainean hausnartu, klase barruan eta kanpoan. Baita ere: <b>8 eta 9. jarduerak.</b>
2	<b>Biografia.</b> Nire hizkuntzak.	Ikasleak bizi dituen emozioen eta sentipenen gaineko kontzientzia eta kontrola areagotzea.	Ikasleak 2 edo 3 ikaskiderekin hitz egingo du ikaskuntzak sortarazten dizkion sententzioez: <b>4. jarduera.</b>
3	<b>Biografia.</b> Nire ikasketaren planak.	Ikaskuntzaren gainean ikasgela barnean eta kanpoan ikasleak duen autoezagutza eta erantzukizun maila areagotzea.	Ikasleak ikasturtean zehar egin dituen ikaskuntza planak berrikusiko ditu, ikaskideekin erkatuko ditu eta ikasteko dituen ohituraren gainean hausnartuko du. <b>11. jarduera.</b>
4	<b>Dosierra.</b> Nire idatzizko lanak eta audio eta bideo grabazioak.	Ikasleak ulertzen edo sortzen dituen diskurtso motak aztertzea eta suposatzen duten ikaskuntzaren gainean hausnartzea.	ikasleak Dosierreko dokumentuak aztertuko ditu eta azterketa-galderei erantzungo die, kasu: norekin ikasten dut gehiago? zein bidaia edo jardueratan ikasi nuen gehiago?, non ikasi nuen hobeki? eta abar. Baita ere: <b>12. jarduera.</b>

Ibilbide honek enfasia jartzen du ikaslea autonomoagoa eta hizkuntzengatik interesatuagoa den ikasle gisa trebatzen. Lana ikasturtean zehar behin baino gehiagotan gara daiteke, «ikaskuntza estrategien» adibideak ematen badira edo epe labur edo ertainean «laneko planak» ezartzen badira. Ikaslearen trebakuntzak sekuentzia honetan modu zehatzean lantzen diren alderdiak hartzen ditu (norbere ikaskuntzaren kontzientzia hartzea, erantzukizuna areagotzea, erabaki pertsonalak hartzeko gaitasuna garatzea, eta abar) eta gainontzeko HPEekin lotura duten beste elementu batzuk (hizkuntza nola erabili ezagutzea, oinarriko trebetasunak, eleaniztasunaren hautemate positiboa, eta abar). Horregatik, sekuentzia hau HPEekin ikasgelan egingo den lanaren ardatz nagusitzat har daiteke, eta gainontzeko atal-zatiak honen osagarri gisa erantsi.

### 3.2.4. Aniztasunarekiko sentsibilitatea garatzea

HPEk ikasgelan har dezakeen azken norabide bat da, enfasia, ikaslearen edo erkidegoaren inguru hurbilean den eleaniztasunean eta kulturaztasunean jartzea. Ikus 47. orrialdeko koadroa.

Nahiz eta sekuentziak hiru puntu besterik ez izan, HPEren beste atal-zati batzuk (*Hizkuntza gaitasunen profila, Nire hizkuntzak, eta abar*) badute nolabaiteko lotura ikuspegi honekin, batez ere ikasleek beraien hizkuntza profilak eta identitateak beraien artean erkatzen badituzte eta aldeak aurkitzen badituzte. Arrazoi honengatik, HPE eleaniztasunaren eta kultura-



	HPEren atal-zatia	Helburua	Jarduerak eta iruzkinak
1	<b>Biografia.</b> Nire hizkuntzak: nola hitz egiten dituzte nire hizkuntzak beste batzuek?	Edozein hizkuntzak duen dialekto eta aldaera aniztasunaz kontzientzia hartzea.	Ikasleak taula beteko du eta 2 edo 3 ikaskiderekin erkatuko du.
2	<b>Biografia.</b> Beste hizkuntzak.	Ikaslearen hurbileko inguruan hitz egiten diren hizkuntzez kontzientzia hartzea.	Ikasleak atal honekin loturiko jarduerak egingo ditu. <b>2, 5, 6, eta 7. jarduerak.</b>
3	<b>Pasaporte.</b> Hizkuntza eta kulturekin izandako esperientziak.	Pertsonen hizkuntza eta kulturekin izandako esperientziez kontzientzia hartzea.	Ikasleek talde txikian idatzi eta aztertuko dute dagokien koadroan idatzitako informazioa, ikaskideen esperientzietatik ikasteko. Eztabaida honako galderetatik abia daiteke: <i>zein da esperientziarik dibertigarriena?, harrigarriena? baliagarriena?, eta abar.</i>

niztasunaren aldeko sentsibilitatea garatzeko asmoz ere erabil daiteke, immigrazio handia edo hizkuntzen arteko ukipena dagoen inguruetan.

Helburu hau bereziki aipagarria izan daiteke hainbat hizkuntza, kultura eta arraza elkarrekin bizi diren ikasgeletan.

Lau koadro hauetako bakoitzak gai edo helburu jakin baten antzekoak diren HPEko atal-zatiak sailkatzen eta ordenatzen ditu. Praktikan, lau sekuentzia hauek modu askotara konbina daitezke, batean hasi eta bestean bukatuz, edo bat erabiliz HPEekin egin beharreko lanaren ardatz gisa eta besteak txertatuz sekuentzia independente modura ikasturteko une jakinetan. HPEren malgutasun honek, Portfolioa modu oso desberdinean erabiltzea ahalbidetzen digu, ikasleen ezaugarrien arabera.

### 3.3. *Nola erabil daitezke taulak?*


Portfolioaren zatirik handiena galdetegiek eta koadro, taula edo parrilla gisako galderek osatzen dute, eta horiek ikasleek eskuz bete behar dituzte. Horietako batzuk (kasu, *Nire hizkuntzak*, *Beste hizkuntza batzuk*) zuzenduak daude erabat eta erantzun bakarrerako bide ematen dute, baina beste batzuk irekiak izateko pentsatuak daude aldeztu aurretik, hainbat erantzun mota errazteko, hezkuntza inguruaren arabera eta koadroa xede batekin edo beste batekin erabili. Kasu hauetan irakasleari dagokio diren aukeren artean onena hautatzea eta ikasleari azaltzea. Atal honetan zehaztasunez aipatu ditugu taula batzuetako zutabeak erabiltzeko aukerak, item bakoitzak koadro batzuetan dituen lau edo sei laukitxoak edo laukitxo jakin bat idazteko prozedura.

Aldatzeko aukera handiagoa ematen duten koadroak EMEBeko mailen adierazleak dituztenak dira:

- *Zer dakit egiten nire hizkuntzetan?* (5-13. or.), adierazle bakoitzeko 3 zutaberekin eta 6 laukitxorekin;
- *Zer dakit egiten nire atzerriko hizkuntzetan?* (15-23. or.) eta *Zer dakit egiten nire inguruko hizkuntzetan?* (14-18. or.), adierazle bakoitzeko 3 zutaberekin eta 4 laukitxorekin eta
- *Zer egiten dut ikasgelatik kanpo ikasteko?* (25-33. or.), bi zutaberekin eta 4 laukitxorekin.

Esperimentazioak datu garrantzitsuak eman ditu koadroen erabileraren eta ikasleen erantzunen gainean. Horrela, lerro, laukitxo eta zutabe kopuruak edo





koadroetan idazteko dagoen espazioa ez da beti egokiena ikaslearen ezagutzendako edo ikasgelan jarduera bat garatzeko: logikaz, ikasleak dagokion laukitxoan sartzen ez diren datuak osa ditzake oin-ohar batean edo koadro beraren fotokopia erantsian. Aipatzekoa da baita, zenbait kasutan ikaslerik gazteenen joera izaten dela koadro batean dauden laukitxo guztiak betetzea, ohar horiek jasotzeko aski datu esanguratsurik ez badago ere, hutsuneak edo koadroan betetzeko ariketak osatzeko duten ohiturari jarraikiz.

• **Nola barneratu koadroa jardueraren baitan?**

Koadroak eta taulak informazioa orri batean ordenatzeko prozedura grafiko eta eraginkorrek dira, eta hortaz, haxe da HPEn informazioa erregistratzeko hautatu den sistema. Baina horrek ez du esan nahi hau denik Portfolioko jardueraren muina, aitzitik, eskatutako informazioarekin taula bakoitzeko laukitxoak betetzeko lana, askoz ere zabalagoa eta konplexuagoa den jarduera baten ondorioa edo bukaera da.

Koadroa edo taula aitzakia da ikasgelan informazioa biltzeko, aztertzeko eta eztabaidatzeko dinamikari ekiteko, ikasleen arteko elkarlanean. Jarduteko eredu orokorra ondokoa izan daiteke: ikasleek taula irakurri eta interpretatuko dute gaia eta eskatutako datuak zehazteko; informazioa bilduko dute ideia-zurrunbiloen bitartez, Dosierrean gorde dituzten ekoizpenak behatuz eta aztertuz, ikasgelan beste jarduera praktikoa batzuk garatuz (elkarlanean egin dezakete, beste ikaskideekin); informazio hau taularen lehen "zirriborro" batean idatziko dute, eta beste ikaskide eta talde batzuetakoekin erka daiteke; datu pertsonalak ongi landuak daudenean baino ez dira idatziko HPEn behin-betiko.

Esperimentazioak iradokitzen du koadro eta taula bolumenak ahitu dezakeela ikaslea, sentsazioa izan baitezake HPE galdetegiak betetzean datzala. Horregatik, garrantzitsua da koadro bakoitza betetzeko lana osatzea datu horien gaineko hausnarketa ahalbidetuko duten jarduerekin.

• **Nola erabiltzen dira zutabeak?**

Modu orokorrean, zutabeek taula berari behin baino gehiagotan erantzutea ahalbidetzen dute, une desberdinetan (DBHko edo Batxilergoko ikasturteetan, ikastaldi jakin bat bukatzean, eta abar), ikuspegi osagarrietatik (zer dakit egiten, zer ikasi nahiko nuke, eta abar) edo autore desberdinek (ikasleak, ikaskide behatzaileak, irakasleak, edo senide batek).

Hizkuntza gaitasunen adierazleen kasuan, hiru zutabeek joko handia ematen dute: bat ikaslearen autoebaluaziorako erabil daiteke eta ondokoa ebaluazio hori baliotzeko. Azken hori ikaskide batek edo irakasleak egin dezake, gida honetako adibideren batean ikusi dugun moduan (23. or.). Modu berean, Portfolioko ikaskuntza helburuak zehazteko eta handik denbora batera ebaluatzeko tresna gisa erabiltzen bada, zutabeak *Helburuak* zehazteko erabil daitezke, eta baita ondoren *Ebaluazioa* egiteko ere, 49. orrialdeko adibideak erakusten duen moduan.

**Ni(k)** 10/15-ek esan nahi du autoebaluazio data horrekin bete duela ikasleak koadro hau, espainiera inguruko hizkuntza moduan hartuz; **Helb.** 11/13-k esan nahi du data horrekin identifikatu duela ikasleak helburu didaktiko moduan zehaztutako ikaskuntza beharra, eta **Eba.** 5/4-k esan nahi du data horrekin ebaluatu duela helburuaren lorpen maila. **Eba.** zutabeko bi koadro beltzek ziurtatzen dute ikasleak **Helb.** 11/13-n proposaturiko helburuak lortu dituela.



**Idazmena:** *espainiera*

		<i>Ni(k)</i> 15/10		<i>Heli,</i> 13/11		<i>Ela</i> 4/5		
C1	Ikasgelan egin ohi diren lanak egiteko gaitasuna dut: idazlanak, laburpenak, iruzkinak. Badakit informazioa bilatzen eta iritziak eta argudio pertsonalak ematen. Gai bakoitzari dagokion berariazko hiztegia erabiltzen dut.			✓				
	Gai naiz erakundeetara idatziak bidaltzeko: gutunak, eskabideak eta antzekoak. Badakit nolako egitura izan ohi duten era horretako idatziek, eta ezagutzen ditut haietan erabili ohi diren esamolde eta hizkuntz baliabide ohikoak.							
	Gogoan izaten dut, beti, zerk bultzatu nauen idaztera eta zein izango den hartzailea: horren araber, idaztanka batean edo bestean idazten dut. Ideiak eta asmoak hainbat modutan idatz ditzaket: zuzen-zuzenean edo zeharka, modu objektiboan edo subjektiboan.			✓				
	Egitura egokia ematen diet testuei, eta gaiak eta ideiak paragrafoetan antolatzen ditut. Eskemak eta zirriborroak egin eta testua berridatzi egiten dut; esaldiak modu egokian uztartzeko, joskera konplexua eta hiztegi aberatsa eta joria erabiltzen ditut. Akats tipografiko bakar batzuetan besterik ez dut huts egiten.							

Zer egiten dut ikasgelatik kanpo ikasteko? koadroaren kasuan, zutabe bikoitza hainbat unetan erantzuteko eta orain arte egin dudana eta egin nahiko nukeena erkatzeko erabil daiteke.

• **Nola erabiltzen dira laukitxoak?**

Item bakoitzak taula askotan dituen 4 edo 6 laukitxoek funtsean hainbat hizkuntza koadro berean idazteko balio dute, adibideak erakusten duen bezala:

**Irakurmena:**

		<i>Ni(k)</i>					
A1	Ulertzen ditut izen eta hitz arruntak, baita esaldi oso errazak ere, gertuko ditudan idatzietan (adibidez, iragarki, poster eta ordutegietan).	<i>Gazt</i>	<i>Eusk</i>				
		<i>It</i>	<i>Fr</i>				
A2	Gai naiz oso testu labur eta errazak ulertzeko (esate baterako, argibide, menu, katalogo edo eskutitz pertsonal laburrak). Badakit horietan interesatzen zaidana eta informazio jakina aurkitzen.	<i>Eusk</i>	<i>Gazt</i>				
		<i>It</i>	<i>Fr</i>				
B1	Ulertzen dut ohiko eta eguneroko idazki arruntetako informazio nagusia (egunkarietako albiste eta iragarkiak, eskutitz pertsonalak, jarraibideak). Testu hauetan ulertzen ditut gertakariak eta pertsonen sentimenduak.	<i>Eusk</i>					
		<i>It</i>					


Erabilitako inzialek (*Eusk* euskararendako; *It* italiararako, eta abar) ahalbidetzen dute ikasleak darabiltzan hizkuntza guztiak identifikatzea eta erkatzea. Erabil daitezkeen beste prozedura batzuk dira kolore edo sinboloak (hizkuntza bati




lotutakoak), baina inzialak baino ilunagoak dira, ikasleak zein irakasleak edo baita hirugarren batek ere argibideak behar baititu jakiteko zeri dagozkion kolore edo sinbolo horiek. Dena dela, inzialak, koloreak zein sinboloak erabili, nahitaezkoa da zeinu sistema bakarra negoziatzea klase guztiarendako, ikasleek erraz konpara ahal izan ditzaten beraien portfolioak klaseko jardueretan.


• **Nola markatu laukitxoak?**

Hizkuntza kopuruaren kontuaz landa, hainbat prozedura erabil daitezke laukitxo bat markatzeko, gurutzeaz edo betelanaz gain. Probetxuzko sistema izaten da hiruzpalau lortze maila pixkanakako ezartzea, kasu:

 Jarduera hauek nola egin ikasten hasi naiz, egoera batzuetan.

 Modu honetako hainbat egoera molda ditzaket, egokiro.

 Jarduera hau beti egin dezaket, zailtasun nabarmenik gabe.



Hiru maila progresibo hauek ahalbidetzen digute bereiztea finezia handiagoz helburu baten lortze maila, eta, are gehiago, erraztu egiten diote ikasleari modu esplizituan idatzi ahal izatea izan duen aurrerakuntza, txikia izanik ere, garrantzitsua dena. (Gogoratu behar dugu hizkuntza batean menderatze maila handia lortzeko ikaskuntza aldi luzea behar dela. Gauza bera koadroetako adierazletako bakoitza betetzeko ere; hori etsigarria izan daiteke ikasleendako, ikasturtean zehar ikus dezaketelako apenas ez dutela aurrera egin.)

Ikasle zenbaitek, beste esanahi bateko laukitxoak markatzeko, erabili dituzten zeinuak *aurpegierak* edo *smilie*-ak (mugikorretakoak edo txat-etakoak) izan dira. Ikasleek zeharo balioetsi duten helburu bat ebaluatzeko baliatu dituzte; harridura edo galdera ikurrak kategoria edo adierazle baten lortze mailan asebetetasuna, garrantzia edo zalantza zehazteko, eta abar.





# Material osagarriak

# 4

Atal honetan zenbait jarduera didaktiko agertuko da, HPEekin ikasgelako lana osatzeko. Adibide orokor batzuetan irakaslearen eskura uzten dira HPEa ikasgelan garatzeko forma ludikoak eta parte-hartzaileak.

Jakina, hezkuntza testuinguru bakoitzak (hizkuntzak, ikasleek, mailak, asmo didaktikoek) material berezia eskatzen du eta horrek ezinezkoa egiten du balizko testuinguruetan HPEren atalekin erlazioa daitezkeen jardueren adibideak hemen biltzea. Hurrengo adibideetan ideiak eskaini dira eta haiekin batera lan egiteko ildoak (irakasle bakoitzak sakondu eta egokitu ditzake eskura dituen baliabideetatik abiatuz: ikasliburua, ariketa koadernoak, ikus-entzunezko materiala, etab.).

Jarduera bakoitzean ondoko datuak dituen fitxa dago:

## Eredua

### IZENBURUA

**Helburua:** ikasleek lortuko dutena.

**Maila:** jarduera DBHko eta Batxilergoko zein kurtsoan erabil daitekeen.

**HPEren atala:** jarduera osagarria HPEren zein ataletan eta azpiataletan lan daitekeen.

**Prozedura:** jarraitu beharreko prozedurak, ikasleendako jarraibideak, beharrezko materialak.

**Adibidea:** testu lagina, ikasleen erantzunak, iruzkinak, etab.

HPE erabiltzean bestelako jarduerak prestatzen badira, merezi du fitxa eredu hori betetzea, iradokizun berria materialen artxibo pertsonalean sartzeko. Aurrez ikusia dago Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak (MEC) web orrialde bat izango duela eta hartan HPEren material berriak eta osagarriak aldi-aldi sartuko direla, besteak beste, beste testuinguru batzuei egindako berariazko egokitzapenak, iradokizun didaktikoak, etab. Irakasleek beren kontura prestatutako materialak ere web horretara bidal ditzakete.

## 1. jarduera

### HIZKUNTZA AUTOBIOGRAFIA

**Helburua:** norberak bere hizkuntza identitatea zein den jakitea.

**Maila:** DBHko 3. kurtsoa edo Batxilergoa.

**HPEren atala:** Hizkuntza biografia (*Nire hizkuntzak*).

**Prozedura:** idazlan labur bat idatzi eta azalpen labur bat prestatu behar da nire hizkuntza biografiaren (edo nire biobozografiaren edo nire ahotsaren biografiaren) gainean. Ikasgelan egingo da.

**Materialak:** biografiaren gaineko oinarrizko informazioa bilatzeko ondoko galdera hauetaz baliatu gaituzke.

Hizkuntza Autobiografia idazteko gida:

1. Zure gurasoengandik eta anai-arrebengandik, zein hizkuntza ikasi duzu?
2. Gogoan duzu haurtzaroko hitz "magiko"ren bat?
3. Orduetik hona, asko aldatu da zure hitz egiteko modua?
4. Gustukoa duzu irakurtzea eta idaztea? Gogoan dituzu irakurritako ikasitako hitzetako batzuk?
5. Zein hizkuntza ikasi zenuen kalean edo eskolan?
6. Gogoan duzu atzerriko hizkuntza ikasten hasi zinen lehen eguna?
7. Gogoan duzu asko ikasi zenuen egoera edo uneren bat?
8. Baduzu gogoan hizkuntza bitxikeria barregarriren bat, ikasten zenbiltzanekoa?
9. Zein da azkenik ikasten hasi zaren hizkuntza?
10. Ohikotasunez, zein hizkuntza erabiltzen duzu? Zein egoeratan? Norekin?
11. ...

## 2. jarduera

### ZERTARAKO BALIO DUTE HIZKUNTZEK?

**Helburua:** giza-taldean edo animalia-taldean arteko komunikazio sistema ez-linguistikoen gainean taldean hausnartzea. Bi elementu hauek azter daitezke:

- hizkuntzaren funtzioak eta haien dimentsio soziala,
- komunikazio sistemen eta agerpen linguistikoen aniztasuna.

**Maila:** DBHko 1. kurtsoa, Batxilergoko 1. kurtsoa.

**HPEren atala:** Hizkuntza biografia (*Nire hizkuntzak*).

#### Prozedura:

DBHko 1. kurtsoarako:

Ikasleei galdera hauek azalduko zaizkie:

1. Ipar Amerikako indigenen zenbait kulturatan, zertarako erabiltzen zen kea?
2. Bestelako komunikazio sistemak ere badaude. Hona hemen adibide batzuk:  
Zertarako balio dute? Nola dabilta?

*Braille, animaliek (txoriek, txakurrek) ateratako soinuak, Morse, zeinu hizkuntza*

*Batxilergoko 1. kurtsoarako:*

Talde txikietan ideia-zurrumbilo bat egin daiteke *Zertarako balio dute hizkuntzek?* edo *Hizkuntzek zer funtzio betetzen dituzte?* galderekin. Beharbada ikasleen erantzunetan ondoko puntu hauek bilduko dira (irakasleak talde txikian eztabaidatzeko erabil ditzake):

1. Hizkuntzek taldearen kohesioa indartzeko balio dute: zergatik dituzte gazteek beren hitz egiteko moduak?, Zergatik esan dezakegu batzuetan delako mintzo hori adinekoen edo 'pijo' en hitz egiteko moduaren antzekoa dela?, Zer dela-eta egiten zaigu arrotz atzerriko hizkuntzako klasean gure ikaskideekin hizkuntza horretan mintzatzea?
2. Hizkuntza bat ikastea bizitza osoko lana da: noizbait iritsiko ote gara hizkuntza bat bere osotasunean ezagutzera?, pertsona batek bizitzako zein unetan uzten dio hizkuntza bat ikasteari?, noiz ikasi zenuen azkenekoz zure ama hizkuntzan zerbait? Gaiaren gainean hausnartuz gero, agerian gelditu daiteke bizitzan zehar etengabe arituko garela hizkuntzak ikasten. Ez soilik atzerriko hizkuntzak edo hizkuntza berriak, baita norberaren hizkuntza ere. Hizkuntza oro egunero hobetu daiteke, hiztegia sakon daiteke, komunikazio genero berriak (jendaurrean hitz egitea, administrazio agiri bat idaztea, etab.) erabil daitezke.
3. Lehenik hizkuntza ulertu egiten da; gero hasten gara gauzak esaten. Zergatik ulertzen ditugu gauza batzuk esaten ikasi baino lehenago?, zergatik askok "ulertzen dute" hizkuntza bat, baina ez dute hizkuntza horretan hitz egiten?, zergatik da handiagoa ulertutako hitzen kopurua hitz egitean edo idaztean erabilitakoa baino? Hizkuntza bat baino gehiago ulertzera iritsi gaituzke; hori bera jadanik haiek erabiltzeko gaitasuna da.

### 3. jarduera

#### ZER EGIN DEZAKET?

**Helburua:** ikaslea ohitzea EMEBen gaitasun mailek dituzten taulekin, eta hizkuntza ezagutza eta trebetasunen autoebaluazioan eta heteroebaluazioan prestatzen hastea.

**Maila:** DBHko eta Batxilergoko kurtsoetako bakoitza.

**HPEren atala:** Hizkuntzen Pasaportea (*Hizkuntz Gaitasunen Profila*); Hizkuntz Biografia (*Nire hizkuntzak; Zer dakit egiten nire hizkuntzetan?*).

#### Prozedura:

Ahozko elkarreraginarekin (elkarrizketa) has gaitezke, proposatutako atazak interaktiboagoak eta zabalagoak izatean, gainerako jarduerak lantzen hasteko ere balio dezaketelako.

#### Elkarrizketa:

Oro har, ahazko komunikazioan egunero (kalean, dendetan, lagunuen arteko kontuetan, etab.) gertatzen diren egoerak aukeratu behar dira, hots, ikasleek, nola edo halako arrakastaz, haietan murgiltzeko gai izan behar dutenak eta, aldi berean, ikasgelan antzetzeko balio behar dutenak, rol-joko baten modukoak, alegia. Gero ebaluatu beharko dira. Ikasle batzuek egoera horiek antzetzeko dituzte. Aldi berean, euren ikaskideek egindakoa begiratu eta ebaluatuko dute. Azkenik, batzuek eta bestetuek, HPEren taulan bakoitzak zein gaitasun maila jarri behar duen erabakiko dute. Ataza errazago antolatzeko iradokizunak ere aurkeztuko dira:

Ikasleen eta irakaslearen artean pentsatu eta erabakiko dira antzetzeko beharreko komunikazio egoerak, HPEren adierazleak batera irakurri ondoren (zer dakit egiten nire hizkuntzetan, edo nire atzerriko hizkuntzetan, edo nire inguruko hizkuntzetan?). Egoeraren oinarritzko datu hauek apuntatuko dira txartel batean:

- Testuingurua: tokia, denbora, solaskideen rola. Adibidez: *norbaiti hanka zapaldu diozu kalean edo metroan...*
- Ikasleak bete beharreko helburua edo jarraibidea (hizketaren ekintza edo funtzio linguistikoa). Adibidez: *desenkusak agertu behar dituzu eta solasaldi bati hasiera eman behar diozu; azkenean, gizalegez agur egiten diozu.*

Hiru ikasle talde egingo dira: hitz egingo dutenak, haien solaskideak eta behatzaileak. Imajinatutako egoerak bezainbeste txartel idatziko da. Hitz egitea egokitu zaienei txartel bana emango zaie; irakurriko dute, deskribatutako asmoa egiteko gai izango ote diren balioetsiko dute eta euren iritzia haietan islatuko dute (ondoko zeinuak erabiliko dituzte horretarako):

+ = Badakit egiten

0 = Ez dakit ba ote dakidan egiten

- = Ez dakit egiten

Ikasgelan txokoak antolatuko dira eta txoko bakoitzean solaskide bat eta behatzaile bat jarriko dira. Hitzunak txokora joan beharko du eta, solaskidearen laguntzaz, komunikazio egoera betetzeko jardun beharko du. Ondoren, hirurek batera ebaluatuko dute hitzunaren jarduna (hitzunak bere aurretiko iritzia benetako emaitzarekin eta bere ikaskideen balioespenarekin aldera dezake). Hirurek batera erabaki dezakete HPEren mailen taulan idatzi beharrekoa. Prozesua errepikatuko da rola elkar trukatu.

#### Entzumena:

Aurreko jarduera baino arinagoa eta azkarragoa da. Ikasleen mailari egokitutako grabazioak (entzutekoak edo ikus-entzutekoak) hautatuko dira (ikasliburuak, ulermen koadernoak, etab.). Grabazio horiek adierazleetan aipaturiko atazetakoak izango dira. Ulermenerako zenbait ataza egin eta ebaluatuz, ikasleek adierazleak taulak beteko dituzte, lorturiko arrakastaren arabera. Ataza biak bikotean egin daitezke, nahiz eta ikasle bakoitzak autoebaluazioa bere HPEn idatzi behar duen.



**Irakurmena:** *Entzumenean bezala.*

**Ahozko adierazpena:**

Honako hau egin daiteke: ikasleei zenbait testu aurkeztu, ikasleak berak erabaki dezan, talde txikian hitz egin ondoren, zein egin ditzakeen eta zer erraztasun eta zuzentasun mailarekin:

Honako hau egin dezaket:

- deskribatu nolakoa den nire bizitokia edo nire gela
- deskribatu ongi ezagutzen dudan norbait
- nire zaletasunen, interesen, denbora librearen gainean hitz egin
- nire ikasketez, eskolaz... hitz egin
- nire nahien, ilusioen, sentimendu pertsonalen gainean hitz egin
- gai jakin baten gainean nire iritzia eman eta hura arrazoitu
- istorio bat kontatu, bitxikeria bat kontatu
- eleberri baten, film baten trama azaldu
- ikusi, irakurri ditudan gauzekin, enzun dudan musikarekin izandako erreakzioak deskribatu...
- proposamen jakin baten aurrean jarrera hartu, proposamenaren abantailak eta desabantailak zein diren ikusi
- azaldu esan nahi dudana nahiz eta horretarako zenbait hitz ez izan eskura
- jendaurrean hitz egin agur labur bat eginez, ekitaldi programa bat azalduz...

Gero, ikasleak adierazleen taula beteko du.


**Idazmena:**

*Ahozko adierazpena bezala, ondoko testuen zerrendarekin:*

Idatz dezaket:

- Postal bat oporretan ezagutu nuen lagun bat agurtzeko
- Postal bat norbait bere urtebetetzean zoriontzeko
- E-mail bat lagun bati informazioa eskatzeko
- Formulario bat, nire datu pertsonal eta akademikoekin eskola bateko idazkaritzan bete behar dudana
- Ohar bat lagun baten egunkarian, oporren bukaeran
- Gutun bat familia bati. Familia horren etxean ostatu hartu nuen haien herrialdean berriki egin nuen egonaldian
- Gutun bat eskolako idazkaritzakoei, hizkuntza ikastaroen eta ostatu baldintzen gaineko informazioa eskatzeko
- Idazlan bat ikasgelan gai jakin baten gainean iritzia emateko eta arrazoitzeko
- Zinemako, musikako, antzerkiko... kritika bat ikastetxeko aldizkarirako
- Kazetaritzako artikulu bat ikastetxeko aldizkarirako
- Irakurritako liburu baten laburpena eta aipamena, gainerako ikaskideei haren berri emateko.

*Nola erabil daitezke taulak?* atalaren arabera, EMEBen mailen adierazleen koadroetan hiru zutabe daude beste hainbat ebaluazio mota egiteko. Ikasleak lehen zutabea erabil dezake (NI izena jar diezaiokegu) bere burua ebaluatzeko; ikaskide batek, irakasleak edo familiakoren batek bigarren zutabea erabil dezake (BESTE NORBAIT izenekoa) ikaslearen ebaluazioa baliozkotzeko.



#### 4. jarduera

##### NOLA SENTITZEN NAIZ HIZKUNTZAK IKASTEN?

**Helburua:** ikasleak ikasten ari diren edo inguruan dituzten hizkuntzen gaineko jarrerak eta sentrazioak azaleratzea. Jarduera honekin sendotu nahi da *Hizkuntz Biografiaren Nire hizkuntzak* atala. Identifikazioari osagai bat gehitzen dio: hizkuntza berri bat ikasten eta erabiltzen hartzen den plazerra, betiere ikasleak eskura izan edo erabil ditzakeen hizkuntzei loturik (gogoan izan: zenbait trebetasun eta gaitasun mailatan).

**Maila:** DBHko eta Batxilergoko kurtsoak (alternoak).

**HPEren atala:** Hizkuntz biografia (*Nire hizkuntzak*).

##### Prozedura:

Ikasleak ondoko taulako laukiak beteko ditu, adibideak irakurri eta haien iruzkina egin ondoren (ikus beheragoko adibideak). Laukia bete baino lehenago, interesa piztu eta ideiak iradokiko lituzkeen prozedura erabil daiteke (esate baterako, talde-ikasgelan edo talde txikietan ideia-zurrumbilo bat egin daiteke). Galdera honekin has gaitzke: <<Hizkuntzen irakaskuntzatik, zer duzue gustuko?>>

##### Nola sentitzen naiz hizkuntzak ikasten?

Bete itzazu lauki hauek arakatzeko:

Zer egitea gustatzen zait?	hizkuntza honetan	Zergatik?	Horrez gainera...

##### Adibideak:

Zer egitea gustatzen zait?	hizkuntza honetan:	Zergatik?	Horrez gainera,...
<i>musika entzutea</i>	<i>ingelesez</i>	<i>Nola entzuten den gozokoa dudalako.</i>	<i>ahoskerarekin ohitzeko balio dit.</i>
<i>oponretan nire lagunak hitz egiten entzutea</i>	<i>italieraz</i>	<i>hobeki ezagutzen ditudalako ingelesez hitz egingo bagenu baino.</i>	<i>zenbait herritako pertsonekin komunikatzeko balio dit.</i>
<i>filmak jatorrizko bertsoan ikustea</i>	<i>ingelesez alemanez</i>	<i>aktoreen jatorrizko ahotsak entzun ditzakedalako.</i>	<i>hitz batzuk ikasteko eta beste hizkuntza batzuen intonazioarekin eta beste agentu batzuekin ohitzeko balio dit.</i>
<i>errotulu eta kartelak irakurtzea</i>	<i>katalanez galegoz ...</i>	<i>Tokien jatorrizko izenak ikasten ditudalako.</i>	<i>Espainiako beste hizkuntzen ortografia ikasteko balio dit.</i>



## 5. jarduera

### NOLA AHOSKATZEN DA ETA ZER ESAN NAHI DU?

**Helburua:** ikaskideen, ezagunen, auzokoen, pertsonaia ospetsuen eta abarren izenak (beste hizkuntza eta kultura batzuetakoak) ikertzea, aniztasun linguistiko eta kulturalerako jarrera positiboak eta errespetuzkoak bultzatzeko.

**Maila:** DBHko 2. eta 3. kurtsoak. Ikasturtearen erdialdera egiteko.

**HP Eren atala:** Hizkuntz biografia (*Nire hizkuntzak*).

### Prozedura:

Hausnarketarako jarduera txikiak (ondoko hauek bezalakoak) azaltzea:

- Beste kultura batzuetako pertsonak beren izenez galdetzea: zehatz-mehatz nola ahoskatu behar da bere izena bere hizkuntzan?, zein da bere esanahia? Adibidez: *Tao Chin* (txineraz) → *Iris-lorea*; *Nourdine* (arabieraz) → *Basamortuko semea*.
- Beste hizkuntza batzuetan mintzatzen diren pertsonen izenak ba ote duen itzulpenik edo baliokidetasunik beste hizkuntza edo kultura batean: nola da? nola ahoskatzen da? maiz ageri da? Adibidez: *Tunde-k hungarieraz Maitagarria esan nahi du*, baina euskaraz ez da eskuarki pertsona izen modura erabiltzen.
- Beste hizkuntza batzuetan mintzatzen diren pertsonen izenak beren hizkuntzan edo kulturaren zein diren maizenik erabiltzen diren izenak: Zer izango litzateke *Etxeberría* ingelesez?, eta arabieraz?, eta japonieraz? Eta katalanerazko *Jordik* ba ote du baliokiderik galegoz?, eta euskaraz?
- Gogoeta egin ezazue jakiteko izen bereziak zerbait esan nahi duen edo esanahiren bat izan dezakeen. Hemen «amets egin daiteke».
- Ikastetxearen barnean proiektu txiki bat garatzea. Proiektu horretan ikasgela bateko ikasleek ikastetxeko <<historia handiko izenak>> edo ikastetxean <<maizenik erabiltzen diren izenak>> aurkitu beharko dituzte.

## 6. jarduera

### HIZKUNTZA BITXIKERIAK

**Helburua:** ikaslea sentibilizatzea hizkuntza aniztasunaren aurrean, hizkuntzen balio intrinsekoan, eta hitzunei eta haien kulturei izan beharreko errespetuan.

**Maila:** DBHko 2. eta 3. kurtsoak, ikasturtearen hasieran edo erdialdean.

**HP Eren atala:** Hizkuntz biografia (*Beste hizkuntza batzuk*).

### Prozedura:

Irakasleak kontatu dezake (edo ikasleek irakur edo entzun dezakete) bitxikeriaren bat (bitxikeria horrek antzeko esperientziak gogora ekarri behar dizkie ikasleei). Adibidez:

- *Lagun batzuk hizkuntza ikastaro batera joan ziren Ingalaterrara. Ikaskideen artean asko japoniarrak ziren eta haien izen gehienek bukaera -iko zen: Tomiko, Keiko, Masako... Gero jakin zuten emakume izenen desinentzia zela.*
- *Beste lagun batzuek jakin zuten katalanez Montserrat izenak berdin balio duela gizonetzkoendako eta emakumezkoendako. Berdin gertatzen da espainieraz Trinidad izenarekin.*

Hori egin ondoren, ikasleek ikasgelan aurkez ditzakete euren hizkuntza bitxikeriak. Ekarpinak asko ez badira, ikasleei eska diezaietegu bitxikeriak bila ditzatela hurrengo klaserako edo asterako –euren familiakoei, lagunei eta abarrei eskatzerik badute–. Bitxikeriak bildu ondoren, bitxikeriarik onenekin edo harrigarrienekin poster bat edo argitalpen bat egin daiteke (<<ikasgelaren hizkuntza proiektua>> izango da). Proiektua zenbait irakasgairen ingurukoa (zeharkakoa) izan daiteke eta hizkuntza batean baino gehiagotan idatzirik ager daiteke.



## 7. jarduera

### BILA EZAZU NORBAIT

**Helburua:** geure inguruan hizkuntza bat baino gehiago dugula jakitea –gutxi ezagutzen baditugu ere– eta haiek sor dezaketen interesaz jakitun izatea.

**Maila:** denak.

**HPEren atala:** Hizkuntz Biografia (Beste hizkuntza batzuk).

#### **Prozedura:**

Ikasle bakoitzari orri bat emango zaio eta orri horretan beheragoko baieztapenen zerrrenda. Ikasleek zutitu beharko dute eta baldintza horietako baten bat betetzen duten ikaskideak bilatu beharko dituzte. Inork ez dio galderari bere izenean erantzungo, esate baterako, (*nik etxean badut aleman hiztegi bat*). Denak zain geldituko dira euren txanda izan arte. Arbelean ere idatz daitezke beheko baieztapenak. Ikasle talde bakoitzari egokitutakoak beharko dira izan.

#### **Materialak:**

*Bila ezazu etxean italieraz idatzitako libururen bat duen norbait.*

*Bila ezazu etxean arabierazko kantuek dituen disko bat duen norbait. Bila ezazu afrikar hizkuntzaren bat ezagutzen duen norbait.*

*Bila ezazu "Egun on" grezieraz esaten dakien norbait.*

*Bila ezazu europarra ez den hizkuntza batean hitzen bat edo beste esaten dakien norbait.*

*Bila ezazu etxean ingeles hiztegi bat duen norbait.*

*Bila ezazu arratsaldetan hizkuntza akademia batean ikasten duen norbait.*

*Bila ezazu Portugalen egon den norbait.*

*Bila ezazu poloniar lagun edo ezagun bat duen norbait.*

*Bila ezazu lau hizkuntzatan bere izena esaten dakien norbait.*

*Bila ezazu suedieraz kontaktzen dakien norbait.*

*Bila ezazu bere izena euskarazkoa ez den alfabeto batean idazten dakien norbait.*

*Bila ezazu...*

*Bila ezazu...*

Ariketa bera egoki daiteke beste helburu batzuk lortzeko (bilatutako pertsonen ezaugarriak alda daitezke). Esate baterako, ikasteko estiloak arakatzeko: *bila ezazu ikasitako hitz guztiak idazten dituen norbait, joko edo arau (mnemoteknikoren) bat erabiliz hitzak gogoratzen dituen norbait, hitzak hiztegian bilatzen dituen norbait eta abar.*

## 8. jarduera

### IKASI IZAN DUZU LEHENAGO HIZKUNTZAREN BAT?

**Helburua:** ikasleak eskolan eta eskolaz kanpo baliabideak eta ikasteko estilo propioa dituela ohartzea eta haiek bultzatzea.

**Maila:** DBHko 3. kurtsoetik aurrera, kurtso bakoitzean.

**HPEren atala:** Hizkuntz Biografia (*Nire ikasteko modua*).

#### Prozedura:

Ikasleei esango diegu jarduera hau egin behar dutela:

*Lehenago hizkuntza bat ikasten aritu bazara, seguraski konturatuko zinen ikasle modura aritu zinenen nola ikasi zenuen. Adibidez:*

- Hitzen esanahia ongi ezagutzen dut hitz horiek irakurri edo entzuten ditudanean, baina erabili nahi ditudanean arazoak ditut aurkitzeko.
- Urdaila beterik dudanean, kosta egiten zait kontzentratzea, ezin dut ikasi.
- Kantuetan ikasitako esamoldeak edo egiturak ongi gogoratzen ditut.
- Neka-neka eginda bukatzen dut ikasten luze eta jarraian egoten banaiz.
- ...

**Hizkuntza bat estreinakoz ikasten baduzu, zuri buruzko alderdien gaineko gogoeta egin behar duzu ataza hau egiteko onuragarriak edo kaltegarriak izan daitezkeen alderdien gainean:**

- Oroimen ona dut, baina ez naiz saiatua lanean.
- Irakurtzea gustuko dut, bereziki ipuinak eta eleberriak.
- Ikasten saiatua naiz.
- Arreta jartzen dut ez badut ezer ere entzuten eta lasai banago.
- Oso irekia naiz eta atsegin dut ikaskideekin lan egitea.
- ...

Osa itzazu zutabe hauek hizkuntza bat ikasteko moduaren gaineko alderdi positiboekin eta hobe daitezkeenekin.

#### Alderdi positiboak

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

#### Hobe daitezkeen alderdiak

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

## 9. jarduera

### TESTU ULERGARRIGAITZA

**Helburua:** hizkuntzak ikasteko prozesuen eta, zehazki, idazkiak ulertzeko prozesuen gaineko oharrena handitzea, eta diskurtsoak interpretatzerakoan erabiltzen ditugun gaitasunak (inferentziazkoak eta azterketakoak) erakustea. Baliagarria ere izan daiteke ikasleei frogatzeko itxuraz testuetan ulertezinak ematen duten datu asko ondoriozta ditzakegula.

**Maila:** DBHko 1. kurtsoa eta Batxilergoko 1. kurtsoa.

**HPEren atala:** Hizkuntz Biografia (*Nire ikasteko modua*).

### Prozedura:

Ikaslea saiatuko da hizkuntza arrotz batean idazki labur bat irakurri eta ulertzen. Honako hau egin beharko du:

1. Kontestualizazioa. Ikaslea gaien kokatzeko, komunikazio testuinguruko daturen bat emango zaio: *Postal bat da, erosi eta lagun bati bidal diezaikezuna. Gaia atsegina izango da, txantxa bat egiteko modukoa.*
2. Bakarka irakurtzea, testua aztertzeke. Ikasleak saia daitezke testuaren gaia edo esparrua, egilea, asmoa, etab. asmatzen. Era berean, azpimarra ditzakete ulertzen diren hitzak edo esanahiari lagungarri zaizkion diseinuko zenbait alderdi, hala nola, letren tamaina, antolaketa, etab. Horiez gainera, ortografiako alderdi batzuk ere azter daitezke: erabilitako letra motak, silaben konbinazioa, etab.
3. Talde txikietan irakurtzea. Talde txikiak egingo dira aurreko urratseko informazioa elkartrukatzeko. Batera interpretatuko da.
4. Batera jartzea. Taldeek talde handiari euren hipotesiak aurkeztuko dizkiote eta testuaren benetako esanahiaren berri emango dute. Hizkuntza ezezagun batean idatzitako testu bat nola ulertu behar den eta hartarako zer estrategia erabili behar den jakiteko hausnarketa egiten hasiko da.

Esperientzia hori errepika daiteke. Honako honetan ahozko testu bat erabil daiteke: testu hori ikaslea ikasten ari den hizkuntza batekoa izango da eta testuaren maila ikaslearena baino handiagoa izango da.

### Adibidea:



### Hitzez hitzeko itzulpena, polonieratik

#### ZU BAZARA:

erle bat bezain langile,  
hartz bat bezain indartsu,  
idi bat bezain langile,  
eta txakur bat bezain nekaturik  
itzultzen bazara etxera,  
zoaz ALBAITARIARENGANA!!!

segur aski ASTO bat izango zara

Poloniera ulertzen ez duen euskal hiztun batek hainbat alderdiri erreparatuko die Poloniako kioskoetan saltzen den postal turistiko horretan.

- badira maiz errepikatzen diren hitzak (*jak*);
- badira testuan ustez rol garrantzitsua duten animalia arrunten marrazkiak (erle bat, asto bat, idi bat, etab.); marrazki horietako bat, astoarena, handiagoa da eta bukaeran dago (esanahi berezia izan dezake);

- badira hitz larritan idatzitako hitz batzuk (*WETERYNARZA* eta *OSLEM*) edo azpimarratutakoak (*Jésli jestes*) (badirudi garrantzitsuagoak direla): *Jésli jestes* izenburua da, hasieran eta nabarmendua ageri dena, eta *OSLEM*, bukaera da. Badirudi amaiera dela;
- kontsonante batzuek tildea daramate (ese, zeta) eta beste zeinu batzuk ez dira euskararenak (makilatxo duen elea), bokalen eta kontsonanteen arteko konbinazio hori ez da oso ohikoa euskaraz, etabar.
- *WETERYNARZA* hitza *ALBAITARI* da euskaraz (*VETERINARIO*, espainieraz). Polonierazko hitza eta espainierazkoa oso antzekoak dira eta testuan animalia asko ageri dira;
- animaliekin konparazio asko egin daitezke, animaliekin egindako marrazkiak daudelako eta ohiko samarrak direlako euskaraz, etab.
- etab.

Datu horiek guztiak egiazkoak dira eta aztertu ahal izan dira testuinguruko elementuak (marrazkiak, tipografia) edo hizkuntza erregulartasunak (*jak*) eta beste hizkuntza batzuk ezagutzen direlako (*ALBAITARIA* - *VETERINARIA*).

## 10. jarduera

### JOLAS DEZAGUN DETEKTIBETAN

**Helburua:** ikaskuntzako jarduera ludikoak ikasgelatik kanpo egin daitezzen bultzatzea.

**Maila:** DBHko 3. kurtsoa eta Batxilergoko 1. kurtsoa.

**HPEren atala:** Hizkuntzen pasaportea (*Hizkuntza eta kulturekin izandako esperientziak*) Hizkuntz biografia (*Zer egiten duzu ikasgelatik kanpo ikasteko?*); Dosiera (2. gutunazala: dokumentuak eta oroitzapenak).

#### Prozedura:

Hurrengo jarduera ludikoari sarrera egin behar diozue.

Pertsona bat hizkuntza bat ikasten ari da. Hizkuntza hori hitz egiten den herrialdera bidaiatu egiten du. Bidaiari horretatik egiazko zenbait dokumenturekin itzultzen da, besteak beste: hegazkin, tren, autobus billeteak; taxi, jatetxe ordainagiriak; zinema, antzerki, museo sarrerak; erosketa fakturak; propaganda orriak, etab. Informazio hori ikasleei emango zaie eta horrekin asmatu beharko dute, detektibeak balira bezala, pertsona hark egun oroz zer egin zuen. Informazio hori eskura dutela, pertsona bakoitzaren bidaiari buruzko txosten labur bat egin beharko dute.

Ikasgelako lana askotarikoa izan daiteke. Lehen aukera hau da: ikasleek talde txikietan egingo dute lan, bidaiariaren jarduerak berreraikiko dituzte, eta egunkari bat edo ibilbide bat osatuko dute. Talde bakoitzaren interpretazioak batera jarri ondoren, azken eztabaidan zenbait alderdi lan daiteke: bidaietan eskuratutako hizkuntza eta kultura alderdiak, trukaketak, kontraste soziokulturalak, etab. Beste fase batean, ikasleek egindako bidaietatik ekarritako materiala ekar dezakete (argazkiak, museoetan sartzeko txartelak, etab.), betiere Dosierrean (dokumentuak eta oroitzapenak) gordetako materialetik abiatuz.

## 11. jarduera

### IKASTEKO NIRE PLANAK

**Helburua:** jakinaren gainean egotea ikasleek hizkuntzak nola ikasi nahi dituzten (ikasten emandako denbora, jarduerak, etab.), betiere programazioan ezarritako edukietatik eta helburuetatik haratago.

**Maila:** denak.

**HPEren atala:** Hizkuntz biografia (*Ikasteko nire planak*).

### Prozedura:

Ikasleei galdera-sorta hau emanen diegu (talde txikian eztabaidan aritzeko balio beharko du):

Puntu hauetakoren batekoekin islaturik ikusten duzu zeure burua?:

- Soil-soilik egiten dut irakasleak esaten didana.
- Beste gauza batzuk ere egiten ditut (esate baterako, kantuen letrak ulertzen saiatu), hori egitea atseginagoa delako eta hobeki ikasten dudalako.
- Lehenetsun hurrenkera ezartzen dut zerbait erreparatu behar dudanean: lehenik hiztegia, etab.
- Egunero / astero denbora jakina hartzen dut hizkuntza bat ikasteko.
- Ikasten dut soilik azterketa bat egin behar dudanean.
- Denbora gutxi dudanez gero, presaka egiten ditut ariketak, entregatu baino pixka bat lehenago.
- Etxeko liburuetan edo liburutegian edo interneten aurkitutakoetan zer edo zer kontsultatzen dut, betiere ikasgelatik kanpo.
- Eskuarki apunteak garbira pasatzen ditut gero erreparatzeko.
- Liburuak irakurtzen ditut baldin eta badakit ikasgelan galderak egingo dizkidalako edo testen bat jarriko didalako.
- Beste hizkuntza batean idatzitako liburuak irakurtzen ditut hori egitea gustukoa dudalako eta ikasteko balio didalako.

Bateratze saioa egin ondoren, taldeak animatuko ditugu ikasteko forma eta baliabideen zerrenda bat egitera, honako galdera hau abiapuntu harturik:

*«Zer egingo zenukete ikasgelatik kanpo hizkuntzak ikasteko zuen gaitasuna hobetze aldera?»*



## 12. jarduera

### NIRE LANIK ONENAK

**Helburua:** egindako lanak (idazkiak, grabazioak, irakurketak) eta horiek berekin dakartzaten ezagutzak eta trebetasunak bakarka eta taldean balioesten ikastea.

**Maila:** guztiak.

**HPEren atala:** Dosierra.


### Prozedura:

Ikasleak talde txikietan antolatuko dira. Galdera erako irizpide zerrenda bat prestatuko dute egindako lan idatzi zein ahozkoak eta irakurri eta ulertutako diskurtsoak balioesten laguntzeko. Hurrengo galdera hauek gida modura erabil daitezke.

- Azalpenean (eszenaratzean, elkarrizketan, rol jokoan, etab.) sortzaileak izan gara edo asko nabaritu da buruz ikasi dugula?
- Nolakoa da prestatu dugun testua: sortzailea, laburregia, luzeegia, etab.?
- Narrazio lehiaketa batean zer testu aurkeztuko genuke?, zergatik?
- Zer da garrantzitsuagoa ahozko testu batean: jariotasuna, zuzentasun gramatikala, intonazioa, etab.?. Zergatik?
- Zein da argudiorik sinesgarriena, zein argudiok azaltzen ditu ideiak argien, zein argudio dago ongien ordenatua, etab.?
- Egin dituzun irakurketetatik zein da konplexuena?, zein irakurketak egin dizu ekarpenik handiena?
- ...

Zerrenda prestatu eta aztertutik, ikasle bakoitzak aukeratu beharko du bere lan idatzi edo ahozko hoberena (edo bere irakurketarik zailena, ulertu duen diskurtsoarik garrantzitsuena, etab.). Aukeraketa hori defendatu beharko du talde txikiaren aurrean. Taldeko kide guztiek esatekoa entzunik, "taldeko lanik hoberenak" hautatuko dira, adostasunez, eta talde bakoitzeko eledunak, hots, taldeko kideek aurretik hautatutakoak, ikasgela-taldearen aurrean aurkeztuko du.

Ikasle bakoitzak <<bere lanik hoberenak>> Dosierraren lehen gutunazalean gordeko ditu eta lan horien datuak (izenburua, hizkuntza, eguna, etab.). Dosierraren aurkibidean idatziko ditu.





### 13. jarduera

#### ZIURTAGIRIA LORTU AURRETIK ETA ONDOTIK

**Helburua:** autoebaluazioko alderdien gaineko kontzientzia ikaslearengan sustatzea, betiere kreditazioetako probei eta azterketei dagokienez.


**Maila:** guztiak.

**HPEren atala:** Hizkuntz Pasaportea (*Ziurtagiriak eta diplomak*).

#### Prozedura:

Ikasleak hurrengo galdera-sorta bakarka beteko du. Horren ondoren, bere erantzunak gainerako ikaskideenekin erkatuko ditu talde txikian.

#### PROBA BAT EGIN ONDORENGO GALDERA-SORTA

1. Nola balioesten dut egin dudan azterketa edo proba? Zer moduz egin dut?
  2. Trebetasun orokorrak islatu ditut:
    - Nahiko ongi.
    - Uste baino hobeki.
    - Uste baino okerrago.
  3. Lortu dut hobeki frogatzea nire ezagutzak eta trebetasunak esparru hauetan:
    - Irakurriaren ulermena.
    - Hiztegia.
    - Ahozkoaren ulermena.
    - Gramatika.
    - ...
  4. Ez dut lortu ongi frogatzea nire ezagutzak eta trebetasunak esparru hauetan:
    - ...
  5. Azterketa mota (galderak, formatua, zuzenketa irizpideak):
    - Zailtasunak izan ditut. Zergatik?
    - Ez dut zailtasunik izan. Zergatik?
  6. Azterketa nola egin dudan (denbora nola banatu dudan, zer lan prozedura erabili dudan, etab.):
    - Oso eraginkorra izan da. Zergatik?
    - Ez da oso eraginkorra izan. Zergatik?
  7. Beste ziurtagiri bat lortzeko azterketak prestatzeko:
    - Azterketa berriaren formatuko zer alderdi ezagutu behar dut?
    - Zer prestakuntza egin beharko dut nire ezagutzak eta trebetasunak hobeki frogatzeko?
    - ...
- 



## 14. jarduera

### HIZKUNTZA ABANIKOA

**Helburua:** pertsona bakoitzaren profil eleanitzaren berri izatea.


**Maila:** DBHko 1. kurtsoa eta Batxilergoko 1. kurtsoa, Portfolioan lanean hasi aurretik egitekoa. DBHn bereiz daitezke ikaslearen hizkuntzak eta noiz hasi zen ikasten. Batxilergoan, aldiz, alderdi zehatzagoak ere har daitezke kontuan (ahozko eta ida-tzizko erabilerak, erabilera esparruak, etab.).

**HPEren atala:** Hizkuntz Biografia (*Nire hizkuntzak*).

#### Prozedura:

Hizkuntza abaniko bat pertsona batek erabil ditzakeen hizkuntzen irudikapen grafiko, polikromo eta abstraktu samarra da. Hizkuntzen banaketa erraza egiten da, haizemaile edo zuhaitz baten modukoa, ardatz kronologikoa (ardatz bertikala) eta gizarte erabileretako esparruak (ardatz horizontala) dituena. Inbutuaren edo edalontzi estuagoaren –edo haizemailearen– formak «hazkuntza» eta pertsonak bizitzan zehar bereganatzen duen hizkuntza aniztasuna irudikatzen ditu.


#### Nola landu:

1. Ikasleak bi adibide (Mirenen eta Ibrahimen haizemaileak) irakurri eta haien iruzkina egingo du ikasgelan. Haizemailearen moduko grafikoak marrazteko erabili diren irizpideak azpimarratuko ditu irakasleak:
    - Hizkuntza bat, kolore bat erabiltzea (ikasgela berean ados daitezke hizkuntzen koloreak).
    - Kontuan izatea noiz hasten den hizkuntzak ikasten: lehen urtean hasi (behean), segi goraka.
    - Kontuan izatea haizemailearen arkuak urteak igaro ahala zabaltzen dela, hizkuntza bakoitzaren erabilera testuinguruak ere gero eta gehiago izan ohi baitira.
    - Hizkuntza berriak agertzen diren uneak (haizemailearen ezkerrean edo eskuinean) adieraz dezake hizkuntzak ikasterakoan beste "inguruabar" batzuk badaudela. Esate baterako, haizemailearen banda bat gorde daiteke formalki ikas daitezkeen hizkuntzetarako (Institutuan, hizkuntza ikastegietan); eta, bestea, testuinguru ez-formaletan ikasten direnetarako (bidaietan, harremanetan, etab.). Era berean, haizemailearen banda bat gorde daiteke inguruko hizkuntzetarako eta, bestea, atzerriko hizkuntzetarako, edo, orobat, ama hizkuntza bat irudikatzeko atzeko planoko kolore jakin bat erabil daiteke.
  2. Ikasle bakoitzak ideia-zurrumbilo bat egingo du, marrazkian eskaturiko informazioa bilatzeko: *zein hizkuntza ikasi dut?, noiz?, non?, zein ordenatan?*
  3. Ikasle bakoitzak bere profila marraztu behar du.
  4. Ikasleek euren profilak trukatu dituzte eta talde txikietan haien gaineko iruzkinak egin. Haizemailerik berezianak ikasgela-taldean aurkez daitezke.
- 




## Adibideak::

### Mirenen hizkuntza abanikoa



**Mirenen testua.** *Etxean eta Irungo Behobia auzoan hasi nintzen euskaraz mintzatzen (kolore urdina). Herriko eskolan baziren gaztelaniaz hitz egiten zuten haur batzuk; halaxe hasi nintzen hizkuntza horretako hitzak eta esamoldeak ulertzen (kolore gorria). Lehen Hezkuntzan hasi nintzen gaztelania ikasten. Eskolan eta institutuan euskara eta gaztelania hobetzen segitu dut. Berehala hasi nintzen eskolan ingelesa ikasten (kolore berdea). Nire kontura ere ahalegindu nintzen: musika ingelesa entzuten nuen, berriketa talde batzuetan sartu nintzen... Zaila egiten ari zait. Berriki, Institutuan frantsesa ikasten hasi naiz (kolore horia). Kontuan izan behar da aski hurbil dudala Frantzia, muga-mugan bizi baikara; frantses hiztunak barra-barra erortzen dira asteburuetan nire herriera. Miren*

### Ibrahimen hizkuntza abanikoa



**Ibrahimen testua.** *Marokoko hegoaldeko hiri batean jaio nintzen eta nire senitartekoekin (gurasoekin eta anai-arrebekin) hasi nintzen tamazightez hitz egiten (arrosa kolorea). Eskolan arabiera klasikoa ikasi nuen (lila kolorea) (hizkuntza maila hobetu dut Aljeriako nire lagunekin eta, hemen ere, Europan arabieraz hitz egiten dudalako). Eskolan frantsesa ere ikasten hasi nintzen (kolore lila iluna), Marokoko unibertsitatean ikasketak egiteko behar bainuen. Frantsesa ikasteari utzi nion nire gurasoekin batera Bilbora etorri nintzenean. Ordutik hona, hamabi urte nituenetik, gaztelania, euskara eta ingelesa, zertxobait, ikasi dut. Baina berriki ikasi ditudan hizkuntza horietatik guztietatik batean bakarrik naiz ongi moldatzen: gaztelaniaz. Ibrahim.*

## 15. jarduera

### NIRE PASADIZORIK ONENA

**Helburua:** ikaslea sentsibilizatzea era ludiko batez bere inguruko aniztasun linguistiko eta soziokulturalaz. Horretarako, ikaslearen beraren bizipen baten kontakizuna erabiliko da. Era berean, baliagarria gerta daiteke atzerriko hizkuntzen erabilerari lotutako emozioak eta balio negatiboak arintzeko (barregarri geratzea, ulertua ez izatearen beldurra, etab).

**Maila:** guztiak.

**HPEren atala:** Hizkuntz Biografia (*Beste hizkuntza batzuk*).

### Prozedura:

Ikasleei galdera hau egingo zaie. Animatuko ditugu idatziz erantzutera. Ikasgela taldearen aurrean irakurri beharko dute idazlana.

Ba al duzu kontatzeko beste hizkuntza batzuetako hiztunekin gertatutako oker-ulertu edo bitxikeria baten inguruko pasadizo edo esperientzia interesgarriren bat? Konta ezazu hemen!

Hori egin ondoren, «eguneko edo asteko pasadizoa» hautatuko dugu, hots, bere interesgatik botorik gehien lortu duena. Jardueraren hasieran aipa daitezke oker-ulertuen, kultura desberdintasunen eta abarren inguruko pasadizoak.

## 16. jarduera

### HIZKUNTZA JARREREN GAINEKO TESTA

**Helburua:** aniztasun soziolinguistikoaren eta kulturalaren (hizkuntzak ikasteko interesaren, aniztasuna kontuan hartzearen, hizkuntzegatiko jakin-minaren, aniztasuna onartzearen, hizkuntzen ikaskuntzaren gaineko kontzepzioen eta abarren) askotariko alderdiei loturiko jarrerak eta balioak badirela jakitea. Era berean, HPErekin luze lan egin ondoren ikasleek, kuantitatiboki eta fidagarritasunez, zenbat aurreratu ahal duten jakiteko ere baliagarria izan daiteke.

**Maila:** guztiak

**HPEren atala:** guztiak.

### Prozedura:

Ikasleak galdetegiari bakarka erantzun diezaioke, ikasgelan egin ohi duen jarduera bat gehiago balitz bezala. Garrantzitsua da ikasleak zintzotasunez erantzutea eta irakasleak inolako pizarik ez ematea balizko erantzunen gainean edo testa kontabilizatzeko moduari dagokionez. Hori egin ondoren, ikasle bakoitzak bere testa puntuatuko du, irakasleak horretarako emandako jarraibideen arabera. Bukaeran, hizkuntza jarrerren gaineko baieztapenetako batzuk komenta daitezke, lehenik bikotean eta gero taldearen aurrean.

Ikasleak ikasturtean edo ikastaldi luze batean zehar izan duen aurrerapena egiaztatzeko erabili nahi bada testa, beharrezkoa da ikasleek hasieran eta bukaeran testeko galderei erantzutea. Horrela eginez gero, emaitzak alderatzeko aukera izango dugu.

### Jarrerren testa nola puntuatu

1. Lerro bakoitzaren alboan, paperaren eskuin marjinan, baieztapen positiboak (+) batuketaren zeinuarekin markatu behar dira (1, 2, 4, 10, 12, 13, 14, 15, 18, 19). Lerro bakoitzean lortutako balioak (1etik 5erakoak) batuko dira eta ateratako zifra orrialdearen bukaeran idatziko da (+ zeinua jarriko da)
2. Baieztapen negatiboak (3, 5, 6, 7, 8, 9, 11, 16, 17, 20) (-) kenketaren zeinuarekin markatuko dira marjina berean. Gero lortutako balioen batuketa egingo da. Ateratako zifra orrialdearen bukaeran idatziko da (- zeinua jarriko da).
3. Azken balioespina lortzeko ondoko formula hau aplikatuko da. Ikus adibidea:

Formula	Adibidea
40 puntu	40 puntu
+ [galdera positiboan batuketa]	+ 23 [1/2/3/3/0/5/2/4/1/2]
- [galdera negatiboan batuketa]	- 33 [3/2/3/5/2/2/3/3/5/5]
= jarrera maila	= 30

Zifra orriaren goialdean, eskuin angeluan, idatziko da (biribil bat jarriko zaio). Eleaniztasunari dagokionez zeharo jarrera negatiboak dituen pertsona batek 80 puntu inguru lortuko ditu. Izan litekeen jarrera positiborik onena duenak, aldiz, 0 puntu lortuko ditu. Test hau testuen idazketaren gaineko jarrerak aztertzeko test ereduaren egokitzapena da. (Cassany, 1999; Reigstad eta McAndrew-ena egokiturik, 1984).

### Jarrerren testa

Izena: ..... IKASTETXEA:.....  
 Eredua

Kurtoa: ..... Data: .....

*Erantzun ahal bezain zintzoen ondoko baieztapenei, bost aukera hauetakoren bat baliatuz (izan kontuan ez dagoela erantzun onik edo txarrik):*

	1	2	3	4	5
1. <b>Erabat ados</b> nago					
2. <b>Ados</b> nago					
3. <b>Ez dut argi</b>					
4. <b>Ez nago oso ados</b>					
5. <b>Ez nago batere ados</b>					
1. Atzerriko azentua duten pertsonak nire hizkuntzaz mintzatzaren direnean, gustatu egiten zait.					
2. Posible balitz, Institutuan hizkuntza berri bat gehiago ikastea gustatuko litzaidake.					
3. Pena ematen du idazteko horrenbeste sistema egoteak (arabiarra, txinatarra, errusiarra, grekoa...); bat egin beharko lukete.					
4. Marokora joanen banintz oporretan, gustatuko litzaidake bertako hizkuntzan <i>agur, eskerrik asko</i> , eta halako gauza txikiak esan ahal izatea.					
5. Ez du deusetarako balio hiztun gutxi dituzten hizkuntzak ikasteak.					
6. Ingelesa ikasiz gero, britainiarren moduan ahoskatu nahi dut, betiko azentu zuzenarekin, eta ez amerikarren moduan.					
7. Herrialde bat, hizkuntza bat: gogaikarria da arazo asko sortzen dituelako.					
8. Ez dut gustuko hizkuntzak atzerriko azentu gogorrekin entzutea, horrela, hizkuntza hondatu egiten da eta.					
9. Hizkuntzak txikitari baino ez dira ongi ikasten.					
10. Ona da hizkuntza berri bat ikastea, ulertzeko edo irakurtzeko baino ez bada ere.					
11. Hizkuntza bat ongi ikasteko nahitaezkoa da hizkuntza horretan mintzatzaren diren herri batera joatea.					
12. Hizkuntza bat baino gehiago mintzatzeari lagungarria da beste hizkuntza batzuk ikasteko.					
13. Hizkuntza berri baten arauak eta egitura ezagutzen ditudanean gozatu egiten dut.					
14. Hizkuntza bat ikasteak mundua beste begi batzuekin ikustea ahalbidetzen dit.					
15. Beste batzuen hizkuntzaz mintzatzeak hiztun horien kultura (literatura, zinema, ohiturak, etab.) hobeki ulertzea ahalbidetzen dit.					
16. Hizkuntzak ikasteko, edo dohain berezi bat duzu, edo ez duzu zereginik.					
17. Orain ezin dut, baina handitzen naizenean, beste hizkuntza bat ikasiko dut aisialdian.					
18. Nahiz eta ez ulertu gustukoa dut errotiluak eta abisuak beste hizkuntza batean irakurtzea eta esatea.					
19. Atzeritarrak, beren artean nola mintzatzaren diren entzutea gustatzen zait, nahiz eta ez ulertu.					
20. Hizkuntza batez mintzatzeari, garrantzitsuena, arauak (gramatika, ahoskera, ortografia) errespetatzea da.					

## 17. jarduera

### IKASKETAREN EGUNKARIA

**Helburua:** idazketaren funtzio erreflexibo eta epistemikoa aprobetxatzea hizkuntzak ikasteko jardueren eta prozesuen gainean datuak bildu eta aztertzeko. Ikasleak aldian-aldian idatziko du bere Egunkari pertsonalean edo Ikasketaren egunkarian eta horri esker egiten ari denaren gaineko kontzientzia- eta kontrol-maila gero eta handiagoak izango dira. Erregistraturiko datuak irakur eta azter daitezke, gero, zenbait ikuspegitatik abiatu.

**Maila:** DBHko azken kurtsoak eta Batxilergoa.

**HPEren atala:** Hizkuntz Biografia (*Nire ikasteko modua, Nire planak*).

#### Prozedura:

Ikasketaren egunkaria izenez ezagut daitekeen koaderno berezi batean (Dosierrean gorde daitekeen libretoa batean edo zenbait orri soltetan), ikasleak hizkuntza bat ikasteko aurretik ezarritako esparru batekin zerikusia duten datuak idatziko ditu, besteak beste: hizkuntza bat ikasteko atazak, ikasgelatik kanpo egindako jarduerak, irakurgai mailakatu bat irakurtzean edo proiektu bat garatzean izandako sententziak, ikasgelan zer duen gustukoak, ikasten zerk laguntzen duen gehien, etab.

Ikaslearen eta irakaslearen artean ados daitezke idazteko erabiliko den hizkuntza, aldiorokotasuna edo formatua (eskemekin, ohiko idazketarekin). Ikasturtean zehar, ikasgelan, egunkaria animatzeko eta bizkortzeko atazak egin daitezke, besteak beste: irakurketa bikoteka egitea, zati bereziak hautatzea, berariazko alderdien gainean idaztea (esate baterako: gaurko klasean gustuko izan dituzun hiru gauzaren gainean idatzi, ikasgelatik kanpo beste hizkuntza batean irakurri dituzun testuak idatzi, etab.).

**Adibidea:** *Learning Diary*-ko hasierako testu-zati hau DBHko 4. kurtsoko ikasle batek idatzi du. Ikasle horrek ingelesko klasean egunkari bat idatzi zuen, ikasliburuan aukeran utzitako ildoei jarraikiz, betiere irakasleak testuinguruari egokitu ondoren. Taula moduan aurkeztu badugu ere, jatorrizkoa zerrenda bat zen, eta, horren segidan, zenbait jarduera, bakoitza bere izenburuarekin. Honako hau adibide ona dugu ikusteko nola ikasliburu baten edo material osagarri baten proposamena HPEren lanean txerta daitekeen.

#### Learning Diary

	In class this week:	Out of class this week:	Out of class next week:
First week	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. I've learnt some vocabulary about dreams and describe dreams. We've practised Second conditional sentences to talk about a hypothetical situation or to give advice.</li> <li>2. We've talked about the daily life.</li> <li>3. We've listened about many popular songs.</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. I see a film in English, Shakespeare in Love (with subtitles) on video.</li> <li>2. I use Internet to find out things that interest me.</li> <li>3. I watch TV programme in English on BBC.</li> <li>4. I make my English homework.</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. I'm going to look at web pages of mountain bikes on the Internet.</li> <li>2. I'm going to receive e-mails in English.</li> <li>3. I keep a diary in English.</li> </ol>
Second week	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Also we've practised with may time expressions. We use have to and must to express necessity or obligation. We've practised should to advice and structure of questions.</li> <li>2. We've talk about modal verbs.</li> <li>3. We've listened may history's to make exercises.</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. I look at English-language newspapers or magazines.</li> <li>2. I follow the words of a postal in English.</li> <li>3. I'm going to receive e-mails in English.</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. I'm going to borrow an English video.</li> </ol>

Egokitua honako lanetik: GAIRNS y STUART REDMAN: *Natural English* (Intermediate), Oxford University Press 2003.

## Taula: HPEren eta jarduera osagarrien arteko korrelazioa

Ondoko taulan lotzen dira HPEren atalak aurreko jarduera osagarriekin, nahiz eta horrek ez dituen balizko interrelazioak ahitzen.

HPEren atala	Iruzkina	Gidako jarduerak
<b>Hizkuntzen Pasaportea</b>		
Hizkuntz gaitasunen profila.	Hizkuntz Biografiako <i>Zer dakit egiten nire hizkuntzetan?</i> ataleko lana aurretik egin behar da.	<b>3. jarduera:</b> <i>Zer egin dezaket?</i>
Hizkuntza eta kulturekin izandako esperientziak: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Institutuan</li> <li>• Institututik kanpo</li> </ul>	Ikasleak aurretik hausnarketa egin behar du; irakasleak askotariko esperientzien adibideak jar ditzake.	<b>10. jarduera:</b> <i>Jolas dezagun detektibetan.</i> Esperientzia kulturalak institututik kanpo aztertzeko. <b>15. jarduera:</b> <i>Nire pasadizorik onena.</i> Hizkuntz Biografiarako ( <i>Beste hizkuntza batzuk</i> ) pentsaturik dagoen jarduera hau erabil daiteke pasadizo edo esperientzia interesgarriak kontatzeko.
Ziurtagiriak eta diplomak.		<b>13. jarduera:</b> <i>Ziurtagiria lortu aurretik eta ondotik.</i> Ziurtagiriaren balio egiaztatzaile eta pertsonalaren gainean hausnartzeko.

<b>Hizkuntz Biografia</b>		
<b>Nire hizkuntzak</b>		
Zein hizkuntzatan jarduten dut besteekin?	HPErekin duzun lehen harremana izan daiteke: erabiltzen ditudan eta erabiltzen ez ditudan hizkuntzak identifikatzea, nire inguruan badaude ere.	<b>14. jarduera:</b> <i>Hizkuntza abanikoa.</i> Ikasleak hitz egiten dituen eta ikasten ari den hizkuntzen gaineko kontzientzia izatea. <b>1. jarduera:</b> <i>Hizkuntz autobiografia.</i> Atzera begirako hausnarketa pertsonala. <b>2. jarduera:</b> <i>Zertarako balio dute hizkuntzek?</i> Komunikazio-sistema motak. <b>4. jarduera:</b> <i>Nola sentitzen naiz?</i> Gehitu gainerako jarduerari hizkuntza batzuei edo bestetazuei zaien enpatia gainera gaineko hausnarketa.
Zer dakit egiten nire hizkuntzekin / atzerriko nire hizkuntzekin / nire inguruko hizkuntzekin? Entzumenari, irakurmenari, elkarrizketari eta ahoko adierazpenari dagozkionak.	Saio bat baino gehiago beharko da, seguruenik. Osagairik garrantzitsuenetako bat da. Erabil daiteke ikasgelako ikaskuntza helburuak formulatzeko eta lortutakoa ebaluatzeko.	<b>3. jarduera:</b> <i>Zer egin dezaket?</i> Trebetasun bakoitzerako adierazleak daude, ikasleak berak beren mailan jar daitezten, hau da, beren burua ebalua dezaten.
Beste pertsona batzuk nola hitz egiten dituzte nire hizkuntzak?	Zenbait azenturekin hitz egiten duten pertsonen hitz egiten entzutea eta ikasleari galdetzea "zer iruditzen zaien hori".	<b>5. jarduera:</b> <i>Nola ahoskatzen da eta zer esan nahi du?</i> Hizkuntzaren aniztasun intralinguistikoaren tolerantzia ludikoki bultzatzea. <b>15. jarduera:</b> <i>Nire pasadizorik onena.</i> Alderdi soziokulturalak ludikoki lantzea.

HPEren atala	Iruzkina	Gidako jarduerak
<b>Beste hizkuntza batzuk</b>		
Zein beste hizkuntza hitz egiten da nire inguruan?	Helburuak bi dira: aniztasunaz sensibilizatzea eta tolerantzia bultzatzea. Ikasleak berarekin dakartzan hizkuntza ez-kurrikularrak ere erabil daitezke.	<b>6. jarduera:</b> <i>Hizkuntza bitxikeriak.</i> Beste hizkuntza batzuk hitz egiten dituzten pertsonengan ikasleek antzeman ditzaketen hizkuntza bitxikerien gaineko lana. <b>7. jarduera:</b> <i>Bila ezazu nor-bait... ..</i> Ikaslearen inguruan hizkuntza aniztasuna identifikatzeko jokoak <b>15. jarduera:</b> <i>Nire pasadizorik onena.</i> Alderdi soziokulturalak ludikoki lantzeko modua.
<b>Nire ikasteko modua</b>		
Nola ikasten dut? • Entzumena • Irakurmena • Elkarriketa • Ahozko adierazpena • Idazmena	Ikasteko estilo propioa ezagutzea da helburua. Ikaslearen prestakuntza azpimarratzen da.	<b>8. jarduera:</b> <i>Ikasi izan duzu lehenago hizkuntzaren bat?</i> Ikasteko esperientziak berreskuratzea. <b>9. jarduera:</b> <i>Testu ulergarri-gaitza .</i> Nola irakurri eta nola ulertu behar den hausnartzeko. Ikasteko estrategiak lantzeko kate-maila.
Zer ikasi dut eta zerk lagundu izan dit ikasten?	Ikaslearen ikaskuntza prozesuak testuinguru jakinetan zehaztasun handiagoz aztertzeke balio du. Esanguratsua da ikasleak bere esperientziak gainerako ikaskideekin alderatu ahal izatea.	<b>1. jarduera:</b> Hizkuntz Autobiografia idaztearekin batera zenbait galdera egin ohi da ikaskuntza egoeren eta aurretik egindako ikaskuntzen gainean.
Zer egiten dut ikasgelatik kanpo ikasteko?	Garrantzitsua da ikasgelatik kanpo hizkuntzak ikasteko moduen adibideak jartzea, ikaskuntza ikasgelatik kanpo bultzatzeko.	<b>10. jarduera:</b> <i>Jolas dezagun de-teklibetan.</i> Ikasgelatik kanpoko jardueren erabilgarritasunari buruz ludikoki hausnartzea, hala nola: bidaia, elkartrukaketak, etab.
<b>Nire ikasketa planak</b>		
Zer ikasi nahi dut egiten hizkuntza bakoitzean? Hizkuntza, helburua, nola, zenbat denbora.	Erabil daiteke ikasleak 'ikas-kuntza kontratu' bat egin dezan bultzatzeko: <i>xxx egiten ikasi nahi dut; horretarako hitz ematen dut yyy egingo dudala; irakasleak zzz-rekin lagunduko dit.</i> Kontratua aldian-aldian gainbegiratu da.	<b>11. jarduera:</b> <i>Nire ikasketa planak.</i> Ikasgelatik kanpo zer egin daitekeen hausnartzeko galdera-sorta, betiere programazioan ezarritako helburuak baino haratago.
<b>Dosierra</b>		
Lan eta dokumentuen aurkibidea: 1. gutunazala: lanak eta grabazioak. 2. gutunazala: dokumentuak eta oroigarriak.	Portfolioaren hasierako puntua izan daiteke; ekoizpen onenetatik abiatuz, norberak esango du zer egin dezakeen eta zer egitea espero duen.	<b>12. jarduera:</b> <i>Nire lanik onenak.</i> Dosierrerako lanak hautatzeko irizpideen gaineko hausnarketa.

## Taula: hezkuntza mailaren eta jarduera osagarrien arteko korrelazioa

Ondoko taulan lotzen dira HPEren atalak aurreko jarduera osagarriekin, nahiz eta horrek ez dituen balizko interrelazioak ahitzen.

### 2. Hezkuntza mailen eta jardueren arteko korrelazioa.

Maila	Portfolioaren atala	Jarduera osagarria
<b>DBH 1</b>	Pasaportea	3 eta 13
	Nire hizkuntzak	2, 3, 4 eta 14
	Beste hizkuntza batzuk	7 eta 15
	Nire ikasteko modua	9
	Nire ikasketa planak	11
	Dosierra	12
<b>DBH 2</b>	Pasaportea	3 eta 13
	Nire hizkuntzak	3, 4 eta 5
	Beste hizkuntza batzuk	6, 7, 10 eta 15
	Nire ikasketa planak	11
	Dosierra	12
<b>DBH 3</b>	Pasaportea	3, 10 eta 13
	Nire hizkuntzak	1, 3, 4 eta 5
	Beste hizkuntza batzuk	6, 4, 7 eta 15
	Nire ikasteko modua	8 eta 10
	Nire ikasketa planak	11
	Dosierra	10 eta 12
<b>DBH 4</b>	Pasaportea	3 eta 13
	Nire hizkuntzak	3 eta 4
	Beste hizkuntza batzuk	7 eta 15
	Nire ikasteko modua	8 eta 17
	Nire ikasketa planak	11 eta 17
	Dosierra	12
<b>BATX 1</b>	Pasaportea	3, 10 eta 13
	Nire hizkuntzak	1, 2, 3, 4 eta 14
	Beste hizkuntza batzuk	7 eta 15
	Nire ikasteko modua	8, 9, 10 eta 17
	Nire ikasketa planak	11 eta 17
	Dosierra	10 eta 12
<b>BATX 2</b>	Pasaportea	3 eta 13
	Nire hizkuntzak	3
	Beste hizkuntza batzuk	15
	Nire ikasteko modua	8 eta 17
	Nire ikasketa planak	11 eta 17
	Dosierra	12



# Bibliografia eta erreferentziak

---

## Europako Kontseilua:

EUROPAKO KONTSEILUA. (2001) *Common European Framework of Reference for Languages: Learning, Teaching, Assessment*. Hizkuntza Modernoen Saila (Estrasburgo). Cambridge University Press. EUROPAKO KONTSEILUaren European Language Portfolio-ren web orrialdean. Modern Languages Division (2003ko uztaila).

Galegoko bertsioa: *As linguas modernas: aprendizaxe, ensino, avaliación: un marco común europeo de referencia*. Consello de Europa, Xunta de Galicia, Dirección Xeral de Política Lingüística, A Coruña: 2001.

Espainierazko bertsioa: *Marco común europeo de referencia para las lenguas: aprendizaje, enseñanza y evaluación*, Madril: Instituto Cervantes, MECD, Anaya, Madril, 2002. Baita: <http://cvc.cervantes.es/obref/marco/> (2003ko uztaila).

Euskarazko bertsioa: *Erreferentzi marko europar bateratua: hizkuntzen ikaskuntzarako, irakaskuntzarako eta ebaluaziorako*: Council of Europe, Europako Kontseilua. Donostia: HABE, 2002.

Katalanezko bertsioa: *Marc europeu comú de referència per a les llengües: aprendre, ensenyar, avaluar*. Bartzelona: Generalitat de Catalunya, Govern de les Illes Balears, Govern d'Andorra, 2003.

LITTLE, David & Radka PERCLOVÁ (2002, sarean) *The European Language Portfolio: A Guide for Teachers and Teacher Trainers*. European Language Portfolio-ren web orrialdean.

SCHNEIDER, Günter & Peter LENZ (2002, sarean) *European Language Portfolio: Guide for Developers*. Lern- und Forschungszentrum Fremdsprachen. University of Fribourg/CH.

KOHONEN, Viljo & Gerard WESTHOFF (2002, sarean) «Enhancing the pedagogical aspects of the European Language Portfolio (ELP)». European Language Portfolio-ren web orrialdean. Word formatuko dokumentua.

## Bibliografia, espainieraz:

BARROSO, R. (2002) «Los alumnos tendrán un pasaporte escolar donde constará su nivel de idiomas.», ABC, 19-2-2002.

CASSANY, Daniel. (2002) «El portafolio europeo de lenguas», *Aula de Innovación educativa*, 117, 13-17. Bartzelona - Buenos Aires.

ESCOBAR URMENETA, Cristina. (2000) *El portafolio oral como instrumento de evaluación formativa en el aula de lengua extranjera*. Departament de Didàctica de la Llengua, la Literatura i les Ciències Socials. Universitat Autònoma de Barcelona. Doktorego tesia.

«Marco común europeo de referencia y Portfolio de las lenguas.», *Mosaico*, 9, monografikoa. Revista para la Promoción y Apoyo a la Enseñanza del Español (Espainieraren Irakaskuntza Bultzatzeko eta Laguntzeko Aldizkaria). Baita ere: Elena Verdía, Gisela Conde, Gilbert De Samblanc eta Daniel Cassany-en artikuluak. Sarean: <http://www.sgci.mec.es/be/mosaico.htm> [2004ko urtarrila].





## Webak

**Bergen Cando Project:** [2004ko urtarrila] <http://www.ecml.at/cando/files/start.htm>  
Europako zenbait unibertsitatearen ikerkuntza proiektua, Bergeneko (Norvegia) unibertsitateak koordinaturik, EMEBren eta HPEren testuinguruan, Bigarren Hezkuntzako Ingeles irakasgaiko «can do» motako adierazleak egiteko.

**European Language Portfolio,** Europako Kontseilua [2004ko urtarrila]: <http://www.coe.int/portfolio>. Webgunea, oinarritzko dokumentu hauekin: EMEB, irakasleendako eta materialen diseinatzaileendako gidak, esperimentazio txostenak, etab.

**Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa.** [2004ko urtarrila] <http://aplicaciones.mec.es/programas-europeos> Espainiako HPEren diseinatzaileen eta esperimentatzaileen webgunea, honako hauek osatuta: dokumentazioa pdf-n, autonomia erkidego bakoitzeko koordinatzaile eta arduradunen helbide elektronikoak.

## Aipatutako bibliografia eta erabilgarriak:


CASSANY, Daniel. (1999) *Construir l'escritura*. Bartzelona: Empúries. Espainierazko bertsioa: *Construir la escritura*. Bartzelona: Paidós.

CASSANY, Daniel; ESTEVE, Olga, MARTÍN PERIS, Ernesto y PÉREZ-VIDAL, Carmen (2003) Memoria de experimentación del PEL español de secundaria. Madril: MECD. Barne txostena.

CONDE, Gisela (prentsan) "El compromiso europeo con el aprendizaje y enseñanza de lenguas: El "Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas" eta "Portfolio Europeo de las Lenguas"." Cuadernos de Pedagogía, hizkuntzaren irakaskuntzaren gaineko monografikoa, 2003ko urrian argitaratzen da.

REIGSTAD, T. J. & MCANDREW, A. (1984) *Training Tutors for Writing Conferences*. Urbana: ERIC/NCTE.

«Jésli jestes» Parma Press, Varsovia. Banaketa: Rainbowart, Varsovia.





COUNCIL OF EUROPE    CONSEIL DE L'EUROPE

European Language Portfolio  
Portfolio européen des langues

Egiaztatutako eredu: N°52.2003



MINISTERIO DE EDUCACIÓN Y CIENCIA

